

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Mendaro



Aurkibidea

Udalerria: Mendaro

Sarrera



Debabarrena eskualdean dago eta 1983tik da herri. Herria hiru auzoz osaturik dago: Mendarozabal, Azpilgoeta eta Garagartza. Azpilgoeta (Mutriku) eta Garagartza (Elgoibari) batu zirenean sortu zen gaur egungo Mendaro. Azkoitia, Deba eta Markina ere baditu mugakide. Mendaron industriaren hasierak burdinoletan eta errotetan du jatorria. Ondoren, kanterak eta beste industria batzuk ere errotu ziren. Oso ezagunak dira bertako irin-fabrika eta txokolate-fabrika (Saint Gerons). XX. mende bukaeran herriak eraldaketa handia izan du. Garai bateko etxeen, baserrien eta landen eremuetan lantegiak eta etxeak eraiki dira, herria hazi egin da eta eskualdeko hainbat langile eta bizilagun etorri dira Mendarora.

- **Biztanleak:** 1.930
- **Euskaldunak:** %76,2

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **19**
- Zintak: **22**
- Pasarteak: **262**
- Transkribatutakoak: **62**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **178**

Proiektuak

- Ahaztuen Oroimena
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskal Herriko txori eta animaliak
- Mendaroko ahotsak

Hizlariak

Juan Arriola Garate (1917-2011)



1917an jaio zen Mendaroko "Txalkorkua" etxean. Bi anaia ziren. Mutikotan eliz mutil lanak egiten zituen. Azpilgoeta auzoko eskolan ibili zen 14 urtera arte. Gero, 15 urterekin Mendaroko irin-fabrika hasi zen lanean eta bertan egin zuen bizi osoa. Fabrikako nagusia zen Linazasororen inguruko kontu ugari kontatzen ditu. 19 urterekin Gerra Zibilera joateko deitu zioten. Hasieran bulegoan egon zen lanean eta gero Burgosen txofer lanetarako aukeratu zuten. Handik aurrera Espainian zehar soldaduak kamioian hartuta ibili zen. 4 urte egin zituen soldadu. Gerra Zibileko hainbat bizipen kontatzen ditu. Elkarriketetan bere alaba Rosa Marik eta ilobek ere parte hartu zuten.

Elias Arriola Ostolaza (1930)



Mendaroko Lizantzu baserrian jaio zen, 9 anai-arrebatan gazteena. Aita Lizantzukoa bertakoa zuen eta ama, berriz, Itziarkoa (Deba). Eskolan herrian bertan ibili zen hasieran, baina etxean eskola gehixeago ikas zezan nahi zutenez, Debako maristengana joan zen gero. Han denbora gutxi egin zuen, eta Mendaron bertan jarraitu zuen ikasten, gau-eskolan, Don Cesareo maisuarekin. 17 urte ingururekin aprendiz moduan hasi zen aroztegi batean eta gerora bere kontura hasi zen lanean. Bizi osoan arotz lanetan ibili da era guztietako lana egiten: ateak, leihoak, zoruak, baserriko tresnak... Erretiratu ostean Kilimon futbol taldeko zuzendaritzan ibili zen urte askoan eta azken urteak lehendakari gisa egin zituen.

Juana Elorza Ansola (1928)



1950. urtean Alkorta baserriko Patxi Urainekin ezkondu zen eta 1953. urtean kalera joan ziren bizitzera. Etxekoandre lanetan eta baserrian lagundu izan du eta jostuna izan zen baita ere, jertseak egiten zituen. Mendaroko bizkotxoak egiten zituzten.

Kontxita Garate Gurrutxaga (1923-2011)

Mendaroko Azpilgoeta auzoko Saratsuerdikoa baserrian jaio zen 1923an. Aita Saratsukoa eta ama Etratekoa zituen.



Bost anai-arreba ziren eta amona ere beraiekin bizi zen. Baserritik bizi ziren, eta ardiak eta ahariak hazten zituzten. Baserrian errentan bizi ziren. Hori dela eta, etxejabeei Santo Tomas jaietan errenta ordaindu behar izaten zieten, Debara joanda. Umetan Mendaroko eskolara joan zen, baina etxeko lanek ez zioten uzten beti joaten. Zazpi urterekin jaunartzea egin eta eskola utzi zuen. Gerora, Mendaroko antxoa lantegian egin zuen lan.



Sebastiana Larrañaga Artetxe (1916-2015)

Juli Larrañaga Garate (1921)



Mendaroko Agerre Txiki baserrian jaio zen 1921ean. Aita Goikola baserrikoa zen eta ama Sahatzukoa. 9 anai-arreba ziren eta umetatik baserrian lan egin beharra tokatu zitzaion. Eskolara joateko aukera gutxi izan zuen. Ezkondu eta gero Sahatzu baserrira joan ziren bizitzera. Elkarriketa egin zitzaionean kalean bizi zen.



Carmen Larrañaga Loiola (1938)

Manuela Larrañaga Loiola (1926-2017)

Debako Arbiskoa auzoko Sakabizar baserrian jaio zen.



Zortzi anai-arrebatatik bigarrena izan zen. Aita etxekoa eta ama Eibarko Agiñagakoa zen. Aittola zaharreko eskolan ikasi zuen sei urtetik gerra hasi zen arte. Deba inguruan ez zen borrokarik izan gerra denboran. Bere bizi guztia baserrian eman du. Umezain aritu zen urte eta erdiz Sakabi Berri baserrian. Hogeita bat urterekin Elgoibarko Aiastia auzoko Oa Txikia (Uba Txikia) baserrira ezkondu zen etxeko Agustín Irustarekin. Lau seme-alaba izan zituzten.

Bitoriano Loiola Iriondo *Ospas* (1926-2016)



Mutrikuko Abeletxe baserrian jaio zen 1926an eta gaztea zela Mendaroko Ospas baserrira etorri zen bizitzera familia osoa. 8 anai-arreba ziren. Ibiri bailarako eskola-etxean ibili zen 3 urterekin hasi eta 12-13 bete arte. Etxean taberna antzekoa izan zuten eta erromeriak egiten ziren bertan. Handik sortuko zitzaion seguruenik trikitiarekiko zaletasuna; izan ere, bere kontura soinu txikia jotzen ikasi eta urte askoan han-hemenka soinua jotzen ibilia da. Bi aldiz irabazi zuen 60 urtetik gorakoen trikiti-txapelketa Zarautzen, Luzio Ubera zuela lagun panderoa jotzen.



Isidoro Mugerza San Martin (1927)

Felisa Olazabal Garate (1928-2015)



1928an jaio zen Mendaroko Txoferrane etxean. Aita Irabane etxekoa zen eta ama, berriz, Sahatsu baserrikoa. Aita Mendaroko palazioan txofer lanetan aritzen zen eta ama neskame. Bertan ezagutu zuten elkar. Aitaren ofiziotik datorkio `Txoferra´ ezizena familiari. Sei neba-arrebatan bosgarrena, Felisak eskola kontuak ikastea baino jostea nahiago izaten zuen.

Luis Ondarra Larrañaga *Goikola* (1928-2014)



Mendaroko Goikola baserrian jaioa, bost anai-arrebaren artean gazteena izan zen. Ama Goikola baserrikoa bertakoa zuen; aita, berriz, Markinatik Mendarora ezkonduakoa. Emaztea ere bizkaitarra izan zuen, Amоротokoa. Hainbat urtez baserriko lanetan eta mendiko lanetan aritutakoa (basogintzan eta ikazkintzan, besteak beste). Mendaroko lantegi batean ere egin zuen lan 11 urtez. Ezkondu ondoren, Mendaroko Plaza auzoan bizi izan zen, eta gerora Azpilgoeta auzoan.

Inazio Retolaza Mendikute (1943)

Mendaroarra. [Santi](#) anaiarekin batera egin zioten elkarrizketa Ahaztuen Oroimena taldekoek, gerrako kontuak jasotzeko.

Santi Retolaza Mendikute (1936)

Mendaroarra. [Inazio](#) anaiarekin batera egin zioten elkarriketa Ahaztuen Oroimena taldekoek, gerrako kontuak jasotzeko.

Patxi Urain Lazkano (1924-2016)



Patxi Mendaroko Alkorta baserrian jaio eta bizi izan zen. 1950. urtean baserria utzi eta kalera bizitzera joan zen. Urte berean Juana Elorzarekin ezkondu zen. Lanbide ugari izan ditu, kanteran, fundizioan eta baserri inguruan lan egin du batik bat.



Clara Zabala Larrañaga (1928)



Manuela Zabala Larrañaga (1925)

Lorentzo Zubiaurre Urain (1931)



Mendaroko Garagartza auzoan jaio zen 1931n. Bertako eskolan ibili zen 11 urte ingurura arte eta artean 12 urte bete gabe lanean hasi zen "Larrañaga y cía" lantegian. Ondoren Azpiazurenean hasi zen lanean eta bertan lan egin zuen beste lagun batzuekin batera ZUDAM euren lantegi propioa sortu zuen arte. Zulagailuak egiten zituzten. Bere zaletasun handiena arrantza eta ehiza izan dira. Ume-umetatik ehizan aritu izan da, habitan lehenengo, zozo-birigarrotan gero, oilagorretan eta pasean ere bai.

Domingo Zubiaurre Urizar *Beitti* (1926-2018)



Beitti baserrian jaio zen, hiru anai-arrebatan zaharrena. Ama Mendarokoa bertakoa zuen eta aita, berriz, elgoibartarra. Mutikotan herriko eskolan ibili zen eta 13 urterekin hasi zen lanean. "Kapaingoan" ibili zen lanean 19 urtera arte, eta gero 2 urtez Gasteizen egon zen soldadutza egiten. Herri-kiroletarako zaletasuna izan zuen. Herriko hainbat pertsonaiaren inguruko kontuak kontatu zizkigun. Elkarriketan bere semea ere egon zen.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Aisia

1.1. Arnobateko erromeriak

- **Hizlaria(k)**: Larrañaga Garate, Juli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Goikoetxea, Haritz
- **Erref**: MEN-004/001
- **Iraupena**: 0:04:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:04:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: Inguruetako neskak elkartzen ziren erromeriara dantzara joateko. Arnobaten erromeria egoten zen; natibitate, San Esteban eta Bazko erdiko izaten ziren jende gehien biltzen zen egunak. Egun berezietarako San Migel auzoko Goikone soinu-jolea ekartzen zuten. Urkaregitik Arnobaterako bidea ebaki zutenean egun osoko festa egin zuten.

Transkripzioa

- Esan dozu nere amama ezautzen zendula ta...
- Bai, bai.
- Zu be han ingurukua zara ala?
- Bailleran harek ixexa Urkaregi aldian do haren etxia ta guria hamen, hemendikaldien, oso aparte.
- A, bai?
- Oso aparte, baiña juntatzen giñan, e!
- A, bai?
- Goizian mezetaa ta atsaldian Arnobatea.
- Dantzara?
- Dantzan in o. Soiñua eoten zan ta... guretzako modukua soiñu-jotaillia baiña... zaratia atea ezkeo.
- Erromerixia egoten zan, ezta, Arnobaten?
- E?
- Arnobaten erromerixia egoten zan, ezta?
- Ordun, erromerixia itten zan Arnobaten.
- Zenbatero egoten zan edo...?
- Urtian hiru aldiz izeten zan: Natubittate, San Esteban ta Pazku erdiko eguna. Orduen juten zan jentetan... buelta guztitik! Hasi Astigarribixa, Alzola, Elgoibar... dana! buelta guztitik etortzen zan jentia. Dana beteta. Oin, jai normaletan gitxiau juten zan, baiña... hantxe.
- Ta ze soiñujole egoten zan?
- E?
- Ze soiñujole? Zein egoten zan soiñu joten?
- Bertakuak, bi anai. Soiñujoliak halako modukuak. Bueno, holako egunetan, egun partikular horretako ekarten zebeu hau... Goikone; San Migeletik ekartzen zebeu soiñujotaillia. Ta bestelakuan eurak.
- Ta ze izaten zan arratsaldez?
- E?
- Arratsaldez izango zan, ez? Arratsaldian.
- Bai, bai. Arratsaldez, arratsaldez. Goizetik eta egun guztikua egon zan e... Urkareitikan Arnobatea kamiñua ebagi zebeuian. Kamiñua ebagi, atxurrekin e! Zabaldur kamiñua. Kamionak e... pasatzeko moduan ipiñi zebeu, gero ipiñi zebeu hobeto baiña... Ta geo iñauguraziua egon zan meza ta guzti. Mezia, bazkaixa eta dana jentia pagari aldian gora! bazkaixak hartuta jun zianak han. Jentia dana tapauta zauen. Orduan bazaban don

Antoniok [epetua]. Harek hots eitten zaban toki guztira jentia joten zan. Baiña...

- Eta zeoze tabernarik edo egoten zan?

- Bai, bai, tabernia eukitzen zebe. Sardaua, ardaa... danetiken. Ta jatekua ematen zebe.

- Bertakuak?

- Bai, bertakuak, bertakuak [ematen zebe]. Iñaugurazio egun horretan ere guk debalde euki genduen. Bean errenteruak giñan, ta beakin lanian han ibilittakuak, hasi Urkareitik eta [...ra] ebai artian... Ta [...] debalde bazkaixa eman zigun. Akordatzan naiz aittan onduan nola egon nitzen, neska koxkorra ta.

- Zenbat urtekin hasten ziñazien erromerixan? Zenbat urtekin hasi?

- Hasi? Ez dakit zenbat urtekin hasiko giñan. Hara joten hasi giñen gu atsaldia pasatzea ta illunabarreako etxea zintzo e! Illundu baiño lehen. Eukiko genduzen ordurako dozena bat urtetik gora behintzat! Bai, ondo! Geo pixkat gogortu giñanien illunduta igual etorten giñan, baiña... lelengo aldien... etxera erretira.

- Ta zuen etxetik zenbat denporako bidia zeuan?

- Gure etxetiken hara? ordu erdi eskas. [...] Gure etxetikan hurrengo Izabal zauan, Potzueta ta Arnobate... bide onduen.

- Zelan da zure basarrixan izena?

- Nere jaixotetxia Agarre.

- Agarre?

- Agarretxiki. Bi dia: Agarreandui ta Agarretxiki. Ta ni Agarretxikikua naiz.

1.2. Erromeri eta festak

- **Hizlaria(k)**: Garate Gurrutxaga, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Cobos, Jagoba
- **Erref**: MEN-008/006
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:09:02. **Bukatu**: 00:11:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
 - Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
 - Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- **Laburpena**: Azpil batean ura jarrita garbitzen ziren, atalka. Ez ziren erre kara joaten urruti baitzegoen. Arnobaten erromeria egiten zen eta festa egun ezberdinak izendatzen ditu. Neska taldea elkartu eta dantzan aritzen ziren.

Transkripzioa

- Eta... zelan baiñatzen ziñeten?

- Baiñau batez!

- Batez!

- Batez. Hankak garbittu e... barriñoian ipiñita... ekarritta ur epelakin. Eta ustez garbiuta ibiltzen giñan e! Aurpeixa ta ipurdia ta... garbitzen genduzen geure ustetan.

- Zerrekina?

- Urakin.

- Urakin.

- Bai, ta geo, ba, toaillai o sikau ta... baiña zikiñak ez giñan ibiltzen e!

- Errekan ez ziñeten baiñatzen?

- Ta argik ez ta urik ez!

- Errekaen baten ez ziñaten baiñatzen?

- Ez, ez ezta pentsau be errekaik. Puf... tokittan [Intxausti] lekutan zauan Sahatzutik!

- Eta... pixkat gaztetxuau ziñanian urteten ziñan herrittik kanpora jaixetan edo erromeixeta eo...

- Ez, ez, ez... hantxe bertan. Arnobaten eitten zan erromeixia eta hantxe eoten giñan.

- Noiz izaten zan erromeixia Arnobaten?

- Ba eitten zian partikularrak bost jai: San Esteban euna bat, Kandelaixo euna bi, Asensiona hiru, Pazkua bost. Bost Pazkua erdiko. Bost jai partikularrak eitten zian Arnobaten. Kale... Mendaroko jendia ta dana joten zan erromeixa. Hor... horrek bost jai partikularrak. Geo, bestela betiko korrienteko ordu erdiko erromeixatxuk izaten zan.

- Ta ze eoten zan? Trikitixa ta soiñua...

- Ba, soiñua. Bai, hoixe bakarrik ta bea gitxi. Ta dantzan asko gustatzen zakun eittia.

- Mutillekin iten zendun dantza?

- A, neska edo mutil. Mutil beorrek eskautakuan. Neskak georrek juntauta itten gendun.

- Mutillen batekin dantzan ein ezkoro ya nobixotzako? Nobixotzako ya?

- Bai, iuel. Ez, nobixotzako ez, baiña neskak ibiltzen giñen. Neska mordua giñen ta! Ta ni baiño zaharrouak asko! Ni gaztetxutxuena. Danok...

- Ta zelan ezautzen zendun? Nobixotan ta zelan...

- Ba, hantxe, ba, dantzan da... hantxe ezautu nobixuk.

- Eta gero...

- Ba, hoixe.

- Bai... eta dantzak... pla e... musika orduan soiñua?

- Bai, trikitixa ta... hoixe. Pasodoblia ta beltza (balsa) ta hiru-lau pieza horretxek.

- Eta asko ibiltzen... mutil asko atzetik zittuzun?

- Ez, ez, ez. Ez, ez, ez... prepezioz. Pormalak giñen gu!

- Bai. Bakarrakin hasi ta kitto?

- Bai, hoixe. Tontie izen. Listie izen banitz!

1.3. Karta jokoa eta futbola

- **Hizlaria(k):** Garate Gurrutxaga, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Cobos, Jagoba
- **Erref:** MEN-008/009
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:13:45. **Bukatu:** 00:14:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa » Jokoak
Aisia » Kirola » Futbola
- **Laburpena:** Puntuan aritzen ziren kartetan, ama oso karta zalea zen. Futbola asko gustatzen zitzaion eta mutilekin aritzen ziren jolasean.

Transkripzioa

- Eta akordatzen zea ze joko eitten zenun?

- Puntuan. Amama guria oso jokolarixa... musian ta! Ixa ikesixan geratu giñan, baiña ez naban ikesi musian! Baiña puntuan, haura, bai, hauraxe

ikesi neban bakarrik.

- Eta anai-arrebekin zetan jolasten zenuen?

- Bai, bai... anai-arreba...

- Soka saltuan o futbolian o...

- Ba, ostian, futbolian asko gustatzen zatan mutillekin ibiltzia. Ta ostian, jokuan e... gitxi... astixa pixkat... egualdi txarra zauenian-ta eitten gendun bakarrik.

- Orduan, mutillekin futbolian jokatzen zendun?

- Bai, ibiltzen giñan. Jokau ez ibilli.

- Bai.

- Kuadrillan palta bazan baten bat, ba, ein in bihar. Ta gustora, gaiñera. Gustau itten zatan, gaiñea.

- Pelotan ere...?

- Pelotan, ez. Pelotako apizioik ez det... hori ez gendun. Eskuekin pelotan prontoian ezin jo.

1.4. Ahari-jokoak eta herri-kirolak

- **Hizlaria(k)**: Garate Gurrutxaga, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Cobos, Jagoba
- **Erref**: MEN-008/011
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 00:16:04. **Bukatu**: 00:18:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
 - Aisia » Kirola » Herri-kirolak
 - Aisia » Kirola » Pilota
 - Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: Mendaroko frontoian eta Emeterioko ikatz-tokian egiten ziren kaleko erromeriak. Herrian baziren pilotari ezagunak; haietako batzuk izendatzen ditu. Jokorako ahariak izaten zituzten etxean eta probetara joaten ziren. Anaia aizkoran aritzen zen festetan.

Transkripzioa

- Pelotan... ez zenuten itten, ezta?

- Ez, ez, ez. Pelotan ez.

- Ez zeuan frontoirik Mendaron?

- Bai, Azpilikueta frontoe hori. Oin dauana.

- Eliza ondokua?

- Bai, hoixe prontoia. Ta jende asko... Erromeixia ta hor eitten zan Mendaron, kaleko erromeixia. Han ta Emeterioko pagano, ikeztokixa edo... haura dana erromeixaz egoten zan. Jaiero. Ta Juanito soiñujoillia zela da ape... Areitio. Soiñu-jotaille ona!

- Eta...

- Ellgoibartik eta Mendarora jendia erromeixa asko etortzen ei zan! Gu ez giñan bajatzen kaleko erromeixetara batere.

- Bertan bazauan pelotai famosoen bat Mendaron?

- Bai, "Txikito Mendaro"!

- Bai?

- Bai, ona...

- Eta... eta bestela kanpoko onak? Akordatzan zea? Atanotarrak o...

- Ez, ez... horrekin ez naiz akordatzen. Ez naiz akordatzen. Gero, zahartu... zaharro in nitzenin ezautu nittuan, baiña orduan ez.

- Eta frontoian andrazkoik eoten zan?
 - Ez dakit, eongo zian.
 - Bueno, orduan, fubolian jokatzen zenuten, ezta?
 - Bai, jolasten.
 - Eta... e... baloia nolakua zan?
 - Baloia biribilla, ez dakit nik zelakua zan...
 - Baiña putz itten zenun o...
 - Ez, ez, ez... nik ez dakit. Mutillek baten batzuk ekartzen jonen pelota, baloi hori... ta harekin ibilli!
 - Eta bizikleta... bizikletan ibiltzen ziñeten?
 - Ezta pentsau ere!
 - Ez zakazuen bizikletaik'e?
 - Bizikletaik... ezta! Arrastoik ere...
 - Eta... eta... hemen inguruan ez zauan afiziorikan?
 - Ez... orduan, nik ez dakit. Baldin bazauan e... nik ez nakixan behintzat.
 - Hemen herri-kirolak eingo zian iual? Aharixak, idixak eta horrek itten...
 - Bai, probia... ta aharixak aukitzen genduzen jokoako.
 - Zuek, bai?
 - Bai, jokuen? Askok gure anaixak. Neuk eta aittittak gobernatzen genduzen aharixak jokoako.
 - Ta nun izaten zian jokuak?
 - Bai, Eibarren ta Ondarruan ta... juten zian ahari-jokua jokatzea. Ta Andramaixetan Mendaron ere bai! Azpilikueta.
 - Ta idixekin?
 - Irixekin gu ez giñen jun proba. Auzun beste batzuk juten zien.
 - Oillarrak?
 - Ez, oillarrak bai, baiña ez gendun jokoakoik aukitzen.
 - Errromeixa orduan Andramari eguna...
 - Bai, Mendaron ene... fiestak! Eta gure anaixa aixkoran ta... Mariano!
 - Ze egoten zan aixkoran ta...
 - Bai, ta guk... haura itxekua aixkoran ta ez giñen juten ikustea! Zea ematen ziun, ikeria, hankak jo [zeakin edo] eta! Eta bea pozikan fiestetan! Aixkolarixa izan zan haura!
 - Bai?
 - Bai.

1.5. Udatiarrak, hotelak eta bainuetxea

- **Hizlaria(k)**: Olazabal Garate, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goikoetxea, Haritz - Otegi, Aitziber
- **Erref**: MEN-012/008
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:11:46. **Bukatu**: 00:13:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak
 Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- **Laburpena**: Gaztetan dantzan aritzen zirenean udatiarrak begira egoten ziren. Behin txanponak eman zizkieten gozokiak erosteko. Altzolan hotelak eta bainuetxea zeuden. bainuetxeko ura giltzurrunetarako ona ei zen, bertako ura edateko sendagaia zen. Ura saltzen beranduago hasi ziren.

Transkripzioa

- Buenooo... Ni akordatzan naiz, gu neska-koskor mordua ta orduan ´e dantzaz gu jo-ta keian, ta horrek... gu konturau ez ta beraniantiak begira guk dantzaz zela eitten gendun. Hor zan len, oin errekoa dauen tokiaz hor arbolaria. Ez zuan ezautuko hori hik.
- Nun, baiña, hori?
- Hamentzen, Kalebarrenian. Errekoa dauan tokiaz, hortzen. Eta horrek beraniantiak etorri ta begira-begira. Ta akordatzan naiz gero zela txanpon mordo bat eman zian eskura, erosteko nahi gendun gozokiaz edo kakauesak-edo erosteko ta. Haretzek beraniantiak.
- Madrileñuak-edo izaten zian?
- Ez dakit, ba, zer zian, baiña guri dirua eman behintzat! Ta...
- (Hiztuna 2) Akordatzan da...
- Hoi da.
- Gauzak erosteko, gozokiaz. Gu dantzaz, jo-ta keian, dantzaz. Ta harek... grazia ein gu umiak hala ibiltzia ta... Zer, harek dirua jakanen ta...!
- Altzolan zer zeon, hotela?
- Hotela!
- Hotel bat?
- Ez, ez, ez.
- Bat baiño gehio?
- Honek gehio daki. Euronian ´e bai, hotela.
- Zenbat hotel zeuden?
- Nik ezin neike esan zenbat hotel zian.
- Ez daukezu gogoan?
- Ez dakit, balnearixua ta...
- Bost bat edo? Ez dakit...
- Ez dakit, ezin neike esan. Dana hotelitua-hotelitua hola zan.
- Eta balnearioko ura zerbaittetako ibiltzen zan?
- Oin ´e bai! Ura eraten da, ba?
- Baiña osasuneako ona zalako?
- Bai, bai.
- Zertako izaten zan?
- "Del riñón" o hola...
- Giltzurdiñetako?
- "Pa limpiar, sí, sí". Goizian bajatzen zian ta basuekin ta ura eraten zeuen baraurikan horrek beraniantiak. "Medicina" zala ta. Ta gero, klaro, gero botikia urten zauanian, ba, hori ba...
- Galtzen jun zan.
- Atzeatu in zan. Bai.
- Saltzen zuen ura? Horko ura saltzen zan?
- Orduan hola botilletan ez. Gero hasi zan, gero laga zionian hori jende horrek danak, pues... horretxetaa hasi zian, ura saltzen.

1.6. Debako hondartza

- **Hizlaria(k)**: Olazabal Garate, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goikoetxea, Haritz - Otegi, Aitziber
- **Erref**: MEN-012/010
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:14:35. **Bukatu**: 00:15:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze

- **Gaia(k):**

Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

- **Laburpena:** Trenean mugitzen ziren bainuetxeko bezeroak. Deba oso estimatua zen, eta bertako jendeak etxea udatiarrei utzi eta etxekoak ganbaran egiten zuten lo. Beraiek Debako hondartzara joaten ziren.

Transkripzioa

- Len trenian asko, e... maleta zahar galantekin! Jesus! Agostua. Deba e... estimazio haundixa eukitzen zauan Debak. Pentsaizue, etxetan zeak... kanpoko jendia —madrileño ta— asko etortzen zan, eta eurak ganbaraa juten zian udan, dirua atatzeko.

- Joe...

- “¡Eso es verdad eh! Sí, sí, sí, sí, sí”. Bai. Ta gero, goizian goizo plaiara... ganbaratikan jun bihar!

- (Hiztuna 2) Ezin aguantau ganbaran... beruan beruakin!

- Zuek plaia-ta juten ziñazten? Edo...?

- Bai.

- Bai?

- Hori, hori bai.

- Noa juten ziñaten? Deba?

- Debaa. Debaa.

1.7. Zumaiaiko San Pedrotara

- **Hizlaria(k):** Olazabal Garate, Felisa

- **Elkarrizketatzailea(k):** Goikoetxea, Haritz - Otegi, Aitziber

- **Erref:** MEN-012/011

- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:15:15. **Bukatu:** 00:16:42

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

- **Gaia(k):**

Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

- **Laburpena:** Neskame zegoen etxekoek dirua eman zioten behin Zumaiaiko San Pedrotara joateko, baina bere lagunak ez zuten dirua, eta berak disgustua hartu zuen. Hala ere, azkenean joan ziren. Orduan Zumaia leku tristea zela dio, trenetik irten eta guztia erreka zelako, oso zikina.

Transkripzioa

- Bai, akordatzen naun San Pedro batzuetan, enee... Dirua ataa kontuak zenbat zan len! Ta Joxe `Kapain´ek eman janan bost duroko bat —Kapaiñen eon nitzanian, nausi horrek—. Eta klaro, zea zan, San Pedruak, eta Zumaian festak. Hara juteko esan zian: “Zu jun Zumaia. Hor dirua ematen dizut eta jun”. Baiña nere lagunak ez zaken diruikan! Ta ezin jun. Haura disgustua!

- (Hiztuna 2) Ezin gastau, ama!

- Ezin jun!

- (Hiztuna 2) “¡Por una vez!”

- Ta ez jakiñat /etxakiñat/... Behin gero, halakoren baten, jun giñanan Zumaia.

- (Hiztuna 2) A, bai?

- Jun giñanan. Jun giñanan. Zela-hala, baiña pentsauta moduan ez. San Pedruetan ez. Ta orduan jakanat, ba, nik goguan Zumaia oso paraje tristia

zan orduan. Ja-ta trenetik urten ta ja-ta... oin kamiñua daon tokixan dana errekoa, dana zea zan...

- Erriberak.

- Bai. Holaxe dana. Bedar zaharra, zikiña... oso, oso, oso... hauraxe [jakanat] rekuerdua. Ezautu zendun hola?

- Entzunda, beste elkarrizketa in dieten batzui... erriberak ziela.

- Entzunda? Bai, bai, bai. Bedar zahar haundixak kamiño onduan zihar. Ura, errekiak eta potzuak eta... holaxe. Hauraxe rekuerdua jakanat nik. Bai. Kanbixo edarra in jon!

2. Herria, azpiegitura

2.1. Mendaroko taberna eta dendak

- **Hizlaria(k)**: Larrañaga Garate, Juli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Goikoetxea, Haritz
- **Erref**: MEN-004/003
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:04:30. **Bukatu**: 00:06:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena**: Mendaron Goikoetxeatarren denda betidanik ezagutu du. Geroago jarri zituzten beste denda batzuk ere aipatzen ditu. Herriko garai bateko tabernak: Olianekua, Frontoikua, Emeterionekua...

Transkripzioa

- Mendaron esan dozu tabernia egoten zan ez Arnobaten?

- Tabernia?

- Bai, ez?

- Bai.

- Herrixan bazauan tabernarikan eta dendarik eta holakorik?

- Hamen Mendaron? Bai, dendia bai.

- Bai?

- Goikoetxeatarrak... ez zea zu?

- Bai, bai, bai.

- Ba Goikoetxeatarrak nik beti hor ezautu dittut.

- Bakarra hori zeuan? Denda hori bakarrik?

- Denda hori bakarriken? Azpillikuetan gero-gero ipiñi zebeñ Olianekua. Olianekua besterik ez zauan hamen dendaiken. Garagartzan bestia egon zan.

- Eta tabernak eta?

- Tabernak... tabernak e... Olianekua, Prontoekua, Emeterionekua... Emeterionekua ez dakit geo zabalduetakua edo... ez dakit zan ni txiki denporan Emeterionekua. Lizantzonekua bai. Horrek bai, baiña Emeteriona ez dakat seguru e. Hori gero ipiñittakua izango zala uste det baten batek, edo Valentiñen... Valentiñek ipiñiko zaban? Ez dakit seguru.

- Ta Garagartzan Txikitxonekua?

- E?

- Garagartzan?

- Garagartzan... Mateonekua. Ta... beste tabernarik bazan? Ez zan izengo.

- (Hiztuna 2) Txikitxo.

- Txikitxonekuak? Txikitxoneko tabernia [bihar hamen]!
- (Hiztuna 2) Txikitxonekuak tabernia euki zebe... mojen pare-parian.
- Euki ingo zebe bai...

2.2. Mendaroko Arno auzoko Sahatzu baserrian jaio zen

- **Hizlaria(k):** Garate Gurrutxaga, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Cobos, Jagoba
- **Erref:** MEN-008/001
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Mendaroko Arno auzoko Sahatzuerdikoa baserrian jaio zen, 1923an. Arno auzoaren aldaketa aipatzen du. Aita Sahatzukoa eta ama Etratekoa zituen, bost anai-arreba ziren eta amona ere beraiekin bizi zen.

Transkripzioa

- Noiz jaixo ziñan?
- Ni Sahatzun.
- Noiz?
- Juniuan lauan.
- Ze urtetakua?
- Veintitres.
- Veintitresian?
- Bai.
- Eta Sahatzu nun dago?
- Arnon. Hiru Sahatzu badia eta ni Erdikua.
- Eta asko kanbixau da gerra aurretik eta oiñ?
- Bai, oin diferentetuta dao.
- Onera edo txarrera?
- Onea, onea.
- Herrixa aldatu egin da Mendaro?
- Lehen ez zan herrixa. Motrikukuak gea gu.
- Eta zela kanbixau da herrixa?
- Oin kanbixau debe. Urte mordua.
- Lehen etxiak ez zaudezen?
- Etxiak. Basarrixak lehen edarrak.
- Zelakuak zen bestela? Kalian Azpilluetan...
- Azpillueta igual-iguala dao. Haura ez da kanbixau batere. Etxiak ein dittue berrixak baiña ostian igual-igual.
- Bazauan edifizio haundirikan edo, hotelen bat zu jaixo ziñan sasoian.
- Ez, ez. Santa Kruzkua ta Frontoekua. Horretxek Azpilluetan famauak.
- Eta Garagartzan?
- Garagartzan ba lehengo..., hangua gitxiao daukat goguan, hara gitxiao ibiltzen giñen-eta.
- Esan didazu Sahatzun jaixo ziñala.
- Bai.
- Eta familixa bertakua zan?
- Bai, danak bertakuak Sahatzukuak.

-Aitta?
 -Aitta bertako [...], eta ama Etarteko alaba.
 -Eta bazakazuen ezizenikan?
 -Ez, ez det uste.
 -Eta familixiak ere ez?
 -Ez.
 -Eta zenbat bizi ziñaten etxian?
 -Ba mordua. Amama [...] bost anai-arreba gu.
 -Eta amama ta aittitta batera bizi ziñaten?
 -Bai. Amama euki genduan neu txikixa nintzela. Aittitta ez naban ezautu.
 -Ez?
 -Ez, amama.

3. Ohiturak eta bizimodua

3.1. Ikasitako eskola apurra mojekin

- **Hizlaria(k)**: Larrañaga Garate, Juli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Goikoetxea, Haritz
- **Erref**: MEN-004/004
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:06:30. **Bukatu**: 00:09:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- **Laburpena**: Mendaron irakasle "kastillanoa" zegoenez, Elgoibarrera eramán zuten Maalako mojetara, baina elgorria harrapatu zuen eta oso denbora gutxi egin zuen eskolan. Gerra hasi eta gero, domeketan, meza ondoren, ordubete egiten zuen "madre" Teresarekin eta hantxe ikasi zuen ikasitako apurra. Mendaron zeuden beste eskola batzuk.

Transkripzioa

- Baserri e... baserrixan bizi ziñaztenian, Agarretxikin, askotan bajatzen ziñazten herrira?
 - Askotan.... sobre askotan! zeoze bihar zanian etorri in bihar behera billa.
 - Ta eskolara ta?
 - Eskolara? Makiña bat atzea-aurrea indakua naiz. Hemen zauan maixu bizarzuri bat, kastillanua. Ta alperrikekua zala hareana bialtzia eta Elgoibarrea eaman niñuen. Elgoibarren nakazen taberniakin osaba ta izeko. Neure aitta besotako zan, gaiñea. Ta haraixe. Hara eman niñuen. Maalan zauen... moja batzuk ematen zebeñ eskolia. Ez dakit zortzi aldiz jungo nitzen! Elgorrixa harrapau naban! Han euki niñuen bi merikuk atendiuez, Don Tomasek eta Don Josek. Ta han pixkat gogortu nitzenien etxea. Etxea etorri ta Don Endrikek atzea-aurrea mordue ein ziazan basarrira. Don Endrike medikuek e... Hantxe amaittu zan nere eskolioi. Lehelengotik ezjakiñien eaman niñuen ta gehixo ez niñuen jakiñien´e eaman... ta akabo! Hurrengo gerratia etorri zan ta danien primie eozar gauzatarako primie eskatzen zebeñ ta nik jakin ez primatzen. Mezetaa etorri, zazpietako mezetaa, ta... mojetaa. Dominikala-edo esaten ziuén, "madre" Teresak ematen zeban ordubeteko eskolia. Haretzek erakutsi. Gabian oherakuan, kandelía ixiotu ta bentanan eitten naban... manuskrito zahar bat bazan ta handiken. Eaman nion eskribiuta zeori ta "oooo" madre Teresa horrek eta. Gordeta naukan ganbaran maletan ta ez dakit zeifiek... desapareziu zan.

Handik desapareziu in zitzatan behintzat. Hurrengo maletiorren billa kalea etorteko hasi giñenien ez zauan nere zeoi. Desapareziu zan. Hauraxe zan nere eskolia. Hantxe ikasi naban ikasittako dana; primatzen eo... "sumar"-a ikasi naban ta... [...]... artian ezer ez.

- Ta ze, goiz ta atsalde egoten ziñazien eskolan?

- Goiz ta atsalde? Goizeko meza onduan ordubete, jaixen. Mezetaa etorri ta meza onduen. Meza onduen ordubete.

- Horixe bakarrik?

- Horixe bakarrik. Hoixe izen zan nere eskolia.

- Ta Mendaron ze beste eskola zauden? Osea monjena... eta gero bazauan publikua edo?

- Bai, hemen zeuan bat, maixu bat, publiko... eskola zea ematen zabana. Ta Garagartzan'e egongo zan besten bat eo. Ez naiz ni akordatzen Garagartzakuakin. Eongo zan Garagartzan'e... maixua.

3.2. Ogi zuriaren gosez

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Garate, Juli
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Goikoetxea, Haritz
- **Erref:** MEN-004/010
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:18:30. **Bukatu:** 00:20:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
 - Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Behin, Intxaustiko andreak estraperloko ogi bat eman zion. Asto-otarrean sartu zuen; baina enkargu bat egitera joan, eta ogi erdia falta zitzaiola konturatu zen. Lapurtu zuenak bera izan zela aitortu zion handik denbora batera.

Transkripzioa

- Alaba: ... estraperluan ibiltzen pixka bat ala?

- Estraperluan zerekin? harekin ogixakin ala?!

- Alaba: Ez, baiña garixakin o...

- Estraperluan ibiltzeko haura baiño hobia nahi leuke! Beste bat esango dizuet. Beai... honezkero enterauta igual dao, lehenor' esan itten det nik eta! Eman ziun Intxaustiko andriak hor... estraperlorako eukitzen zaban ogixa zurixa harek. Sartu dit bat galtzarpera ixiliken. Asto-otarran sartu det hor ta... Lehen sastrerixia zaharra hamen behien zan. Zu ez zea akordauko.

- Alaba: Juantxun-ta etxian...

- Ez.

-Hortxe behien. Ta sastrerixara zeozetara juteko, laga naban han Arranbideko pasuan ta atzea jun naiz ta... ogi erdi bakarrik astuen! Haura zan penia! Neu ogi erdixorrekin, baiña... erdixe han laga zien. Gero, Anton Bakero, ezautzen dozu? Deban bizi dana. Karmen ta Ospasko Joxepan anaia.

- Alaba: Txikiko Joxepa.

- Zein?

- Ospastxikiko Joxepa.

- A! Bai, bai, bai.

- Alaba: Luisen ama.

- Bai.

- Alaba: Haren anaixa.

- Anaixa ez.

- Haren anaia, Antonio, Deban bizi dana. Haura mutil koskorra hor ibiltzen zan gora ta behera ta... Esan nion baten: "Etorriko al haiz gurea?", "Bai". Laste in gendun tratuoi ta etorri zan nerekin. Ta gero ekitzen zion ez dakit ze... ama Elgoibarrea jun ta ez dakit ze jandakua, gazta osua jan ziona, ez dakit ze inddakua ta... "Hiri astotik harrapauta ogixa janda [...] ni!", "Hi izan hitzan?" ta "Bai, Joxe Agustin ta bixok". Pekatuoi zelan.. denporalian nere ogi erdixan berrixori dana enterau nitzan.

- Bueno, behintzat erdixa laga zebe, ezta?

- Alaba: Esaktamente.

- Bai, bai. Nahikua in zebe e... ume harek eitteko. Ta eurek [esaten] zebe orduan gosia. Ogi gosiak.

- Klaro, bai.

- Alaba: Eta gero eurak baserrixan... Haura Agarrera jun zan gero. Morroi egon zan Agarren haura gero.

- Bai.

- Gero Agarren geratu zan haura eurokin.

- Orduan kontau jaonan ba, gero, hara etorri ta gero, ze in zebe.

3.3. Gaez ezkutuan Larruskaingo errotara

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Garate, Juli
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Goikoetxea, Haritz
- **Erref:** MEN-004/011
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:20:50. **Bukatu:** 00:23:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Gerraostean, errotak itxita egon ziren; eta zabalik zeuden apurrak, ondo zainduta. Atxoinzabalera (Bizkaia partera) joaten ziren garia eta artoarekin estraperloan. Gaez ezkutuan ere joaten ziren Larruskaingo errotara. Behin, auzoko batzuek Guardia Zibilekin topo egin zuten; baina errotariak erosita zeuzkan Guardia Zibilak, eta ez zen ezer gertatu.

Transkripzioa

- Alaba: Bizkai aldera ze eramaten zenduen ba? Atxoinzabalea-ta zer eramaten zenduen ba?

- Atxoinzabalea? Artua edo garixa edo... zauana!

- Alaba: Ezkutuan?

- Hemen ez bazauan libre Bizkaixan libre eoten zan. Ta hara... handiken ganbixatzen genduan. Ta eurak'e hemen, hangua itxitta zauanian, hemen guretikan... ta hola ibiltten giñan.

- Alaba: Ta zela eamaten zendun baiña... hartu astua ta zela jutun ziñan? Gabian o zela jutun ziñan?

- Gabian'e bai errotara, Larruskaiña. Atxoinzabalea, ez. Olaberrira jutun giñanien, orduen, gabien. Ta neri ez zitzatan tokau egundo, baiña nere auzokuei tokau [zitzakuen]... badixez bi edo hiru lagun ta illunien... ta ja

dittue astuak zeoze ta... guardia zibillak, bizikletan datozela. Baiña hango taberna o zea... errotari horrek erositta eukitzen zittun itxuria ta akabo! Bertan behera pasau ei zan, ezer pasau ez balitz bezela.

- Emongo zetsen zeoze igual trukian ta...

- Bai, emanda eukiko zittun harek. Bestela... jo!

- Eurak ere gosia edo... bihako zebe [...].

- Bai, eurak ere... nahi zeoze! Ta eskerrak hari bestela emango ziuena edarra! Baiña ez ikusi papela... Jaiki ezindda zabizen bittartian bestiak aurea segittu ei zebe ta hala.

- Gosia... gerra aurretik ere gosia egoten zan?

- Aurretikan?

- Gerra garaixan, bai? Gosia ta...

- Aurretikan... ez, ez, ez.

- Osea gerria izan zan pixkat...

- Gerria, gerria etorri zanian... in zian kontuak zian horrek. Gerriak izorra zittuan baztarrak.

- Eske gerra denporan errotak itxi zittuen, ez?

- E?

- Errotak itxitta ez zian egon?

- Errotak ´e itxi asko! Ta zabalik zaurenak e...

- Alaba: Kontrolauta.

- Kontrolauta ondo.

3.4. Mendaroko eskolan ibili zen 7 urtera arte

- **Hizlaria(k):** Garate Gurrutxaga, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Cobos, Jagoba
- **Erref:** MEN-008/004
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:04:35. **Bukatu:** 00:07:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Umetan, eskolara, Mendarora joan zen baina etxeko lanek ez zioten uzten beti joaten. Zazpi urterekin jaunartzea egin eta eskola utzi zuen. Igande goizetan monjetara joaten zen eskolaz kanpo ikastera.

Transkripzioa

-Eta umetan eskolara nora juten ziñan?

-Mendarora Azpilikueta. Zortzixan behiñ, hamabostian. "Ba, oin ganauak zainttu bihar dia ta ez dao juteik eskolara". Etxian.

-Zenbat urte arte jun ziñan?

-Ba ez dakitt, gerria etorri zaniene gero hamabostian behin jutioi, gero eskolaik be geratu giñen. Akabo gero gehixo. Gero mojak jai goizian ordubete bat ematen zeela ta mojetara apur bat haraixe juten ibili ta haintxe primia ematen haintxe ikesi. Jaixan, e, astian pentsau ere ez.

-Eta hasi, zenbat urtekin hasi ziñan?

-Ez dakit ba nik. Zazpi urtekin in naban komuniua. [Amamai] buruz ikesi kantuan ta errezatzen ta komuniua, ta zazpi urtekin komuniua. Ta erretratua atarata hortxe daukat.

-Eta eskola zazpi urtekin baiño lehen.

-Ez, zazpi urtekin etxian ikessita daola ta komuniua eraiñ ta kitto. Ta gero eskolara ez zauen jun biharrik. Komuniua ein zabala ta bazakixala ta. Primatzen ez nakixen. Ta gero hori gerria amaittu ta monjak Madre Isabel ta haretzek jai gozian atrasauei. Ordubete bat eitten gendun ta hantxe ikessittakua besteik ez dakat. Justu-justuan primau bakarrik. Kontuak atara ta buruz.

-Eta maixu-maestrak zeintzuk ziazen, monjak?

-Ez dakit nik. Ez, Azpilikueta maixu bat, ez dakit zela zan izena egon zana...

-Kanpotarra zan edo?

-Bai, kanpokua, kastillanua.

-Eta nolakuak zian, gogorak zian?

-Atzaparretan blastiua ta bihako zuzen.

-Eta libururen bat edo bazakazuen, kuadernon bat edo?

-Pizarria izeten zan, letrak ein ta borrau. Paperian eskribitzeko ez genkixan ta.

-Orduan ez zauan monjetakua Mendaron edo?

-Bai, monjetakua hasitta, gerra aurretik zauan monjak ematen eskolia. Nere edarekuak monjetan eskola asko ikessita dia Mendaron. Bai, Garagartza partekuak eta bai. Guk Azpilikueta gendukan Mutrikukuaa zalako debalde, ta Garagartzara jun bihar bazan pagau in bihar zan. Ez zauan diruik. Ta gero akabo.

-Ta zer egiten zenun, goizian eskolara jun ta atsaldian lanera?

-Ez, kalia bokadillua, bazkaixa eiñ, Artetaiño ezin jun ba ordubete bidian etxera, kalia egon ta gero atsaldian zertu ta atsaldian etxea; juten giñenien.

3.5. Muxu ematera ezkutura joan behar

- **Hizlaria(k):** Garate Gurrutxaga, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Cobos, Jagoba
- **Erref:** MEN-008/007
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:11:22. **Bukatu:** 00:13:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
 - Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
 - Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena:** 16 urterekin ezagutu zuen senargaia, dantza lotuan aritzen zen berarekin eta muxu ematera ere ezkutura joan behar izaten zuten. Neskak mutilengana joatea gaizki ikusia zegoen.

Transkripzioa

- Noiz euki zendun lelengo nobixua? Zenbat urtekin?
- Ba, hamasei urtekin o.
- Hamasei urtekin?
- Bai.
- Ta ezautu ta berehala ezkondu?
- Ba, ez, berehala ez. Denporia... hemeretzi urte ixa ezkontzeako.
- A...
- Bai, denporia.
- Hiru urte?

- Bai, ez giñen derrepentian engaiñau.
 - Eta ze itten zenun? Paseatzea jun o?
 - Ba, dantzan [...] ein, etxera bide sailla... ordu erdi pasa o zauan e...
 Artetatikan Arnobatea.
 - Eta orduan ixkutuan muxuen bat eman [...] laztanen bat...
 - Bai, ezkutuan... bistan, ez. Bistan ezta pentsau ere.
 - Ixkutuan zeoze bai?
 - Ezkutuan. Ezkutuan ein biha dia gauzak, ez bistan.
 - Eta orduen ze eitten zeбен leleno mutila etortzen zan neskiana o neskia...
 - Ba... ez, mutilla bea etorri bihar. Neskaik ez zeukan juteik mutilleta!
 - Ez?
 - Ezta pentsau ere! Mutilleta juten bazan neskia, haura neska gangarra zan... mutilleta zixen neska haura. Hari burla eitten zioen! Hala juten zanai! Hoixe!
 - Eta, eta mutillak zer zian orduan...
 - Ba, oingotxe modokuak...
 - Bai?
 - Lehengo mutillak ere!
 - Ez zian matxista...
 - Ez, ez... oingotxe modokuak lehengo mutillak'e! Horrek igualtsu!
 - Eta aldia zeuan ezta neska eta mutillen artian taberna sartzeko orduan eta...
 - Bai, ez zeuan diruik eta ezin jun! Bestela jungo giñan trabenaa ta danea!
 - Baiña orduan sasoi hartan...
 - Ez zauan diruik! Ezta txikitaikan'e ez gendun sekula ibili!
 - Ta...
 - Kalea jun bihar bazan... Trinitade batzutan Elgoibarrea juteko merixendatako o zeoze hartzeko amak, amak e... jiraute eman diru pixkat eta haurexe. Baiña urte baten Trinitadetan hirugarren izen ta, bertan bea nobixuek pagau zien, gaiñea, merixendiori... ta pozikan! Haura gauza haundixa zan!
 - Eta... eta.... mutillak tabernetan gehixo ibiltzen zian ezta?
 - Bai, ez zauken diruik eta ezin ibili! Ez zauan diruik! Ointxe esaten dana, ba, ez zauan diruik eta ezin ibili. Bestela bai pozik mutillak harek lehen ere, baiña... ez zauan.

3.6. Arropa berriak Aste Santurako gordetzen zituzten

- **Hizlaria(k):** Garate Gurrutxaga, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Cobos, Jagoba
- **Erref:** MEN-008/014
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:20:14. **Bukatu:** 00:21:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
 Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena:** Astean zehar arropa zaharrekin ibiltzen ziren eta Aste Santurako gordetzen zituzten arropa berriak. Orduko janzkera deskribatzen du.

Transkripzioa

- Eta... eta zela jazten ziñaten umetan? Erropia igandetakua diferentia...

- Bai, bai... ama guria kuriosia zan ta soñeko polittak eitten ziazan neri.
 - Astian zihar erropa...
 - Astian, ba, betiko erropa zaharraitxua. Ta mutillen erropekin ibiltzen nitzan ni basarrixan.
 - Bai?
 - Txaketa ta... bai, ba, zaharrauenak.
 - Ta noiz estrenatzen zenun erropa berrixa?
 - Ba, berrixa, ba, udaberrixan eo. Aste Santuan... portzesiorako (prozesiorako).
 - Prozesiorako?
 - Bai, berrixa orduaintxe enjeneral.
 - Ta jostunak ta bazaudezen?
 - Bai, lehen jostun asko zan. Paula ta Paulaneko Angelita ta... gure aizta ta hantxe... komuniua're gure aitzak preparau ta komuniua ta danak ein ziazan... erretatua zazpi urtekin.
 - Eta umia... mutilak e...txapela ibiltzen zebe umetan?
 - Bai, danak... txapela mutil koxkorrak!
 - Zure aittak ibiltzen zebe txapela?
 - Bai, beti.
 - Anai-arrebak ere?
 - Bai, danak.
 - Eta oiñetakuak? Zapatak? Zaindu in bihar...
 - E... abarkak. Ni nitzeneako gomazko abarkak, ederrak. Eta aurrero, berriz, beste abarka mehiak. Harek eskasak ei zian... Esaten zebe.

3.7. Arropak garbitzera putzura

- **Hizlaria(k)**: Garate Gurrutxaga, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Cobos, Jagoba
- **Erref**: MEN-008/015
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:21:26. **Bukatu**: 00:23:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak
 Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena**: Arropak putzuan garbitzen zituzten, "txinbo" eta "lagarto" xaboiak erabiltzen zituzten. Orrazkeren inguruan hitz egiten du. Hondartzara ez ziren joaten baina urte osoan azal beltzarana izaten zuten soroko lanetan ibiltzeagatik. Zorrien aipamena egiten du.

Transkripzioa

- Garbitzeko erropia... zelan eitten zenuten?
 - Bai, potzuan zertuta... jabonduta. Geo, aklarau ta al dan moduan.
 - Ze jaboikin eitten zenuten?
 - "Txinbua", jaboia.
 - "Txinbua"?
 - Bai... "txinbo" edo "lagarto". Horrek bixetako bat.
 - Eta zure amak eta moiñua aukiko zebe?
 - Bai, moiñua edar askua. Moiñu bel-bel-beltza edarra gure amak.
 - Ta zuk umetan illia zela aukitzen zenun?
 - Beltxa.
 - Motxa, luzia?

- Motxa, beti nik.
 - Bai?
 - Bai.
 - Eta amak eta amamak ille luzia?
 - Ille luzia, edarra harek. Bixak moño edarrakin.
 - Oin eguzkixa hartzeko ohitturia dao... orduan...
 - Ba, orduan e... souan hartu bihar izeten gendun han kanpuan beti. Beltz-beltz inda... euzkixa dana erreta udan...
 - Hondartza juten ziñan? Plaia...
 - Ezta pentsau ere!
 - Ezta denboraik ere...
 - Ezta... ez zeuen astik hara juteko. Bueno... lana in biha zan ta...
 - Zorrixak bazauezen umetan?
 - Bai, ni zorritsua izen nitzen. Hamalau urte arte ze zorri! Ta amamak burua orrazten zien e... zorrixa... ta zorrixak eukitzen zabana sanua izeten ei zan ta zorririk ez zakana makala! Pertsona makala.
 - Eta zelan kentzen zizun?
 - Orratzi estu-estu batekin.
 - Ta beste ezerrekin... orratz(i) batekin banan-banan...?
 - Bai, bai... ta oso... hamalau bat urte arte oso zorritsua! Ene... ille beltza ta partza urtetzen jonan... esaten jonen... ene haura zurixa ta ille beltzian dana bistan. Eta holaxe... baiña hori... zorrixa eitten zakonak sanua zala ta zorririk ez zakana hare makala.

3.8. Otorduetako jakiak

- **Hizlaria(k):** Garate Gurrutxaga, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Cobos, Jagoba
- **Erref:** MEN-008/016
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:23:05. **Bukatu:** 00:25:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
 Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
 Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena:** Igandeetan, haragiz lagundutako garbantzuak izaten ziren jaki preziatuena eta, astean zehar baba jaten zuten gehienean. Urtebetetze eguna ospakizunik gabe pasatzen zuten. Gabonetan amonak intxaur-saltsa egiten zuen. Amona astean hirutan joaten zen Mutrikura astoa hartuta arraina erostera eta, ama, berriz, goizeko bostetarako Elgoibarrera, argia izan zezaten petrolio bila.

Transkripzioa

- Jatekua, amama e...
 - Ene... Baba gorri ederra, ta azia ta...
 - Egun normal baten...
 - Ba, jaixan, ba, garbantzua kaleko okeliakin. Hori jaiero e... tomatiakin aparte... jaixan. Baiña astian, ba, tokatzen moduan babia ta gora ta behera... ta gauza bati beti gustora.
 - Laster zure eguna da, datorren astian. Zuk zure eguna zelebratzen zenun etxian?
 - Ezta pentsau ere! Ixilik pasau, gaiñea!
 - Bai?

- Bai. Umien euna plazan ta itten gendunian... umien euna... kafia ateatzeko harei ta amana ta aittana ixilik. Ta aitta, berriz, Andramaix egunekua zan, egun grandekua, ta haura zelebrou eitten zan. Baiña gu bestiok ixilik, tapatzen... geure eguna. Ezta pentsau ere!

- Bai? Orduan ez zenuten jaten ezer espeziala bertan egunian?

- Ezta pentsau ere! Ezta pentsau ere! Oin eitten dittue oin zahartutakuan.

- Gabonetan zer jaten zenuten?

- E?

- Gabonetan?

- Ai... turroia etxian inda amamak intxaur-saltsiak. Haura bai turroia! [...]

- Jatekua ez zenuten erosten ez? Etxekua...

- Itxekua ta bai, kaletik'e zeoze ekartzen gendun, baiña gitxi... Itxian hartutakua gehixena.

- Arraiña jaten zenuten?

- Bai, gure ama astian hirutan Mutrikura astuakin juten zan plaza. Ta handikan beti arraiña ekartzen zaban... txitxarrua eo hola zeian... ta beti... astian pare bat aldiz zea... jaten gendun arraiña.

- Ta ferixeta zuek jun eitten ziñaten?

- Bai, bihako jun Elgoibarrea argixa ekartzeko. Petroleo argixa... argi eitteko... petroleota zortzixan-zortzixan Elgoibarrea.

- Ta zuek berduria eramaten zenuten saltzeko.

- Bai, astuakin juten giñen Elgoibarrea ta honuzkuan jenerua. Hori zortzixan. Elgoibarrea petroliota. Baiña Mutrikura astian hirutan juten zan gure ama. Goizian bostetan jaiki ta zazpiterdietako Mutrikuko plazan eon bihar jenerua salduko bazan!

3.9. Mezak, aitortzak eta prozesioak

- **Hizlaria(k)**: Garate Gurrutxaga, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Cobos, Jagoba
- **Erref**: MEN-008/020
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:26:25. **Bukatu**: 00:28:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena**: Elizara igandero joaten ziren, derrigorrezkoa zen orduan. Apaiza aipatzen du. Hilean behin aitortzera joaten ziren eta bedeinkazioak egiten zituzten, ogiarena esaterako. Aste Santuan prozesiora joaten ziren dotore jantzita. Meza erdaraz eta latinez izaten zen.

Transkripzioa

- Eta orduan jendia oso fededuna zan?

- Bai, biheko. Elizaa... bueno...

- Domekero juaten ziñaten?

- Biheko. Jaiero!

- Derrigortuta edo?

- Bai, derrigorra bezela... obligaziua. Haura derrior ein bihar zan.

- Bataiua ta... eitten zenuten ere.

- Bai, bataiua ta danak. Horrek prepezioz. Bai.

- Eta apaizak, ordunguak, zeintzuk zian? Bertakuren batzuk, Mendaroko...

- Bai, Mendarokuak... Don Endrike Txokolaterokua. Harexe euki genduan urte askuan. Ba, bea hil arte.

- Ta konfesatzea juten ziñaten?

- Bihako.

- Noiz?

- Ba, hilian behin eo bi hilebetetik o... ta gogor hartu, gaiñea, eitten zaban!

- Eta itten zenuten ogixa bedekau? Urte osuan armaixuan gorde... ez lizuntzeko? Ta bestelako egunetako ogixa lizundu. Eta Gabon-gabeko hau... o koskorra gordetzen gendun... hurrengo Gabonetan txakurrai, egosi ta txakurra gaixotu ez dain bedekautako ogi koskorra. Hartako gordetzen gendun urte guztian haura.

- Eta Aste Santuan, berriz, prozesioetan ibiltzen ziñan?

- Bihako.

- Nun egoten zan prozesiua?

- Azpilikuetan, gu. Han ibiltzen giñan ta.

- Bai? Kandelak eskuen eramanda edo zelan...

- Ez, kandelaik ez det uste. Bestela, dotore jantzitta bueno...

- Eta sorgiñen kontuak eta entzun dezu sekula hemen inguruan?

- Ez, hemen inguruan sorgin kontuak ez det... esaten zebe baziala ta hau ta hori, baiña ez...

- Eta amaman garaixan edo ez...

- Ez, ez, ez,... amamak "ez" esaten zaban.

- Eta mezetan zauzenian ze abesti kantaten zenun?

- Elizan ontxe antzea kantatzen dana. Ez dakit nik. Nik ez naban kaso haundik eitten.

- Euskeraz, ez?

- Bai, ba... euskeraz o... ez, erderaz ematen zebe mezia ta! Ez genduan ondo entenditzen! Entzun gendula zeoze ta!

- Ta latinez [...] ikasteko...

- Bai, ba, hori ingo zebe eo... ez dakit zelan eitten zebe!

3.10. Etxabe baserrian gurina egiten zuten

- **Hizlaria(k)**: Olazabal Garate, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goikoetxea, Haritz - Otegi, Aitziber
- **Erref**: MEN-011/024
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:35:48. **Bukatu**: 00:36:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena**: Etxabe baserrian gurina egiten zuten. Orduan gurina erosten zuten olioaren orde. Gurina nola egiten zuten azaltzen du.

Transkripzioa

- Hamen Etxaben-ta mantekillia itten zebe, basarrixan. Mantekillia erosten zan olixuan orde. Geuk'e bai, nere amak-eta mantekillia erosten zebe. Ta ein eitten zebe. Nik goguan jakanat amak mantekillia... Nik ez jakiñat, neska! Lengo esniak oin baiño hobiauak hittunan. Hari grasa kentzen ziu, gaiñeko zea,...

- (Hiztuna 2) Nata.

- Nata esaten dana.

- Nata eta harekin...

- Ta harekin. Ta hartzen gendun hola ontzitxo baten eta "kli, kli, kli, kli..." hola jardun, jardun, jardun, jardun ta pelotita itten zan. Pelotita. Ta mantekillia itten zan. Ez dakit nik zela mantekillia itten zebe. Ta hor basarrixan mantekilla, Etxabekuak mantekillia saltzen jonen."Sí". Gerra... gerra denporan o ondorenian-ta... zeozer! Hori Ermuko urdeixan estilua dek!

3.11. Arrain asko jaten zuten

- **Hizlaria(k):** Olazabal Garate, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goikoetxea, Haritz - Otegi, Aitziber
- **Erref:** MEN-011/026
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:38:53. **Bukatu:** 00:41:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Eguneroko otorduetan zer jaten zuten azaltzen du. Baba gorria jatea zen ohikoa, garbantzua jai egunerako. Lapikokoa platerera aterata jaten zuten, baina gainera normalean erditik. Hala ere, elkar errespetatzen zuten. Arraina ugari jaten zuten.

Transkripzioa

- Eguneroko otorduetan ze jaten zenden?
- Ba, jan... sano.
- (Hiztuna 2) Sano baiña zer, ama?
- Baba gorrixa asko. Nik esaten diñat... Ni jun nitzonan, gaztia nitzala, horra Kapaiñea -hiru urte in nittuan-, haura ume haura zaintzea. Baiña len baba gorrixak... Gurian anaia... Oin ere bizi den. Oin ez dio ingo hola, baiña orduan... Jaixan'e baba gorrixa. Egunero baba gorrixa ta jaixan. Ta garbantzua ipiñi, ba, jaixan, ta hasarre mutilla! Baba gorrixa bihar.
- Garbantzuk, gaiñea, ya lujo handie izango zan, ez?
- Hori inportantia hunan. Domekia.
- (Hiztuna 2) Ama, ta zuk esaten dezu, ba, arrautzia igual eta aittittantzat ez bazauan...
- E?
- (Hiztuna 2) Arrautzia baldin bazauan...
- (Hiztuna 3) Danontzat ez zaula. Ez zala egoten, ez? Arrautzia ta horrela...
- Len aitta zer baten hobetuau gobernatzen zonan oin baiño.
- Ze jaten zenuen, danak erditik? Ala bakoitzak bere platera zeuken?
- Platerian. Eta gaiñekua erdittik engeneral! Bai.
- Azkarrena maitzen zanak...
- Hi... errespetau itten zonan, e! hori gauzia...
- Bai?
- "Sí". Ez zonan "dza, dza, dza". Nik ez jakiñat zeaittiokan...
- (Hiztuna 3) Edukaziya.
- (Hiztuna 2) Danok jan bihar zenduelako!
- Bai, bai, bai, bai, bai. Kozidua platerea ateatzen gendun, kozidua. Ta geo, gaiñekua, ezta, esaten detena... ba, segun zer zan. Ta erdittikan. Baiña ni... baiña zer zuan haura bata bestiai haura... hola kurioso zertzia. Bai. Eta ni egon nitzan hantxe...
- Arraiñik-eta jaten zenuen?
- Puuu... Hauraxe gehixen!

- Gehien? bai?

- Nere anaia Anizeto ezautu zuan?

- (Hiztuna 2) Bai... granjakua... Joseban...

- Granjan bizi zana? Anizeto.

- Bai, bai, bai.

- Ta... azkenko berbak'e betikua, betikua hoixe: "Badakin ze pasauko jakun guri? Bajau gaittun arraiñian. Ta len okelia [erunan], okelia len, okelia... ta oin arraiñian bajau gaittun".

- (Hiztuna 2) Klaro, len umetan arrain asko ta okela gutxi.

- Bueno, bueno, bueno... ze arrain! Goizian arraiña erosi, eguardixan'e arrainduna jatonan. Ta benga, beti arraiña erosten! Ta gabian arraiña.

3.12. Ermuko "sustanziero sustanziero"

- **Hizlaria(k)**: Olazabal Garate, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goikoetxea, Haritz - Otegi, Aitziber
- **Erref**: MEN-011/028
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:42:18. **Bukatu**: 00:43:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena**: Ermuko gizon bat etxerik etxe aritzen zen urdai zati batekin "sustanziero sustanziero" esaten, sartu-irtenak egiten.

Transkripzioa

- A ta len ez juau /etxuau/ amaittu hori... polittena, hi! Ni mantekilliakin hor gerau nok... ta gerra denporakua. Ta zer dek eta Ermun zauan bat, gizon bat, ezautu genduan guk haura ta: "sustanziero, sustanziero!... sustanziero, sustanziero!". Ta eguardixan, eguardixan... ur litrokotia hartzen ei juan -ez dakit nun katiata- ta etxeik etxe. Jo atia ta "sustanziero, sustanziero". Sartu-urten bat eman urdaixakin eta beste etxe batea.

- Hori entzunda neon ni...

- Entzunda hao?

- Bai, bai, bai.

- Hori egixa ei den, e! Hori egixa dek, hi! Bai, guri hala...

- Ta ordun hue ona izango zan...

- Jolin! sustanzia pixkat, neska! Zek eman bestela!

- Ematen ez bazun'e xinixtu behintzat!

- Emango jonan! Trokote edarren bat izango zonan haura, neska! Halaxe ibiltzen zala, etxeik etxe!

3.13. Esnea lortzeko moduak

- **Hizlaria(k)**: Olazabal Garate, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goikoetxea, Haritz - Otegi, Aitziber
- **Erref**: MEN-011/029
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:43:25. **Bukatu**: 00:44:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Baserrria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena:** Kanean bizi zirenez, esnea erosi egin behar izaten zuten. Baserritarrek kalera etortzen ziren saltzera, baina batzuetan beraiek joaten ziren, baserriko emakumea ama izan berritan, adibidez. 15-16 urterekin Gurelan-en hasi zen lanean eta zortzietan lantegira sartu aurretik joaten zen esne bila.

Transkripzioa

- Eta esnea...
- Bai, basarrixan... Bai, guk...
- Basarrin eukitzen zenuen?
- Bai.
- Behiek bazeuzkezuen?
- Ez, ez, guk ez, gu kalekuak giñan!
- Zuek esnea kaletik erosten zenuen?
- Bai, bai, bezeruak giñan. Gabixola ezautu huan? Gabixolakua ta Txikitxonekua ta... amak esne asko erosten zeban.
- Eta ze etortzen zan esne-saltzailea etxea ala zuek...?
- Norbea jun. Ta baitta etorri´e bai, izen zian, etorri´e bai. Baiña norbea... Igual, Gabixolako ama, zera, familixia [izanda]: "Ai... ekarrizu esnia. Bai, andra koittau haura, harek umia hazteko ta lan asko jakan ta". Jun ta "ze kostatzen jatzue ba zueri...". Gero teillarra etorri nitzan ni Kapaiñetikan. Hamabost-hamasei urte, hamabost, zerera, hori... Jesus, Maria eta Jose... Gurelanea. Gurelanea etorri nitzan. Ta orduantxe gustora ni. Jolee! Haura poza!
- (hiztuna 2) Eta zuek juten ziñaten esne bila, amak bialduta...
- Jolee!
- (hiztuna 2) ... han umia [izanda]...
- Klaro! Zortziretako jun bihar gendunan teillarra ta andra koittau haura, bestela...
- (hiztuna 2) Bestela eurak etortzen zian.
- Bai, ba! Ta amai errukixa, ama izen gure ama´re ta... ume txikixakin zer?

3.14. Xaboia eta lixiba arropentzat; hondarra eta argizaria zorurako

- **Hizlaria(k):** Olazabal Garate, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goikoetxea, Haritz - Otegi, Aitziber
- **Erref:** MEN-011/031
- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 00:47:23. **Bukatu:** 00:51:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- **Laburpena:** Arropei xaboia eman ondoren sikatzen uzten zen hurrengo egunean zikina kentzeko eta astindu ostean eguzkitan jartzeko. Xaboia eta lixiba zerekin eta nola egiten zuten azaltzen du. Etxeko zorua mendiko hondarrarekin eta argizariarekin garbitzen zuten, hondarra erosi egiten zuten. Zorua nola garbitzen zuten azaltzen du. Erreka inguruko belar batzuk ere erabiltzen zituen Felisaren amak erratz moduan, usain gozoa uzten zuten belar horiek.

Transkripzioa

- Pentsain... Ta jaboia eman ta... Gero jaboia ematen zan ta gero laga itten zeбен, barreñoian lagatzen zan, hurrengo egunian zikiña soltau itten zakon hari, hurrengo egunian. Beste lauskittu bat eman ta astindu ta euzkittaa.
- Jaboia etxen itten zenuen?
- Ein zeuen Kapaiñen, ein zeuen. Ein zeбен. Nik etxian hori... baiña ein zeuen.
- Eta zekin itten zan?
- Sebua eta gero...
- (Hiztuna 2) "Sosa caústica" edo?
- "Sí".
- Sutako hautse ibiltzen zenuen?
- E... sutako hautsa zonan... hori ez najonan nik... lixibarako itten jonen hori. Basarrixetan. Zulu bat jonen, hori ezautu najonan nik... Artetan nakan nik amama eta hara juten giñan gaztiak giñala ta ze itten zeuen? Han sutako hautsa bota ta... jakanat goguan... han...
- Zulo baten...
- Zulo baten ipintzen zeuela. Ni txikixa izen.
- Hori erropak zuritzeko eo...
- Bai, bai, bai, izarak eta. "Sí", zuritzeko, "sí".
- Eta, bestela, etxeko zoruk-eta nola garbitzen zittuzuen?
- Bueno, leña ta hondarra zan.
- Hondarra?
- Bai, "arena". "Sí". Ba hori hantxe mendixan atatzten zan. Junda gaonaz, ba, gu hartaa be, ba! Hortxe mendixan... harrixa da... harrixa bezela hondarra. Ez dek ezautu? Oin'e han eongo dittuk harek... paretak!
- (Hiztuna 2) Baiña nun? Nun, ama?
- Hortxe mendixan. Junda nao. Erosi itten gendun, ezta?
- Erosi itten zenuen?
- Bai. Ta `Kankananequak´ ezautu zittuan? `Kankananequak´ ezautu hittuan? Begoña ta...
- Bueno, entzunda... A, bai, bai, bai, badakit zein dan. Badakit zein dan. Bai, bai.
- Bai. Harek saldu itten juen hondarra.
- Eta harekin nola garbitzen zenuen? Ze itten zenuen?
- Estropajua hartu ta bota ta kitto! Gero jaboia untau ta... ja-ta "dale que te dale". Zuri-zuri ipiñi.
- Zoruk egurrezko izaten zien?
- Bai.
- Bai?
- Len ez zonan zintasolik. Zintasola izan bazonan [...].
- Ta argizarik ibiltzen zenuen?
- Ooo...hori gendun ba... gure amamai "Ala! hartu hanka azpitan trapua ta segi! ez jun oinez hola, eruan trapua hanka azpitan!". Brillua atatzeko.
- Trapukin ateratzen zenuen eta ez zenuen beste zepilloik o eze lotzen hankatan?
- Baita, zepillua bagendun.
- Nolakoa izaten zan?
- Oso... ona. Hola arpoiak beltza-beltza... hola zepillua, ezta? Ta hola arpoia-arpoia ta harekin pasatzen zendun. Argizaixa eman eta ja-ta zaka ta zaka... dantzan, neska, juaten giñan!
- (Hiztuna 2) Hori ni ere akordatzen naiz amamak zela esaten zian: "hi ibiltzerakuan, hola kuertuetan ta, jun bihar den beti traputxo batekin... hanketan ta eskuetan ta... eta pixkat pasaran bada're" [...].
- Aprobetxatuz.

- (Hiztuna 2) Eta neri... ni akordatzan naiz asko, ama, umetan zela juten giñan Lasalde aldea eta etortzen giñan bedar batzugin.

- Mentañña?

- A, bai! Ze usain edar zabaltzen zan harekin!

- (Hiztuna 2) Eta etxia pasatzen zauan. Etxia pasatzen zauan harekin amamak. Eskoba bat itten zauan.

- Bai, bai, eskillara ta dana. Eskillaran'e brillua zan gurian!

- Ze itten zenuen? Erratz modukon bat eo?

- (Hiztuna 2) Bai, bai, bai, bai.

- Bai ta kertena ipiñi ta harekin "ra-ra-ra-ra". Pasau ta harek hauts asko batzen zauan.

- (Hiztuna 2) Ni harekin akordatzan naiz.

- Ta ze zan? Ze...

- (Hiztuna 3) Menta o...

- Bai, "sí".

- (Hiztuna 2) Menta, menta ez zan. Erreka inguruetan ta dao beste bat "como la menta", baiña ez da menta, "Tiene como más" e... ez dakit nola esan "es más verde, más oscuro y... la cap... la hoja es distinta".

- Usein edarra, usein edarra lagatzen zeban harek etxian. Ezautuko zenduen hori zuek, ez?

- Mentañña bai, baiña beste hori ez dakit ze izango dan.

- (Hiztuna 2) Amamak itten zauan beste harekin. Ta mentakin ere bai, baiña menta eukitzen zauan ortuan.

3.15. Mojen komentua eta eskola nazionala

- **Hizlaria(k):** Olazabal Garate, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goikoetxea, Haritz - Otegi, Aitziber
- **Erref:** MEN-011/034
- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 00:53:39. **Bukatu:** 00:57:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Hasieran denak eskola nazionaletan ibili ziren Mendaron. Moja agustindarrek komentuan eskola zabaldu zutenean, han hasi zen Felisa. Eurak izan ziren lehenengoak. Gero, neskak mojetan eta mutilak nazionaletan. Inguruko herrietako neskak ere etortzen ziren gerora, ospea hartu zuenean. Euskaraz hitz egiten zuten, baina eskolako lanak erdaraz egin behar. Hala ere, euskaraz aritzeagatik ez zuten zigorrik jasotzen. Gaizki portatuz gero, bai. Moja batzuk aipatzen ditu. Eskolara sartu bezain pronto errezatu egin behar. Goizetan eskola eta arratsaldean esku-lanak (laboreak). Txandaka irakaslearen ondoan jarri eta arrosarioa esan behar izaten zuten.

Transkripzioa

- Eskolan nun ibili ziñen?

- Beittu! Eskolan... honek etxe berriak hor badaoz ba? Hor zan konbentua, konbentua. Hor mojak eskolia ipiñi zebeñ. Ta nazionala zan beste bat. Hor Garzianeko etxia... han. Beste eskola bat zan. Ta danok han gabizen. Ta gero hori eskola hori zabaldu zeuenian mojak, lelenguak izan giñan han sartu giñanak. Gure ama kotxaia. Edukaziua erakusten [...] zeuela.

Edukaziua mojak. Ta zer da ta haraxe. Lelenguak izan giñan.

- Eta neskak monjetaa ta mutillak nazionalian edo...?

- Bai, bai halaxe zan. Ta geo, ba, hasi giñan ta poliki-poliki ta gero, ba, indartu in zan komentua... ta Elgoibartik'e bai, Altzolatik'e bai ta danetik etortzen zian hona Mendaroa. Ta asko erakusten zeuen.

- Monjak... euskaldunak zian?

- Agustinas. Bai, gehixenak hor. Superiora azpeittiarra zan. Zelako apeillidua zakan'e...

- (Hiztuna 2) Danak ez zekixen euskeraz, e!

- Ez, ba, batzuek sartu...

- (Hiztuna 2) Maria Isabel donostiarra zan. Euskalduna bai, baiña...

- Bai, ba, gero. Horrek gero. Baiña lelentotikan, zabaldu zanian, euskaldunak mojak. Bai, gero etorri zittunan horrek.

- Eta euskeraz ikasten zenun?

- Euskeraz itten gendun.

- Bai?

- Erderaz ikasi ez!

- (Hiztuna 2) Ama, baiña erreztatzen...

- Dana euskeraz ikasten zenuen?

- Ez, erderaz ein bihar eskolako lanak. Baiña hizketan euskeraz ta aber zelako nahastia [honan] hor.

- Ez zizuen kastiguik jartzen euskeraz in ezkeo? Ez? Zuen garaian ez zan holakoik?

- Orduan'e kastigatzen gaittunen, e!

- (Hiztuna 2) Baiña euskeraz ittiarren...

- Baiña euskeragatik edo bestela?

- Ez, bestela. Ondo portatzen ez baldin bazan o hola... baiña bestela.... Euskeria... segittu itten gendun euskeraz'e. Bai.

- Ze kastigu izaten zien?

- E?

- Ze kastigu?

- Ze esango diñat, ba, nik... igual e... iñoiz bajakiñe... pareta beira ta. Nik neuk ez najonan... hola suertia izan najonan.

- Zu txintxoia izan ziñen.

- Bai, egixa. Zetako esango dot, ba! Baiña... bai...

- Gogorrak zien monjak?

- Gogorrak? Bihar'e bai! Bat zonan "vizcaína burra" esaten zaban berak.

"Yo seré una vizcaína burra —beak berba hori esaten zaban—, pero os enseñaré". Ta halaxe zan. "Madre" Teresa. Beak esaten jonan harek.

Bizkaikua zan, Bilbokua zan: "seré vizcaína burra pero os enseñó yo".

- E... eskola sartzen ziñetenen...

- Errezau.

- Errezau in behar izaten zenuen.

- Hoixe.

- (Hiztuna 2) Ama, baiña errezau euskeraz ala erderaz?

- Erderaz. Oin'e... Hi! Oin'e erderaz erreztatzen jonat, hi! "¡Qué cosa!".

- Halaxe ikasita.

- Errezo euskeria baiño. Erderaz.

- Ta ze errezo izaten zan?

- Jo, jo...! Beittu... Giñan, ba, mordua ezta, orduan. Goizetikan eskolia izeten zan ta arratsaldian laboria izeten zan. Laboria, eskuetako lana.

- Eskulana.

- Ta gero, txandaka-txandaka egunero bat juten zan maistrarian ondoa, mahai onduan jarri, errosaixua errezau. Errosaixua esan ta bestiak kontestau. Holaxe.

- (Hiztuna 2) Egunero errosaixua?

- Egunero batenbatek. Txandaka e! Txandaka.
- (Hiztuna 3) Hori arratsaldian, baiña...
- Arratsaldian e...
- Berez eskola... goizean juten ziñeten eta laborea atsalden.
- Goizetikan eskolia. Laboria eiñaz... ta gero, errosaixua eta, laboria iñaz, kontestau. Zelako santak!
- Zenbat urte arte izaten zan eskolia?
- Eskolia... pasatzen zan han orduan'e batzuek kanpoa juten zian. Ta bestela, ba, ze esango dizut, ba, nik e... ni Kapaiñetikan horra etortzen nitzan eskolatikan o... horra.
- Eskola.
- Bai, baiña aspertu.

3.16. Josten ikasten

- **Hizlaria(k):** Olazabal Garate, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goikoetxea, Haritz - Otegi, Aitziber
- **Erref:** MEN-011/035
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:57:33. **Bukatu:** 00:58:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Lanbideak » Sastreak, jostunak
- **Laburpena:** Felisari eskola kontuak ikastea baino gehiago josten ikastea gustatzen zitzaion. Nola eta zer josten zuten azaltzen du. Egindakoa beraientzat zen, etxerako.

Transkripzioa

- Aspertu. Nei... eskolako gogua ez nakan. Nik laboria nahi nauan, gustatzen zatan.
- Jostea gustatzen zitzaizun?
- Nei jostia. Beti.
- Ze joste-lan eitten zenuen?
- Ba, laboria. Bordaketan ta, neska!
- Bordaketan?
- (Hiztuna 2) Baiña hori bordau eta bainikak eta holako gauzak. Bestela...
- Bainikak eta festoiak eta...
- Bordaketan nola eitten zenuen? Bazenuen makiñaik o zerbait...
- Ez, bastidoria.
- Bastidorea.
- Bastidorian. Eta batzuek, ba, eitten... puntillak eitten zittuen batzuek, kadenetak... eta gauza asko erakusten zebeñ mojak e!
- Bastidorea nolakoa izaten zan?
- Biribilla. Holakotxia ta gero hartu hamen bittartian ta gora ta beheara, gora ta beheara... bordau.
- Itten zenuen laborea etxeako ala monjei eman behar izaten zitzaien?
- Norbeantzat.
- Norbeantzat?
- Norbeantzat.

3.17. Prakarik ez; "topolinoak" oinetako

- **Hizlaria(k):** Olazabal Garate, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goikoetxea, Haritz - Otegi, Aitziber
- **Erref:** MEN-011/037
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 01:00:03. **Bukatu:** 01:01:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena:** Prakarik ez zuten janzten. "Topolinoak" erabiltzen zituzten oinetako bezala. Nolakoak izaten ziren azaltzen du. Jai egunetan janzten zituzten.

Transkripzioa

- Eta galtzaik ibiltzen al zan?
- Ez. Prakaik ez.
- Pekatu?
- Ez, ez zan usatzen.
- Ez? Ez zeon gaizki ikusita?
- E... ez zan usatzen, ez zan usatzen. Orduan gonia eta galtzerdixak. Kitto. Halaxe.
- Eta zapatak?
- Zapatak´e... polittak! Parre ittia nahi den?
- Ez, baiña ez dakit... zapatak ibiltzen zittuzuen? Abakarkak? Alpargatak?
- Bai ze! "Topolinos"!
- "Topolinos"?
- Oin´e ibiliko dezue zuek topolinuak. Ez diezue esaten. Zer dakazuez "de tacón"?
- (Hiztuna 2) Zapatillak.
- Zapatillak.
- (Hiztuna 3) Aber erakutsi zuk...
- Hik ze dakanaz?
- Nik zapatak.
- (Hiztuna 3) Zapatak, baiña beittu, ama, ze forma... "El topolino sería [el que dice ella]. El topolino es más así, ¿no?"...
- Topolino lisuan. Topolinua zonan takoa. Entenditzen den? Hamen zapatia ez den? Hau zapatia den, hau orpua, ta gero, hamen zorua ta hamen, badakin, bittartia jakan zapatiak. Ta hori berdinduta.
- (Hiztuna 2) "¡A... los estos de ahora!"
- "Ahora también llevan. Sí".
- (Hiztuna 2) Klaro.
- Lengo ze...
- (Hiztuna 2) "Eso... las plataformas!"
- "Sí, sí".
- (Hiztuna 2) Holakuak?
- Holakok?
- Bai, holakuak, hi!
- Astegun ta jai? Ala hoi jaietako bakarrik izaten zan?
- Jaixak, hi! Poli-politta den hori!

3.18. Lisaburdina

- **Hizlaria(k):** Olazabal Garate, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goikoetxea, Haritz - Otegi, Aitziber
- **Erref:** MEN-012/001
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena:** Arropa almidoitu egiten zuten. Burdinazko lisaburdina su gainean, txapa gainean, berotzen zuten. Nola garbitzen zuen amak lisaburdina.

Transkripzioa

- Zekin almidonatzen zan erropa?
- Almidoia, gauza zuri bat. Lisua.
- Ordun'e gaurkoa bezelakoa izaten zan? Bai?
- Bai, almidoia, almidoia. "Sí". Oin... eta halaxe jantzitta... ala! Ta gustoa. Ekartzen najionan diru pixkat amai ta beak nei beste pixkat lagatzen janan ta: "Hara, neska! Ogittarako lain ekartzen dian ta!" esaten zian. Ta gustoa ama.
- Almidonatzea-ta aipau dezu. Plantxaik bazan?
- Amak plantxatzen ziazen e.
- Eta nolako plantxa?
- Ba, plantxa elektrikua izen zan. Ta asko ibiltzen zeban txapa gaiñian... berotzen zittuen plantxak. Ta gero, elektrikua urten zauan, baiña harek lelengotikan burdiñazko... Ez zenduzen ezautu... plantxak?
- Ikusita bai, baiño... baiña ezautu martxan... etxen ez.
- Ez, txapa gaiñian ipintzen zan. Oindio gurian hor daoze behian harek rekuenduak. "Sí, sí".
- (Hiztuna 2) Eta txapan... berotu eta ya esta. Plantxau ta berriz txapara.
- Bai, berotu. Ta papel baten... hola garbitzen zaban hola zikiña bazakan o ez bazakan o zertzeko. Plantxau.

3.19. Udan zapata zuriak; neguan beltzak

- **Hizlaria(k):** Olazabal Garate, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goikoetxea, Haritz - Otegi, Aitziber
- **Erref:** MEN-012/002
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:01:06. **Bukatu:** 00:01:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena:** Feria egunetan Elgoibarrera joaten ziren dantzara. Udan zapata zuriak janzen zituzten eta neguan beltzak, udakoak negurako tindatzen zituzten.

Transkripzioa

- Zapatena... topolinuena esan bihar diñat! Ba, zeian... ferixa egunetan juten giñan zerera —Jaizue e!—, zerera... Elgoibarrea. Ta euzkittan jo-ta keian dantzan. Hamen ipinita daon hori! Jo-ta keian euzkittan. Ta itten zan

udan zapata zurixak ta neguan beltzak. Ta itten zian tintau harek, udakuak negurako.

- A, bai? Joe...

- Pentsau zela aprobetxatzen genduzen guk gauzak!

- Ta atzea udan ze itten zian?

- Bai! Apurtzen zittunan ordurako, ta berrixak ekarri bihar! Hasi dantzan zapata beltzakin ta zurittuta etxea. Euzki epeletan jo-ta keian hantxen dantzan! Oin... ene...

3.20. Etxean egindako bainujantziak

- **Hizlaria(k)**: Olazabal Garate, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goikoetxea, Haritz - Otegi, Aitziber
- **Erref**: MEN-012/012
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 00:16:42. **Bukatu**: 00:18:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena**: Bainujantziak nolakoak ziren aipatzen du. Berak egindakoak erabiltzen zituen. Kamiseta eta gonarekin, Elgoibarko Alkorta fabrikako oihalarekin. Mutilek praka zabalak jantzten zituzten.

Transkripzioa

- Hor plaia aittatu dezu ta nik curiosidadea dauket. Orduko baiñujantzik nolakoak zien?

- Norbeak indakuak'e bai! Nik neuk indakuak ibili najittunan!

- Nolakoa? Osokoa?

- Ba, esango diñat. Ez. Kamisetia, nik ondio goguan jakanat, rosa tintau najonan. Ta gero txori bat in...

- (Hiztuna 2) "¡Como saldría del baño!"

- "Oye"... Hi, txori bat in najonan, hola, teliakin. Ta in festoia bueltan ta bueltan. Ta gero gonia... Len Alkorta telia ezautu zendun zuk? Ez, ezta?

- (Hiztuna 2) Bai!

- Fabrikia, Alkorta... Elgoibarkua? Fabrikia... ez jakixat /etxakixat/ esistitzen dauan.

- Gu oaindio umek gea ta!

- Telia itten jonen. Telia itten jonen han, e, telia. Ta tela tiesua itten zan. Ta gonia zan, ba, tieso-tieso. Norbeak e! Neuk indakua, e! Kanpanan ein, buelo pixkatekin. Rosa ipiñi. Bestia rosa...

- Elegante.

- (Hiztuna 2) "Y el pajarito".

- Neure ustez... dotore!

- Eta mutillek?

- E, ba, mutillek ze esango diñat, ba! Harek praka zabal-zabalak barrenak zittuela. Han ibiltzen zittunan!

- (Hiztuna 3) Trajebaiñuak-eta ez?

- Ze... !

- Hauek ez zien fijauko mutillek nola juten zien ta!

- Fijau eingo giñanan, baiña, neska... holako atenzioik ematen! Ahal zauanak ahal zauana. Badakin ze dan? Ahal zauana. Dirua zekana beti distingiu. Ai... Nere lagun batek hola in ta: "Ezaun-ezaun dirua dakana. Ikusten den?", dotore jantzitta bazauan.

4. Baserria

4.1. Anai-arreba asko; gehienak morroi eta neskame

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Garate, Juli
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Goikoetxea, Haritz
- **Erref:** MEN-004/006
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:11:30. **Bukatu:** 00:14:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Bederatzi anai-arreba ziren. Umetatik lan egin behar izan zuen baserrian eta 32 urtera arte jaiotetxean bizi izan zen. Ganadua eta ardiak zituzten. Etxea Don Antoniorena zen, eurak errentan bizi ziren. Bi ahizpa zaharrenak Don Antoniorenean egon ziren Elgoibarren, bata sukaldari eta bestea zerbitzari. Anaiak ere baserri batetik bestera ibiltzen ziren morroi. Anaia gazteak zortea izan zuen Gurelan sortu zenean bertan hasi baitzen lanean.

Transkripzioa

- Lehen esan dostazu bederatzi anai-arreba ziñaziela, ezta?
- Bai.
- Ta basarrixan lana ein bihako zenduen umetatik, ez?
- Bai. Lana izen zan hogeita hamabi urte arte jaixo nitzan tokixan jardun naban. Ta gero, hogeita hamabi urtekin Sahatzura jun nitzan.
- Alaba: ezkontuta.
- Ta ze... ganau asko zekazuen basarrixan edo...?
- Ganau asko edo... lan asko egoten zan orduan basarrixan. Bost bat behi egoten zian Agarren. Gero, idixek ipini zittuen. Lehen bost behi. Idixek eta beste... hogeit ardira ez dakit alleatzen zien, ta haren ondoren zaintzen ibili in bihar [hantxe behetik].
- Zuk ze lan itten zendun artzain edo...?
- Artzain'e bai ta... ganauekin in bihar zanian ganauekin'e bai ta... danea. Danera ein bihar. Ittulan, txikixa nitzen artian, ganauen aurrien. Lagunai segitzen diue ganauak.
- Alaba: Badakizue zer dan ittulan?
- Bai, ganauen aurrian ibiltzia, ezta?
- Bai, halaxe.
- Ta neskak eta mutilak bazakaten... lan desberdiña itten zenuten anai-arrebek?
- Ez... tokatzen zanian tokatzen zana. Zaharrena... zaharrenak urten zien txiki-txikittatiken e... Don Antoniona zana esan dizuet lehen etxie, ezta? Haura askotan etortzen zan Arnobatetiken. Arnobate beria zaban, Agarre guria're bai, Ospas'e bai... Eta etortzen zan, goitikan itten zaban bueltia. Ta ikusten zittuenien beantzako tamaiñakuak ziala, itxuria, beak hartu ta eamaten zittuen. Zaharren bixek han euki zittuen beakin, Elgoibarren.
- Alaba: Lanian? Lanian o zetan?
- Ez, mantentze aldea. Zaharrena koziñera, ta bestia zerbitzari. Hantxe. Ta bestia, berriz, basarrixan. Haura ta ni basarrixan. Ta mutillak, berriz, morroe batian, bestian... Orduan ez zauan taillarriken. Estraiñeko sartu zan "Gurelana" ein zanian anai gaztena hortxe. Ta joe... haren inbirixetan danak, baiña... bestientzako morrontzia, basarririk basarri.

4.2. Etxearen errenta: kapoi pareta eta dirua

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Garate, Juli
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Goikoetxea, Haritz
- **Erref:** MEN-004/007
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:14:00. **Bukatu:** 00:14:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Don Antonio zen etxejabea. Errenta Gabonetan ordaintzen zuten: kapoi pareta eta dirua. San Bartolomeetan ere oilanda pareta eta etxeko beste jeneroren bat (esnea, arrautzak...) eramaten zitzaizkion.

Transkripzioa

- Orduan e... erreteruak ziñazien, ezta?
- E?
- Don Antoniona zan basarrixa orduan?
- Bai.

- Ta zuek errentan?
 - Bai, errentan.
 - Ta zelan pagatzen zan errentia?
 - Errentia... errentia Gabonetan pagatzen zan... kapoiekin. Kapoe paria eta dirua. Ez dakit zenbat izengo zan dirua. San Bartolometan eamaten zien oillenda paria eta ostien, e... zeoze etxian zauen gauzatik esnia edo arrautzak edo...

4.3. Etxeko errota uholdeak suntsitu

- **Hizlaria(k):** Ondarra Larrañaga, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k):** Portu Zuloaga, Ibai - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** MEN-006/005
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:05:42. **Bukatu:** 00:06:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
 Baserrria » Baserriko lanak » Errota
 Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- **Laburpena:** Luisen jaiotetxean errota egon zen baina, bera umea zela, uholde batzuek suntsitu zuten.

Transkripzioa

- Gero errotia egon zan gure jaixotetxe horretan. Nik ez neban ezautu. Ni jaixo ta bela... ufalak. Ufalak haundixak itten zittuan, ez oin. Orduan itten zittun ufalak! Ta hau ta hartu azpizan zea ta dana zertu. Haura arreglauko zan gero gerratik bueltan etorri zan modoko miserixie zatorrena jakin bazan, baiña ordun ogixa jun dendaa ta [lauko] ogixa hartu ta, ogixen faltaik ez zan. Dirue falta izengo zan igual, baiña ogirik-eta ez. Kasoik ez ta akabo.

- Ta orduan errotia ufalak eruan eta ez zan konpondu?

- Ez.

- Zeure ume denporan-edo hori...?

- Bai.

- Eta ordura arte bai? Zeure aitta...

- Bai, ni jaixo baiña lehen errotia... iriña itten zala ta. Auzua, beti auzua... esaeria izeten da ta... hara ekarten ei zittuen. Ta ondo. Nik ez naban ezautu, txikixa nitzen. Jaixo ta zenbat denpora... esaten zaban amak. Ta akabo.

4.4. Baserritik bizi izan ziren

- **Hizlaria(k):** Garate Gurrutxaga, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Cobos, Jagoba
- **Erref:** MEN-008/002
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:02:08. **Bukatu:** 00:04:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**

Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

- **Laburpena:** Sahatzu baserria nolakoa zen deskribatzen du. Baserritik bizi ziren eta ardi ugari zituzten, besteak beste. Etxeko lan ezberdinak aipatzen ditu eta gurasoen aipamena egiten du.

Transkripzioa

-Etxia zelakua zan?

-Ba etxia ointxe bezelako etxia.

-Zenbat

-Oin ganbixau... Bi piso, ganbaria goixan.

-Eta zenbat gela?

-Lau eta salia.

-Eta danak batea eitten zenuten lo?

-Lau kuarto haundixak eta edarrak.

-Anai-arrebak danak batera lo?

-Ez. Danak bakoitza bere kuartuetan.

-Eta danak bizi ziñaten baserritikan.

-Bai basarritik. Ez zeuan besteik.

-Zer zeukazuen?

-Gaztaiña ta sagarra ta edarrak.

-Eta bestela animalixak edo?

-Bai. Ardixak hirugogeta hamar bat ardi eta astuak bi, eta kaballuak eta. Motxaillak batek halako kaballo edarra harrapau ein ziguen. Harrapau motxaillak kaballua eder askua.

-Eta amakin, ama ze egoten zan, etxian?

-Bai. Geratu barik lanian souan.

-Souan da...

-Dana, artua ta babia ta. Bedarra ekarri ta, ganauei jaten eman eta. Ta aitta berriz iketza eitten.

-Iketza eitten?

-Bai.

-Nun?

-Arnon. Iketza mordua. Hari laguntzera. Geu be bai aixkoran, egurra txikittu ta txondorra betegarrixa eman ta itteko.

-Ta garbittu, josi, plantxau eta hola?

-Ba horrek etxian in bihar.

-Hori andrazkuak?

-Bai, hori andrazkuak. Umia zainttu ta gizonezkuak pentsau ere ez. Emakumiak umia zaintzen.

-Eta amak ezkondu aurretik etxetik...

-Krieda egonda haura basarrixan. Amama.

-Nun?

-Idi(a)zabalen egon ei zan krieda. Handikan ezkondu Saratzura.

-Urte askuan egon zan?

-Bai. Larogeta bi urte pasau zittuan, gure ama hil zan larogeta birekin hil zan.

-Eta ezkondu aurretik lan urte askuan ein zaban?

-Hogeta bost urtekin ezkondu ei zan gure ama.

4.5. Inauteriak

- **Hizlaria(k)**: Garate Gurrutxaga, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Cobos, Jagoba
- **Erref**: MEN-008/013
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:18:56. **Bukatu**: 00:20:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
Baserría » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak
- **Laburpena**: Inauterietan, kaleko jendea tortillak hartu eta Sahatzura joaten zen merienda egitera. Etxean sagardoa egiten zuten.

Transkripzioa

- Karnabalak? Bazauan...
- Bai, beti eitten zian karnabalak.
- Bai?
- Karnabaletan kaleko jendia tortillak einda jatea Sahatzura etortzen zien, kaleko jendia karnabaletan.
- Disfrazauta?
- Egualdi ona zanian euren tortillak eta zeak... eta Sahatzura, Sahatzu aldian e... ba... merixendak itten zittuen.
- Sasikopotsu.
- Bai, sasikopotsu esaten zakon. Guk, berriz, bertan itxian itten gendun, baiña harek haura.
- Ta sagardotegixa, badakizu, sasoi haretan...
- Geuk itxian sardaua eukitzen genduan...
- Bai?
- Edar askua! Itxian geuk indako sardaua. Bai, Artetan zauan tolaría eitteko...
- Zuek ere eraten zenuten? Andrazkuak ere?
- Bai, bai... sardaua bai. Lana ein ta sardaua.
- Eta txakolindegixak?
- Txakoliñikan ez.
- Ez?
- Ez.
- Meza ostian ere ez zenuten hartzen?
- Ezta.
- Ardandegixak? Ardua?
- Hori ez dakit. Bai, kalea mezeta junda ezer hartu be atzea juten bihar izeten genduan!
- Eta... eta txikiteua bazauan orduan?
- Bai, danak eoten zian. Hala esaten zeбен. Txikiteua...
- Putetxen bat bazauan hemen inguruan?
- Ez dakit, ezta entzun ere!
- Ez?
- Zer zien ez gakixan! Putok zer zien ez gakixan. Gero, zahartu ta gero enterau giñan! Bai...

4.6. Mendaroko antxoa lantegian lanean

- **Hizlaria(k):** Garate Gurrutxaga, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Cobos, Jagoba
- **Erref:** MEN-008/023
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:30:32. **Bukatu:** 00:32:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- **Laburpena:** Mendaron lan egin zuen antxoa lantegi batean. Hamar orduko lana izaten zuen eta bost pezeta irabazten zituen orduko. Nagusiaren kontuak aipatzen ditu. Krisia egon zen eta garaiko diruak izendatzen ditu. Etxea errentan zuten eta etxearen jabeak kanpotarrak ziren.

Transkripzioa

- Zuek e... hazi ziñaten baserrixan, ez?
- Bai, ba, beti basarrixan bizi.
- Baserriatik bizi, baiña geo zu lanian... kanpoa jun ziñan, ez?
- Taillerren baten eo...
- Geo, antxoan. Bost urte ein nittuan antxoan.
- Nun? Nun in zenun hori?
- Hamen, Mendaroko Penizian. Mendaron antxoia egon zanian. "Sesenta"-tik "sesenta y cinco"-a.
- Ta zenbat orduko lana zan hori?
- Ba, zortzi, beatzi... hamar ordu!
- Hamar ordu. Eta gero etxea jun...
- Bai, bai ta... geo, ba, umiak eta mutillak eta lana eitten zeen. Umiak gurian danak lan asko indakuak dia!
- Ta jornala... akordatzen zea zelakua zan?
- Ba, ez dakit ze e... ahaztuta nao. [...] hamar luzeroko. Bost pezeta edo... orduko edo.
- Orduko?
- Bai. Eta haura gauza haundixa zan!
- Eta nausixa gogorra zan?
- Ez, oso majo. Mutrikuko Urrita, Agapito Urrita. Haura ere ni baiño gaztio, baiño hil zan haura ere! Bai... oso nausi ona auki genduan. Ta jende asko ibili zan e! Bai, antxoan...
- Ta krisi oin... krisixa...
- Ordun'e bai! Krisixa zaelako Penizea atxurrian ein zebe kamiñua... jendia bajau... Bai, urtero egoten dia hiru-lau bat urtian. Bajau aldixa. Orduan Franco zauan. Baiña gero etorri zan lana, baiña estu eondakun ia e...
- Bat baiño gehixo, ezta? Krisixa bat baiño gehixo ezautu dezu.
- Bai, bai... askotan. Ta oin'e etorriko da lana atzea.
- Akorda... lelengo txanpona? Lengo dirua?
- E... beltz txiki batzuk eta... txakur haundixa ta txakur txikixa ta zian. Ta errial bikua. Errial bikua haundixana... errial bikua zuluakin eta haura dirue [...].
- Eta etxia ez zenuten erosi zuek...
- Ez, ez, ezta... Ez zauala dirurik eta beti errentia pagauta.
- Zeni pagatzen ziozuen errentia?
- Ba, nausixai.

- Kanpotarrak zian nausixak?
- Bertakuak.
- Bai?
- Bueno, Madrikuak zian Sahatzu ta horrek e. Ba, nausixa Madrikua zebeñ, ta Zarautzen zaken maiordomua kobratzaillia, kobratzen zana. Ta Santo Tomasetan pagatzen zion Debara junda... aittak eta zea... errentia etxiana.
- Asko izeten zan?
- Ez dakit nik. Hori ez dakit. Eurek arreglatzen zian ta ez dakit.

4.7. Txerri-hiltzea

- **Hizlaria(k)**: Garate Gurrutxaga, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Cobos, Jagoba
- **Erref**: MEN-008/026
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:35:35. **Bukatu**: 00:37:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
 Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
 Natura » Meteorologia
- **Laburpena**: Etxean zuten ganaduaren inguruko aipamena egiten du. Txerria hazi eta hiltzen zuten etxean eta txorizo eta odolkiak egiten zituzten. Ekaitza izan zen egun bateko kontuak kontatzen ditu eta eguraldia nola igartzen zuten ere aipatzen du.

Transkripzioa

- Ardixak zuek e... ze klase zakazuen?
- Oingotxiak.
- Bai? Bihorra?
- Bai.
- Kabaillua?
- Bai.
- Manduak, astuak? Danak...
- Bai, horrek auki genduzen.
- Txerrixa erosi itten zenun ala hil?
- Bai, ez... txarrixak ekarri ta hazi. Geo, hil ta jan.
- Ta arra baldin bazan ze itten zenun?
- Ba, berdín. Lirainduta ipiñi, ta gizendu ta jan.
- Ta emia?
- Emia're bai. Haura ere liraindu in biha da. Liraintzen ez bada txarra geratzen da txarrixak!
- Zenbat pixukin hiltzen zenuten?
- Ba, bastante. Hamar arrua edo inguru indakuan.
- Eta odola batu itten zenuten?
- Bai odolostia edarrak eta... itten genduzen...
- Solomua, urdaiazpikua...
- Bai, dana. Txarrixak e... gauzak danak dia finak eta onak. Gozuak.
- Odolkixak...
- Dana.
- Ta karobixak orduan... badakizu karobixen kontua.
- Bai, karobixak ein zian bi urtetan guri, Artetan. Txikixa nitzen ta lan haundia ta neke haundia deu, baiña geo sororako ona. Artua ta babia

edarra hartzen genduzen.

- Artua zakazuen jarritta?

- Bai.

- Eta... akordatzan zea ekaitzen bat edo sasoi batekua edo?

- Bai. Egualdi txarra... ja-ta gaztaiñak eta sagastixak dana apurtu nik hamar urte naukazela.

- Hogeta hamahiruan orduan?

- Bai, ez dakit zenbatian izango zan, baiña ja-ta dana apurtu eta orduan ganauentzako ezer be geratu eta ez dakit gure gurasoak zela ganauak eta mantendu zittuen.

- Ze egon zan... txingorra edo...

- Txingorra. Ja-ta haundixa... oin apurtuta moduan zihero, gaiñera, apurtu! Haura gaztaiña ederra! Harek asko mantentzen giñuzen ta!

- Eta egualdixa lengua ta oingua...

- Bai, bolarak itten dittu. Asensiuetan e... aurten txarra ein dau. Len eitten zittuan Asensiuetan egualdi txarrak. Ta hurrengo onak.

- Ekaitza bazatorren, aurretik bazakizuen egualdixa... segittuan beittuta laiñuei...

- Bai, Bizkaira begiratzen giñuan ta: "badator... Bizkai aldetik egualdi txarra". Hori esaten genduan bakarrik. Ostian, eze... ez zauan zeak ta ez giñuan igertzen.

4.8. Irina eta ogia nahi beste

- **Hizlaria(k):** Olazabal Garate, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goikoetxea, Haritz - Otegi, Aitziber
- **Erref:** MEN-011/018
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:25:03. **Bukatu:** 00:28:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
 - Baserria » Baserriko lanak » Garia
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
 - Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
 - Debabarreneko lantegiak
 - Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Gerra denboran ez zuten goserik pasatu. Bere aitak irin-fabrikan egiten zuen lana eta sasoi hartako ogia nahiko txarra zen, oiloei ematen zieten. Fabrikako nagusiak ogia eta irina eman zien goserik ez izateko.

Transkripzioa

- Ez, soldauek etortzen zittunan... trenbidez, ja-ta oillaskuekin, oilluak txintxiliska zittuela gerrixan goittik behera.

- (Hiztuna 2) Nunbaiten harrapatzen zittuen.

- Bai, ba. Hori akordatzan naiz ni.

- Ordun gosek ez zebizten?

- Harek ez! Harek zauan tokixan harrapatzen jonan! "Sí, sí, sí, sí, sí". Baiña etortzen zian halaxe, txintxiliska gerrixan zittuela.

- Goseik pasau zenduen gerra denboran?

- Guk Jangoikuai eskerrak ez gendun pasau. Ta esan biher gendun, gaiñea, nahikua ez gendula jaten. Badakizu ze pasau zan? Hau be politta da!

Esango dozue, hau kotorra harrapau dou guk! Beittu, esan dizut, ba, nere

aittak irin-fabrikan lan eitten zaban. Eta gero, klaro, orduan ogixa gitxi zan. Txarra ematen zebe. Ematen zebe, ba, hau baiño horixaua... ja-ta ze esango diñat, ba, nik? zaperua modukua! Jan ezindakua! Gurian oilluei ematen zakuen haura! Oilluak zaozen ta oilluak [jaten eban]. Eta...

- Baiña ogi zurie zan ala ogi beltza?

- Arto koloria. "Sí"...

- Baiña nola esaten ziozuen? Ogi beltza deitzen ziozuen?

- Ze esan... guk... ogixa...?

- Izenik'e ez.

- [Izena] haura zan. Eta... entzun, hau be politta den ta! Bueno, honek nora joiak gero? Neri ez die ekarriko okerrik, ezta? Esaten jhardunat nik zaparra-zaparra ta! Entzun... ba, nere aitta irin-fabrikan hartu zaban nausi horrek. Ta hori esan dizuet zentrala... Altzolan, zentrala. Oin'e han al dao haura?

- (Hiztuna 2) Bai, zeoze badao.

- Bai.

- Kamiñuan azpikaldian zentral txiki bat zan.

- Bai, bai, bai.

- Berriz jarri da baiña, ez?

- Ez naiz fijau.

- Egon da ibili gabe denpora bat hola...

- Martxan ez dakit, baiña behintzat bea...

- Oin bai, oin bai.

- Han dao. Han dao...

- Bai.

- Hara juten zian udazkenian. Orbela badakizue zer dan? Ta soltatzen zan eta dana zikintzen zan haura presa haura. Eta gero, horren aittittan ta amaman etxea juten zien erraziua hartzera Altzolan. Nausi horrek... hara eruaten zittuan. Eta nere aittak, nere moduan berriketan, ta esaten: "Hau dek hau!" esan ei zaban holaxe "Ez dek /eztek/ edarra etxera juteko bildurra eukitzia!" . "Ze esaten diharduk?", nausixa Garate, ez dakit ezautu zendun. Garatetarra, Juan Agustin Garate ezautu zendun? Ez, hau mutil koskorra. Hau mutil koskorra. Haren semiak eta bai zuk. Domingo ta Bitorio ta Jose Mari ta...

- Bai, horrek bai.

- Haren semiak. Haura zan zea itten zabana kontramaixu o... haren nausi haren zea zan... ipinita kargua. Eta esan zion aitta horrek: "Bildurra ez dek edarra etxera juteko" ta "Zeaittio dakak, ba, bildurra?" esan ei zion holaxe. "Zeaittio dakat... etxera jun eta ogiik ez eukitzia umiak jateko! Hori, hori baiño pena gehixo zer nahi dek!" esan ei zion. Ta nausixak: "Ba, ez dek, ba, berriz esango hori" nausixak esan zion. Bueno, egunero ez dakit ogi bat edo bi zer zian, hor panaderixan erreta emango ziuela. Eta gero, hainbeste kilo irin, etxian eitteko. Salbo. Ta klaro, orduan kaletarrak, guk ze itten gendun, ze itten ziun? ba, bialtzen giñuzen, ba, Sahatzura.... Kaleko umiak orduan basarrixetaa jun zian. Nun zaon amistadia o noa... ba, umiak haretxetaa... tripia...

- Bai, baserrin beti're...

- Tripia betetzera, umia, tripia betetzera. Bueno, ba, halaxe aitta horri halaxe eman ziu.

4.9. Ogia egunero egiten zuen amak I

- **Hizlaria(k)**: Olazabal Garate, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goikoetxea, Haritz - Otegi, Aitziber

- **Erref:** MEN-011/020
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:28:52. **Bukatu:** 00:29:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena:** Bere amak ogia egiten zuen egunero. Ezin omen zuten esan egunero egiten zutenik, astean behin egitea zen ohikoa-eta. Herriko bati goseak zegoela okinarekin gertatutako istorioa kontatzen du.

Transkripzioa

- Ordun etxen ogie itten zenduen?
 - Amak, edarra gaiñea!
 - Labesue zeukezuen?
 - Beste bat politte esango dizuet horrekin. Bai, ta amak itten zaban edarra. Egunero labakaia itten zaban bete-bete-bete ta geo gozua botatzen zion gaiñea! Jolin, pastela...
 - Egunerokoa itten zenduen ala asten behin?
 - Egunero... Bai, zea... egunero, egunero.
 - (Hiztuna 2) Baiña ezin esan e, ama?
 - Ezin esan baiña hori. Ezin esan.
 - Esan nahi det, garai hartako jendek asten behin o... askok itten zuela.
 - Ines "Usetxe" ezautu zendun? Ezta. Ta kamiño bittarte etxia aurrekaldian dauana [haretxetan] ta panaderuai esan ei zion: "Hi —zihero, holaxe kaxkartu zan andra haura. Demasa zan... Ze ete da e ogi-gosia?—Hi, emaiak ogixa!". [...] hola itten zaban hizketan ta: "Ze esaten ai haiz hi! Ze esaten?", "Egixa esaten dixat! Emaiak nei ogixa, gosiak naok eta!". Bere zea zan, ba, e? "Nada, no le daba". Ez sinisten. Nei ez ien esan... ogi pixkat ematia zer zonan, ba!

4.10. Ogia egunero egiten zuen amak II

- **Hizlaria(k):** Olazabal Garate, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goikoetxea, Haritz - Otegi, Aitziber
- **Erref:** MEN-011/022
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:30:47. **Bukatu:** 00:33:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena:** 13 urterekin neskame joan zen inguruko etxe batera. 3 urtez egon zen bertan. Etxeko ume batentzako derrigor egin behar zuten ogi bat eta egunero joaten zen okindegira Felisa. Behin, errekaduak izkina batean utzi eta baten batek ostu egin zizkion. Horrelako tarteak aprobetxatzen zituen amaren etxera joateko ogi gozoa jatera, bere amak egunero egiten baitzuen ogia jendeak jakin ez arren. Behin ogiarekin harrapatu zuten.

Transkripzioa

- Halaxe, ni neska koskorra ume zaintzea, porke bildurra zaken, ba, zeoze ingo ote zion, ba, harek umiai. Eta halaxe, eskolan nabillela, ba, haraxe jun nitzan.

- (Hiztuna 2) Bai anai zian. Bata zan "síndrome de down" edo [...]
 - "Sí". Joxe, Joxe... Joxe `Kapain´ ez huan ezautu hik? "¿Qué cosa más rara!".
 - (Hiztuna 3) Joxe `Kapain´ bai. Ezautu zuk? Bai. [...] bizi da, ba, Kapaingo nausiya?
 - Teillarra?
 - (Hiztuna 3) Antonio `Kapain´ badakizu zein dan? Osaba...
 - Antonio... Antonio bai.
 - Haren tio! Haren tio! Joxe...
 - (Hiztuna 3) Ez zea akordauko...
 - Pixkat despistaua naiz, e!
 - Ez, kanpuan ibiltzen haiz-ta asko!
 - Baitta, bai, egon naiz kanpuan.
 - Horrek ingo dik. Bueno ba... Ba halaxe, hari itten zion ogi bat. Hari... hari derriorra zonan ematia ogixa. Bestela, jole! .
 - (Hiztuna 2) Gaixorik zauan...
 - Geatzen zonan [...] hola inda.
 - (Hiztuna 3) Hasarratzen ez bazan...
 - Makala! Ta ogixa harentzako behintzat beti itten zebeñ zerian... panaderixan. Ta gero iriña eruaten zebeñ ta etxian ta ahal zan moduan. Eta egunero etorri bihar naban ogittara. Baiña nik ze itten nauan...? Hortxe panaderixia... Ezautu huan?
 - Etxetik gertu zeukezun?
 - Bertan, bertan, bertan.
 - (Hiztuna 2) Baiña bueno, etxe hori zauan hemendikan...
 - Oin dana kanbixauta daon ta! Oin kanbixauta... Bertan, bertan...
 - (Hiztuna 2) Bera etortzen zan Garagartza...
 - Hamen zauana, ez?
 - Bai. Ta ni Kapaiñen. Ze itten naban beti egunero amaana ni. Bai. Nik neuk'e ama maitte najonan! Ta zer da ta laga jonat eskillara bueltan nere ogixa eta errekauek. Bai, neska! Zer dan ta ez jane /etxane/ ba harrapatzen bueltarako!
 - Zu baiño azkarro besten bat!
 - Hi, harrapau hi! Hori ein in bihar jon, e! Eta klaro, panaderiak-eta zaittu itten niñuen, zela amana juten nitzan. Nik ez naban pentsatzen nei hola iñok zaintzen zianikan! Ta zer da, ba, ogixa harrapau ziela. Bai zea, ogixa harrapau? etxian lagako nauala. [...] Hori esan in bihar jonan, e! Ta neu ogixa jatea amanea etortzen nitzan, hori gozo haura jatea. Baiña zela ez zakixan harek, gurian ogixan asunto hori zela zauan. Eta halaxe, harrapau ogixa nei. Ta gero, panaderiak horixe, hi! Etxian lagako nauala. Ez ba.
 - (Hiztuna 2) Ta gero Kapaiñen ze? Bronka?
 - Ez. Ze ingo janen ba! Kitto!
 - Ixil-ixilik pasa in ber.
 - Pasau in bihar ta arreglau in bihar asuntua.

4.11. Errotak, irina eta kontrabandoa

- **Hizlaria(k)**: Olazabal Garate, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goikoetxea, Haritz - Otegi, Aitziber
- **Erref**: MEN-011/023
- **Iraupena**: 0:02:42. **Hasi**: 00:33:06. **Bukatu**: 00:35:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze

- **Gaia(k):**

Baserria » Baserriko lanak » Errota

Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

- **Laburpena:** Okindegian zegoen errota, eta baita irin-fabrian ere.

Fabrikatik hartutako irina ekartzen zuten zuzenean. Irina bizkarrean

ekartzen zuten gauez inork ez ikusteko. Neskame egon zen etxera

Eibarko andre bat joaten zen irin bila eta Maltzagako geltokian

erregistratu egiten zieten kontrabandoa zela eta. Olinoa eta irina

kontrabandoko jeneroak ziren. Beraien auzoko bat Eibarrera joaten zela

olio bila dio, behin berarekin joan zen Felisa olio bila Eibarrera.

Transkripzioa

- Hemen errotaik bazenuen?

- Bai. Hortxe panaderixan... errotia.

- Bertan, panaderin bertan zeon.

- Bertan errotia. Ta hor irin-fabrian'e bai. Hor itten zixuen.

- (Hiztuna 2) Oin ere errotia hor egongo da, ama.

- Ez. Oin etxiak daonaz hor. Zer doz hor?

- (Hiztuna 2) Ez, ama. Errekia... ta errotia ez dao hor?

- (Hiztuna 3) Irin-fabrian esaten dezu?

- Ez, hamen. Keba. Hor ez daon. Hor errekia jaen.

- (Hiztuna 4) Hor errekia bera bakarrik dao.

- Errekia.

- Eta zuek irina eamango zenuen errota?

- Irina ekarri itten [ziun] fabrikatikan... eindakua.

- Eindakua ekartzen zenuen?

- Eindakua, irina. Irina edarra. Irina itten zeuen.

- Hainbesteko bat utzi behar izaten zenuen?

- Klaro, "tanto" o... Ez dakit zela arreglatzen zian. Bai. Ogixa ez dakit

zenbat pagatzen gendun.... Errial bi... ez dakit zer... hori ezin neike esan ondo. Haura diruan asuntu hori ezin neike esan ondo.

- Eta nun ekartzen zenuen iriña?

- Bizkarrian... gabaz.

- Astoik eta ez zenuen?

- Ez. Bizkarrian gabaz iñok ikusi be.

- Gauez ibiltzen ziñeten.

- Klaro, nausixak esaten ziu: "eruaizue disimulan". Ta halaxe. Egunez ta gabaz relebuan itten zeuen. Itten zeuben. Ta halaxe.

- Harrapatu ezkeo?

- Ba kitto! Orduan esan dizuet...

- Bazien hemen harrapautakok hemen? Ezautzen dezu batemat?

- Hola iriñetan ta?

- Bai.

- Ez, ez, ez. Ez. Zera, Kapaiñea etortzen zan Eibartikan andra bat iriñetaa, hi! Ta holaxe poltsatxo bat eruaten jonan, ez jakiñat zenbat kilo. Neuk eruaten najonan kaletikan haura. Eta gero Maltzagako estaziuan zera itten jonen.... erregistau. Bildurak aidian, hi!

- (Hiztuna 2) Baiña ze zan kontrabandua zan iriña...?

- Bai, iriña kontrabandua [honan]! Iriña ta olixua ta... Maritxu Kaxintanekua gerra ondorenian Eibarrea eruan zianian neska koxkorra... esan dizuet, ba, Kaxintanekua bezina... Eta Eibar zaon holaxe... niki beltza? Holakotxe, bel-bel-bel-beltz. Dana erreta. Ta olixotaa Eibarrea.

- (Hiztuna 2) Klaro, erreta. Erre in zuten bonbak...

- Baiña beltz... ezin siñistu, e! Haura kale...

- Zu juten ziñan Eibarrea?

- Gitxittan. Harek eruan niñuan. "Sí".

- Eta esan dezu olioare bai. Zenen estraperloa eoten zan?

- Bai, bai, estraperlua.

- Olio...

- Bai.

- Ze gehio? Azukreare bai?

- Baita uste jonat. Dana zonan eza. Eza.

- Ta hemendik... Eibarrea juten ziñeten?

- Billa.

- Beste... inguruko beste herrin batea ez ziñeten juten?

- Olixo... harexe dakat goguan, harek haraxe eruan niñuela olixotaa. Harek ez dakit ze olixo... bere anaia gaixua ta...

4.12. Berriztik Mendarora barazkiak saltzera

- **Hizlaria(k)**: Olazabal Garate, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goikoetxea, Haritz - Otegi, Aitziber
- **Erref**: MEN-011/027
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:41:08. **Bukatu**: 00:42:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Etxerako jeneroa erosteko denda zegoen eta Etxeberriko baserrian barazkiak saltzen zituzten. Berriztik ere zaldian etortzen zen bat barazkiak saltzera astean behin.

Transkripzioa

- Etxeako jeneroa erosi behar zenuenen noa juten ziñeten? Dendak bazien ala azokatik?

- Bai, e... dendak, dendak.

- Dendak?

- Eta Etxeberria ezautu zenduen... Etxeberriko basarrixa? Ta hor berduria ta saltzen zeben. Ni hara juten nitzan. "Sí, sí". Eta ez zakana ortua hola... Berriztik etortzen zan kabailluakin berdura saltzen.

- Berriztik?

- Bai.

- Joe, lekutan...

- Bai, bai, bai, bai. Hor pelotai ibiltzen dek... Zein da? Pelotan ibiltzen dan bat, gaztia... Mutur zorrontz bat...

- (Hiztuna 2) Baiña nun, ama, Mendaron ala...?

- Ez, telebisuan...

- (Hiztuna 4) Bai, zea... Pablo Berasaluze.

- Berasaluze.

- "Verduras" esaten [juiat] nik hari!

- (Hiztuna 2) Zeba?

- Berrizkua da hori!

- Ta hua etortzen zaizu burua!

- Hauraxe "en todas, todas"... Haura karro haura ze berdura usain edar! Zelako berdura edarra ekartzen zaban harek! Jeseus...

- Eta hori ze, asteko edozein egunetan... ala egun baten...?

- Ez, egun bat o hola izaten zan. Ta harek korritzen zaban, ba, herrixak-herrixak korritzen.

- Azokaik itten zan hemen Mendaron?
- Hamen ez. Hamen ez.
- Ez?
- Ez, ez.

5. Politika

5.1. Garo-metan ezkututzen zuten garia

- **Hizlaria(k)**: Larrañaga Garate, Juli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Goikoetxea, Haritz
- **Erref**: MEN-004/008
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 00:14:40. **Bukatu**: 00:16:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak,
kontakizunak
- **Laburpena**: Gerra garaian, garia entregatu behar izan zuten eta gero goseak ibili ziren, ez zeukatelako eurentzako lain. Deklaratu egin behar izaten zen zenbat gari hartzen zen, eta errekiatzera ere etortzen ziren. Horregatik, garo-metan ezkututzen zuten garia. Behin, aitak ontzako urrea ezkutatu omen zuen belar-metan. Horren inguruko pasadizoa.

Transkripzioa

- Gerratian hasi giñan garixakin estu ta larri! Ez zan usatzen orduan ogirik eitteikan ta ailleauko ete zan edo ez ete zan etxeko garixorrekin...!
Lehelengo urtian entregau dittue ta gero gosiak amorratzen, ogirik jan be. Kalian ematen ziguen bollo xikin bat ta haretxekin. Geo, handik aurea etxian gordetzen hasi giñan. Urte baten e... orduan errekiastu igual ingo zittuela zaratia ibiltzen zan aurretiken... errekiastu igual ingo zittuela. Dana deklarau ein bihar izaten zan, ze bazauen ta zer zauen ta... Garo-zuhetz haundi bat ein ataixen, han gorde garixek, sartu han bueltan, gaiñetik tapau garuakin, berriz'e bota hola gaiñien, gaiñien garixe bota, gorde... Geo ataa lantzian zaku bat eta...

- Ezkutuan ibili bihar, ezta?

- Holaxe, holaxe. Beste bat hori baiño polittaua kontauko dizuet. Bedar-zuhetzien ontzako urria zakan aitta guriek. Anai asko zian Ameriketan izendakuak, bea ez zan baiña. Ta urre mordua zittuen. Ta hamen zaon Mutrikukuak eaman ziozen azkenak. Bueno, ontzako hori ez, e? Ta ontzako hori urrioi sartu dau itxuria. Danak kendu itten zittuela-ta dana billurtuta jende guztia egoten zan hor. Bedar-zuhetzian. Ta geo, jun da anaia, ataa hola... denborale txarra ganauekin junda ekarteko, kargie ekarteko, kargie inda. Ai da garauoi, bedarro, ataetzen ta ontzako urria! Etxera ekarri zabanien, [...]: "Nun topau dek hori?!". Baiña eskapadia inda, galtzeko're!

- Ya, besten batek topau baleu...

- Topatzia bat! Beak ere galdu edo... Ikustia baiña... zeeze ondo batuta eukiko zaban, itxuria, paketia eindde. Hantxe [...] bere ontzako urrie.

5.2. Garia entregatu behar; ogia errazionamenduan

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Garate, Juli
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Goikoetxea, Haritz
- **Erref:** MEN-004/009
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:16:58. **Bukatu:** 00:18:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak,
kontakizunak
- **Laburpena:** Garia entregatu egin behar izaten zuten irin-fabrikara.
Deklaratu egin behar izaten zuten zenbat gari hartzen zen etxean; eta,
errekisatzera ere etortzen zirenez, beldurrez egoten ziren. Ogia
errazionamenduan ematen zieten; gogor-gogorra izaten zen. Okinarekin
gertatutako pasadizoa.

Transkripzioa

- Orduan ibiltzen izan baserririk baserri? E... begira aber e...
- Alaba: Rekisatzen.
- Rekisatzen edo?
- Bai, bai, bai. Basarrixetan-ta ibiltzen zian orduan ze jenero zauan ta zer
zauan ta... Jentia argi egoten zan. Kenduko zebela garixa're, ba,
honenbeste apuntau ta haura baiño gehixao baldin bazauan ta
harrapatzen baldin bazaben ez dakit ze ta! Jesus! Bilddurra lauorrixan beti!
- Bai. Entregau in bihar izaten zan, ez?
- Entregau, entregau in bihar izaten zan... garixa ere.
- Eta nora entregatzen zan, aiuntamentora edo...?
- Aiuntamentura? Pabrikaa eman biheko zan, hortikan gero... Irin-pabrikia
zauan hamen ta horra. Ta gero, hortiken eurak arreglauko zien, horraa
emanda.
- Ta ogixa razionamentuan emoten zetsuen?
- Razionamentuan? Razionamentuan e... azkeneko... badakit urte baten
zelakua...! Hola bota esnetaa edo... ta "klox" harri koxkola bezelaxe hondoa
juten zan. Baten, ondo goguen dauket, orduen jolas gogo ona eukitzen
gendun hala ere ta bihar'e bai. Ogixori eman diu ta ogi zatixa soltau jako,
ta tira diou atzea panaderuorri ta joten dau kokotien! Beraatik ez ziun asko
inporta. Andria zauen han ta harek ipini ziun begirakunia...! Ez zakon asko
gustau!

5.3. Estraperloa; bizkaitarrak Gipuzkoara eta alderantziz

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Garate, Juli
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Goikoetxea, Haritz
- **Erref:** MEN-004/012
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:23:00. **Bukatu:** 00:25:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

- **Laburpena:** Behin Berriatuko batzuk etorri eta kartila ahaztu zitzaizela eta berea uzteko eskatu zioten. Berak halaxe egin zuen, baina irin-fabrikakoak esan zion berriz ez egiteko halakorik, haiek debekatuta zutela Gipuzkoa partera etortzea eta. Etxe bakoitzak kartila bat izaten zuen eta hura irin-fabrika erakutsi egin behar izaten zen eta bertan apuntatzen zuten jasotako irin kopurua. Eurak ere Bizkaia aldera joaten ziren estraperloan, baina han ez zuten kartilarik eskatzen.

Transkripzioa

- Bestela, zuek ogixa etxian ingo zenduen, ez?
- Gero hasi giñan etxian eitten. Lehen ez genduan eitten. Ta... billur giñan [etxeko garixakin] ailleauko giñan edo ez giñan edo... Entregau ere ein bihar izeten zan garixa ta billurra. Baiña etxekuakin hasi giñanian, ondo. Ein in bihar, baiña ondo. Trukau eitten genduan. Hemen ez bazauan libre, han zihar junda. Behin Berriatutiken ixte etorri, ta badakizu ze in ziguen? Esan zigun: "Kartillia ahaiztu jaku etxian, mesedez emango diuzu?". Halaxe zalakuan hartu ta eman diuet kartilliori. Hurrengo etorri nitzan pabrikara ta esan zian Juan Agustin zanak, esan zian: "Kartillia nori eman dion lehenguan?", "Ba, hola ta hola eskau zien ta eman...", "Ez jaukene libre harek honea etortia! Hareatik ez... harek ahaiztuta ez zittunan etorri! Kartillaik ez jaukene harek hona ekarteriken. Ez hai dexkuirau berriz ematen, e!" esan zien. Ez zien etorri're ein, baiña eman'e ez. Baiño sano eman e, gaiña nik e! "Kartillia ahaiztute etorri gea ta emango al diuzu, mesedez?" eurek halaxe... baiña... sano halaxe zalakuan.
- Alaba: Baiña zein zien ba horrek?
- E?
- Alaba: Zein zien ba horrek?
- Zein zien? Berriatuakuak hiru. Hiru basarritakuak.
- Handik hona etorri zian orduan...
- Bai. Kontrabanduan zatozen harek hona! Harek gaizki pentsauta etxien urtenda etorriko zien, bestela ez zauken hamendik iriñik eamateiken! Ta ondo urten ziu. Baiña eman zien enkargua hurrengoako: "Ez hai deskoirau'e berriz iñoi ematen e!". Ez eman ere!
- Ta kartillia ze izaten zan? Ze... papelen bat edo?
- Kartillia?
- Kartillia esan dozu emon zetsezula...
- Kartilla bat eoten zan ordun apuntatzeko. Iriña noiz, zenbat irin trukau dan edo ze ein dan edo...
- Errotan presentau in bihar izaten zan hori?
- Bai, irin-pabrika haura presentatzen zan. Ta han apuntatzen eben ta etxera. Harena ez dakit apantau zaban edo ez zaban, baiña enterau zan haura kartilla haura zeñena zan haura...!
- Klaro, ezautu ingo zeban kartillia!
- Bai. Holaixe.
- Alaba: Ta zuek Bizkaira juten ziñanien kartillaik be jungo ziñaten ba, ala?
- Erregular kartilla be, juten giñanien. Harek hona etorri zianian bezelaxe gu're hara juten giñanien.
- Alaba: Eta zela ekartzen zenduen ba?
- Zela ekarten genduen?
- Alaba: Ze kartillakin o zela ematen zizuen ba zuei?
- Han? Han ez jaonan kartilla biharrik! Haura irin-pabrikakua hunan.

5.4. Francok euskaraz egitea debekatu zuenekoa

- **Hizlaria(k):** Garate Gurrutxaga, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Cobos, Jagoba
- **Erref:** MEN-008/010
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:14:30. **Bukatu:** 00:16:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Politika » Politika eta Franco
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Gerra aurrean denak ziren euskaldunak. Anai-arrebekin hika hitz egiten zuen, gurasoei zu eta mediku eta apaizei berori. Francok debekatu zuen euskaraz egitea.

Transkripzioa

- Gerra aurretikan jende euskalduna zauan hemen?
- Dan-dana euskalduna.
- Dana?
- Dana.
- Ez zeuan iñor euskaraz kontrakua? Kontraixoik ez zauan...
- Ez, ez orduan ez. Orduan dana euskeria biher zan.
- Batzuk izango zian, baiña, pentsatzen zezenak euskerak nibel bajua dakala ta kastellanoz...
- A, nik ez dakit. Bai, bai, bai, hori... bai, ez dakit horrek... ni horretan ez naiz akordatzen.
- Eskolan ez zenuten euskeraz itten...
- Ez, ez, maixuok e... ez dakit zelako kastellano bat zonan... eitten jonan ta! Haretzek bakarrik...
- Eta zeñekin itten zendun zuk hikaz eta zukaz eta...
- Itxekuei danai "hi".
- Danekin?
- Anai-arrebei danai "hi".
- Ta amai ta ez...
- Amai ta aittei "zu"... ta amamai. Baiña beste anai-arreba danok, gu danok alkarri "hi". Danak konfiantzia.
- Ta lagunei?
- Eta lagunak "hike". Zenekin konfiantzia zakanakin "hi" ta konfiantzaik ez zauanai "zu".
- Ta medikuai eta apaizai?
- A, horrerri "beori" ta ez dakit zertziek esaten ibiltzen zian. Lehengo kontuak.
- Ta erderia noiz sartu zan badakizu?
- Noiz? Gerria pasau zanian ta Francok dana kendu erain euskeria. Kentzia ta... dana erderia bihar zala ta... Haretzek ein zaban hori!
- Ta euskaldunentzat, bertakuentzat, erdaldunak ze zian "maketuak", "belarri motxak"...
- Ez, ez... holakoik ez naiz akordatzen.
- "Belarri motxak" o ez?
- Ba, iual esango ziu. Neuk ez dakit. Neuk ez dakit... ze esaten ziu. Neuk ez dakit.
- "Hezur beltza" eo ez dezu...
- Ez, holakoikan ez. Ez zan, ez zan holako jendia...

5.5. Herrian hildakoak

- **Hizlaria(k)**: Olazabal Garate, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goikoetxea, Haritz - Otegi, Aitziber
- **Erref**: MEN-011/014
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 00:23:06. **Bukatu**: 00:24:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena**: Herrian hildakoak egon ziren. Itziar gainera eramaten zituzten hiltzera. Taberna bateko nagusia ere hil zuten. Beraien etxea okupatzeaz gain, beste batzuk ere okupatu zituzten. Irin-fabrian ere egon ziren.

Transkripzioa

- Heriotzak eta bai... hil zittuen. Hil zittuen. Hartu ta gizonak eruan Itziar gaiñea ta...
- Itziar gaiñen... hiltzen zittuen?
- Bai, bai. "Sí". Hori...
- Hemengo, herriko jendea badakizu hauntza eamandakoa?
- Bai.
- Bai?
- Ezautu itten neban nik be bai gizonezko moreno bat. Zea... tabernia auki zebe horrek. Valentiñen tabernia? Ba, Ospasko alaba egon zuan han taberniakin. Ta harei gizona hartu eta hil in jiuen Itziarren o.
- Zuen etxea okupatu zuen bezela soldaduk... beste etxe batzuk'e okupatu zittuen?
- Bai, bai, bai... baiña asko ez porke ez zaon hola etxia libre zeian. Hor esan dizueta, ba, hori almazan hori ta hor... "fábrica de harinas" ta hor... Gero, ba, almazentzat ipiñi zebe hor... sail haundixa. Ta hor zertu zian.

6. Familia eta harremanak

6.1. Familia kontuak

- **Hizlaria(k)**: Ondarra Larrañaga, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Portu Zuloaga, Ibai - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: MEN-006/006
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:06:38. **Bukatu**: 00:08:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Ama Goikolakoa eta aita markinarra zituen; emaztea ere bizkaitarra zuen. Anai-arrebetan gazteena zen. Bost urte bete zituenean erren geratu zen.

Transkripzioa

- Familixia ze zekazun aitta edo ama edo... Goikolakua bertakua edo?
- Ama.
- Ama.

- Aitte bizkaitarra.

- A bai e?

- Bai, Bizkaikue, bai. Neu be erdixa Bizkaikue naiz.

- Bai e?

- Aitte Bizkaikua nuan. Ta geo andria hartzia ´re Bizkaikua tokau. Gauzia dek ba hori! Oin bea jun zatan ta oin bakarrikan. Ez Bizkaiko ta ez Gipuzkoako oin. Bai, holaxe dia horrek. Ta...

- Nungua zan aitta? Markiña ingurukua?

- Bai, Markiña bai. Markiña-Xemein o zea... han izen-apeliduk ta dana tokau zatan nei soldautzako asunto zerian. Hara jun biharra´re... Librau in nitzan ni soldautzatik. Aittak beak. Aitta bi makillakin inbalido gerau zanien, ez zan gizajue... Soruen biherrien e... ezin izeten zaben ganauekin zertu... zeoze jornada asuntuen ta [...] zan. Ta...

- Orduan, bizimodu guztian zuk...

- Nik bizimodua, bizi izetia zer dan ondo aprobautakua izan da nerie. Oin neu gauza ez ezetarako. Neu... zertu. Bost urte nittuenerako errekauek itten hasi, hasi in bihar ama etxeko lanak itten da ta... Arreba´re, arreba zana... hil... Neu bakarrik bizi naiz, beste iñor ez da bizi pamilixen!

- Gaztena ziñalako?

- Gaztena naizelako o ez dakit ze. Ta neu zahartu. Ta derrior hil in biher azkenien zahardadie! Txakur zaharrei pasatzen [...] parrez eoten dia! Egixa! Bai!

- Zenbat anai-arreba ziñazien?

- Anaixarrebak: lau anaixa ta arreba.

- Bost?

- Bost, bai.

- Ta zeu gaztena.

- Bai, ta neu azkenengo umie. Ta kalamidade gehixen itten dabena.

6.2. Lagun artea eta jolasak

- **Hizlaria(k):** Garate Gurrutxaga, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Cobos, Jagoba
- **Erref:** MEN-008/005
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:07:15. **Bukatu:** 00:09:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena:** Igandeetan bakarrik izaten zuten lagun artean elkartzeko aukera. Jolasak, gaiztakeriak eta gaztetako kontuak aipatzen ditu.

Transkripzioa

- Ta zure sasoian beti etxian denbora gutxi egongo ziñan, ezta?

- Beti lanian... eo ardixa zainttu eo besteik ez zauan. Umiei... jaixan bakarrik libre eukitzen genduan... alkarreta juntau ta jolasian eittia.

- Jaixan?

- Bai.

- Ta zeintzuk juntatzen ziñaten? Arno ingurukuak o...

- Bai, Arnokuak. Sahatzuko Agustina ta... geure lagunak. Harek´e sei anaixarreba ta... txikitxuek alkarrekin. Han geuk hantxe kuadrillatxua Sahatzun.

- Ta ze eitten zendun umetan?
 - Ba, "baleka" ta! Zeian bakarrik... geure arteko jolasa.
 - Mendira juten ziñan?
 - Bai, ardixeta ta bai.
 - Baiña lanea... baiña bestela ez?
 - Baiña jaixan hori e... juntatzen giñen! Astian ez e! Astian ez giñen juntatzen.
 - Eta gaiztakeixak eitten zenittun?
 - Ingo genduzen! Umiak giñen ta! Gaiztokeixak eitten aurrenengo neskak!
 - Beste umiei ere gaiztakeixak?
 - Ume txikixouik ez gendukan asko. Sahatzukuak gaztetxuauak. Ta... txikixauei ez zeuan joteik eta itteik bestela.... belarri ixkiñako ederra hartu bihar umei txikixauei ezer eitten bazan.
 - Eta animalixak harrapau edo akabau edo?
 - Ez, ez, ez, ez. Holakoik ez. Holakoik ez. Animalixak ondo tratatzen genduzen.
 - Eta etxea eraman zendun animalirikan kalekua edo ez?
 - Ez, ez... nik ez. Txakurrik ez zata nei gustatzen.
 - Lapurretan ibiltzen ziñeten umetan? Sagarrak o gerezixak o?
 - Ez, ez hori ere ez. Itxian genduken sagarra nahikua... iñona hartu biharrik pe! Sagasti earrak eta!
 - Eta elurra zauenien?
 - Ba, orduntxe gaizki. Edurretan hotzak astuakin kalera errekauea jun bihar ta!
 - Oin baiño gehixau eitten zaben?
 - Ba, orduan edur haundixak itten zittun, oingo aldian. Astuak e... edurra apurtu ezinda ibiltzen zan bidia kalera... egunero kalera bidi in ta hori. Edur haundixak itten zittuan. Oin ez dau itten edurrik lengo mouan!

6.3. Tabakoa; purua; pipa

- **Hizlaria(k):** Olazabal Garate, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goikoetxea, Haritz - Otegi, Aitziber
- **Erref:** MEN-011/025
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:36:38. **Bukatu:** 00:38:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
 Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
 Ohiturak eta bizimodua » Bizioak
 Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
 Baserrria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena:** Bere aitag tabako-hostoak zituen. Mutrikutik ekartzen zuen. Tabakoa errazionamenduan ematen zuten. Tabakoa beraiek egiten zuten. Purua noizean behin erretzen zuten, zorionekoak omen ziren puruak erretzen zituztenak. Pipa ere erretzen zuten. Emakumezkoek ez zuten erretzen.

Transkripzioa

- Tabakoa ta kafea ta...
 - Baitta.
 - Izaten zien?
 - "Sí". Nere aittak hamentxen ostrua tabakuana... Tabakua jakingo dozue

zelakua...? kriston ostro zabala. Ta hortxe sartuta landarak nere aittak. Ta Mutrikutik ekartzen zeban. Han parientiak geunkazen Entzuzkuak, eta tabakua. Harentzako [eztixak.]. Nere aittak tabakua laga ematia ta... Entzuzen... harek ez jonen /etxonen/... zea zonan-ta razionamentua, neska! Hori e... Tabakua e...

- Tabakoa razionamentun?

- Bai. "tanto", kajetilla o ez dakit zer. Ni gaztia nitzonan, baiña horrek gauza horrek...

- Ze tabako erretzen zan? Zuen etxen erretzen zun norbaittek?

- Aittak.

- Ta zer erretzen zun?

- Auskalo.

- Ordun ze izaten zan gaur bezela beltza, rubioa... izaten zien holakok?

Ala...

- Bai, ahotik kendu dian zela esaten ziuene bati. Ahotik kendu dian. Pentsain horrek ostruak...

- (Hiztuna 2) Ama, baiña zan tabako beltza. Ez zauan oin bezela...

- Beltza?

- Ee... Beltza.

- Beltza izeten zan?

- (Hiztuna 2) Ez zeuen itten eurak?

- Bai, bota zerian papelituan ta hola "tirri-tirri". Eurak eitten jaittunen.

- Beraiek biltzen zuen...

- Bai, bai, bai, bai... Ta purua noizian behin. Ta harek esaten jonan: purua erretzen zeban personiak, haura, harekin jakan felizidadia hi! Haura baiño hobetuau ez ei don iñor'e!. Aittak hori esaten zian.

- Pipaik erretzen zan?

- Bai, bai.

- (Hiztuna 2) Baitta, baitta erretzen zan.

- Ta "horri pipa horri lagaixozu aittitta!" amak esaten zion ta "dza, dza, dza" ordun ta zarata gehixo ataa! Ai ama...!

- Emakumezko erretzen zenduen?

- Keba...! Emakumia...

- Zuek ez, baiña beste emakumezko'e ez zuen erretzen...

- Ez, ez, ez, ez. Orduan emakumia, neska, serixua zonan! "Más educación". Esango den, hori den berbia esan denana! Ez, errespeto gehixao zan len emakumia, oin baiño. Errespetua.

- Eta bestea kafea esan dezu. Kafea're...

- Baitta. Hori ixili-mixilik... Bai, bai, bai. Haura epoka haura txarra honan. Txarra!

- Kafe landaraik euki zendun hemen?

- Kafia ez. Kafia... Tabakua egon zonan gurian hor. Bai.

6.4. Ezkondutakoan, artilezko koltxoia

- **Hizlaria(k):** Olazabal Garate, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goikoetxea, Haritz - Otegi, Aitziber
- **Erref:** MEN-011/033
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:52:00. **Bukatu:** 00:53:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

- **Laburpena:** Koltxoiak artilezkoak izaten ziren. Ezkontzera zihoana ardiei begira ibiltzen zen, nork edukiko ote zuen ilerik onena koltxoa egiteko. Koltxoa garbitzeko astindu egiten zuten; lan astuna zen.

Transkripzioa

- Koltxoiak...
- Koltxoiak ardi-illezkuak. Bai, ardi-ille... Orduan, ezkontzea zixena nun ete zaozen, zu, ardixei... ardixei begira: ille... “halako ardixak ille edarra eukiko juek, ba”. Ezkontzera ba... Gurian zeretik Arratetik ekarritta dao. Zenentzako? Isidorontzako?
- Ezkontzea zizonantzat ohittura zan?
- Illia, bai! Koltxoa! “Sí”.
- Eta gero hue... ze in behar izaten zan?
- Haura garbiu.
- Nola garbitzen zan?
- Ba.... ahal dan on... Ze esplikauko dizut, ba, nik?
- (Hiztuna 2) Bai, akordatzen naiz ni zela itten...
- Hamentxe sikatzen zian. Honaxe gora...
- (Hiztuna 2) Bai, eta “sí, y a base de darle con el palo”.
- Bueno, “sí”. Honaxe ekartzen zian.
- Astindu in behar izaten zan?
- (Hiztuna 2) Bai, astindu.
- Buenooo...! Ezaun-ezaun orduan laste bodia zana nunbaitten... ardi-ille harek ikusten zianian. “Sí”.
- (Hiztuna 2) Ez, baiña, ama, hori noizian behin garbitzen... osea, itten zenduen urtero edo...
- Buelta eman ta gero astindu ta buelta eman...
- Gero koltxoa... haura lan txarra honan, e! Ene, haura zonan lan amorragarrixa! Ene...! Koltxoa ataa... haura joten... harro-harro itten, zu! Haura zonan lana! Uuuu... “¡Qué asco! Asqueroso era aquello. Asqueroso era aquello”. Atara ille harek eta han joten-joten ta... Enee! adelanto edarrik [bahonan]. Ene...
- Bueno, gero alde earren lo ingo zenuen... hue astindutakon.
- Goxo, xartu-xartu inda.
- Goxogo.
- Bai, gozua izaten zonan, hi! Baiña lan txarra honan, e!
- Besteik ez zan eongo ta... harekin konformau behar!
- Hoixe! Bestia azaldu zanian, fuera harek danak!

7. Ekonomia eta industria

7.1. Gerra garaian, soldaduak etxean

- **Hizlaria(k):** Garate Gurrutxaga, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Cobos, Jagoba
- **Erref:** MEN-008/025
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:33:42. **Bukatu:** 00:35:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

- **Laburpena:** Jubilaziorik ez zen izaten bere gurasoen garaian. Gerra garaian, 11 urte zituen eta soldadu nafarrak etxean lau egunez egon zirela azaltzen du. Ardiak jan zizkieten. Zazpi hilabete iraun zuen gerrak Arnon.

Transkripzioa

- Aber... zu jaixo ziñan mila bederatzirehun ta hogeita hiruan.
 - Hogeita hiruan.
 - Hogeita hirutik hogeita hamaika... sasoi haretan zu zazpi urte arte... akordatzan zea zazpi urte inguru arte e... jubilaziua ez zauan orduan...
 - E... keba... gerotxuauan ere! Jesus... gure amak eta amamak eta... ezta pentsau be hartzeik. Hartu be jun zian!
 - Hartu be danak...
 - Harek hartu be hil zin.
 - Ta gero, e... mila bederatzirehun ta hogeita hamaikatik hogeita hamalaura Errepublikia eon zan. Gerra arte... gerra baiño leno.
 - Bai, bai... gerra bitartian. Bai, hori ni umia nitzan, ta ez dakit horko kontuik, ez dakat... ez dakat horko kontuik.
 - Gerriakin akordatzan zea?
 - Bai.
 - Zenbat urte zittuzun zuk orduan?
 - Ez dakit, ba, zenbat aukiko nittuan hamaika, hamabi o... hamahiru izateko edo halakon bat.
 - Eta han soldaua egon zian...
 - Soldauak geure itxian... Sahatzun lau egunian.
 - Zeintzuk? Nundarrak?
 - Ba, naparrak edo ziala ta danak kastellanuak ta guk euskeraz. Ta paparran ipiñi zea ta hil bihar giñuzela esaten ziu. Lau egunian eon zian.
 - Lau egunian?
 - Hemen Sahatzun, geure itxin. Eta geo, Arnoate aldea, harutz, Kalamua aldea jun zian ta a ze bake edarra! ene! Ta ardixak bate motiboik be, ardi mordua soldauak nesezidadeik be ja-ta hil itten ziuzen guri. Ixtarra jan ta han laga alperrik hondatzen.
 - Lau egunetan?
 - Bai, lau egunin. Eskerrak aurea jun zian. Ta zazpi urte... hillabetian egon zan prentia Kalamua mendixan.
 - Eta tiruak entzuten zittuzuen?
 - Bai, tiruak eten bekua. Gau te egun, e! Tirua eoten zan.
 - Zazpi hillabetian?
 - Bai, setienbrian hogeita batian sartu zian Sahatzun. [...] Garagartzako kanpaiak. Soldauak etorri zian, eta Elgoibarrea Alzola aldetik etorri ta Sahatzura. Mendaron bestiak baiño leno sartuta Arnoa!

7.2. Mendaroko lantegiak

- **Hizlaria(k):** Olazabal Garate, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goikoetxea, Haritz - Otegi, Aitziber
- **Erref:** MEN-011/009
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:14:10. **Bukatu:** 00:15:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

- **Gaia(k):**

Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debabarreneko lantegiak

- **Laburpena:** Lehen lantegia asko zeuden Mendaron. Inguruko herritako jende ugari joaten zen bertako tailerretara lanera. Mekanika arloko tailerrak zeuden batik bat. Txokolate-fabrika eta bi zerrategi era bazeuden. Tailer batzuen izenak aipatzen ditu.

Transkripzioa

- Bestela ze lantegi zeuden hemen Mendaron?
- E?
- Ze lantegi zegoen hemen?
- Len asko. Mekaniko o zea dana. Mendaron len zan... teillarra Azpeittittikan, Azkoittittikan ta zeretikan... Zestuatikan ta... asko etortzen zan hona. Len teillar asko Mendaron. Herri txiki bat izeteko dana teillerra esate bateako.
- Mekanika ta... ta ze gehio?
- Bai, ba, horretxeta. Txokolateixia'e bai. Ondik'e segitzen deu. Bizkotxeixia be bahonan.
- (Hiztuna 2) "Serrería".
- E?
- (Hiztuna 2) Serrerixa bat ere bai.
- Baita, bi serrerixa ere bai. Eta bestela, ba, hamen Garzianeko teillarra, hamen. Larrañaganekua, Endeizanekua.
- Baiña hori gerra ondoren?
- Ez...
- Aurretikan'e bai?
- O bai, gerra ondoren.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Eskolara Ibiri auzora; etxe aurreko arte arbola (MEN-001/003)

3 urterekin hasi zen eskolara, baina etxean lanik ez zenean joaten zen soilik. 12 urterekin utzi zuen eskola eta basoan hasi zen lanean. Eskolara Mutrikuko Ibiri auzora joan zen. Etxe ondoko arte arbola ezagun baten inguruko kontuak kontatzen ditu.

2. Etxe atariko arte arbola erraldoia (MEN-001/004)

Aita Mendarokoa zen eta ezkondu zenerako bazegoen arte arbola Abeletxe baserriaren atarian. 20 tonako karga zuen gainean. 600 ardi ingururi egiten omen zion itzala arte hark. Gaur diputazioak zaintzen du zuhaitz hau.

3. Elizan monagilo lanetan (MEN-001/005)

Olatz auzoa eta Ibiri auzoa. Olazko elizara joaten zen udan 6ak ingururako, errezatzer. Apaizari igandero laguntzen zion meza ematen ez baitzegoen monagilotarako mutilik. Apaiza kaletik joaten zen.

4. Anaiarekin matematika ikasten eskolaz kanpo (MEN-001/006)

Eskola lbiri bailaran zegoen; auzoak egindako etxea zen. Irakaslea auzoko emakume bat izan zuten; eskola onekoa, baina gogorra zen. Irakurtzen hantxe ikasi zuen eta matematikak ere bai. Anaia kontabilitatea ikasitakoa zen eta gauez lagunak elkartu eta harekin ikasten zuten. Euskaraz ikasten zuten; liburuak izendatzen ditu.

5. Aita Mutrikuko astilerora idiekin egurra eramatera (MEN-001/007)

Ganadua zuten etxean eta soroko lanean ere aritzen zen. Ittulan saio ugari egindakoa da. Behiak eta idiak zituzten eta aita basoko enborrak eramaten ibiltzen zen idiekin mendiz Mutrikuko astileroraino. Gauezko ibilera izaten zen eta haren nondik-norakoak kontatzen ditu.

6. Egunean ogerleko bat basoko lanean (MEN-001/009)

Idi-parea hartuta basoan lanean ibiltzen zirenek egunean ogerlekoa irabazten zuten.

7. Erromeriak etxean (MEN-001/010)

Bitorianoren etxean erromeria egiten zen igandeetan. Gerora tabernetan bezalaxe zerga jarri zieten eta utzi egin zioten erromeria jartzeari. Soinua jotzera Larruskainera joaten zenekoa kontatzen du.

8. 15 urtetik gorakoak soilik erromeriara (MEN-001/011)

Etxera mutrikuar soinu-jole bat joaten zen erromerian jotzera eta gerora Juan Ansorregi joaten zen. 16 urte egin zituenean Bitoriano hasi zen. Jende ugari joaten zen erromeriara. 15 urtetik beheragoko mutilik ez zen joaten eta neskak ere etxekoren batek lagunduta.

9. Ama pandero-jotzailea (MEN-001/012)

Garai batean soinu-jotzailea bakarrik aritzen zen, pandero-jotzailerik gabe. Gelatxo aipatzen du, eta haren anekdota bat kontatzen du. Bitorianoren amak panderoa jotzen zuen eta berak ere belarriz ikasi zuen jotzen. Elgetaren inguruko gertakizun bat.

10. Lehenengo soinua 1.000 pezetan erositia (MEN-001/013)

Orduan ez zegoen soinuko irakaslerik. Bere osabak izan zuen lehenengo soinuari buruz hitz egiten du; pena du gorde ez izana. 1.000 pezeta ordaindu zuen bere lehenengo soinua.

11. Santa Ageda eskean soinua jotzera (MEN-001/015)

Santa Ageda eskera joaten zen inguruko herrietara. Gau eta egun izaten zen etxez etxeko eskea. Anekdota bat kontatzen du.

12. Santa Ageda eskeko pasadizoa (MEN-001/017)

Santa Ageda eskean bertsolariarekin ibiltzen ziren. Etxean hildakoren bat bazen urte hartan, kantatu gabe joaten ziren arrosarioa errezatuta. Santa Ageda eskeko pasadizo bat. Neskak prakak janztega gaizki ikusia zegoen.

13. Soinuko pieza baten inguruko anekdota (MEN-001/019)

Anekdota bat aipatzen du ikasitako pieza baten inguruan.

14. Soinu-jotzaile baten inguruko pasadizoa (MEN-001/021)

Erromeria etxean izan zen batean, soinu-jotzaile baten inguruko pasadizoa kontatzen du.

15. Erromeriak pandero hutsarekin (MEN-001/022)

Ama panderojolea zen, baina familiako ospakizunetan bakarrik jotzen zuen. Panderoaren inguruko kontuak eta panderojole ezagun baten kontuak. Orduko erromerietan pandero hutsarekin askotan aritzen ziren.

16. Dantza egitearren ordaindu egin behar (MEN-001/023)

Helduan dantza egitea libre zen. Dantza egitera joaten zenak 10 zentimo ordaindu behar izaten zituen pieza bakoitzeko eta diru harekin ordaintzen zitzaion soinujoleari. Larruskaingo erromeriaren inguruko kontuak.

17. Ezkondurik ez erromerietan (MEN-001/024)

Soinu-jotzaile gutxi zegoen; haietako batzuk izendatzen ditu. Erromeria bi ordukoa izaten zen; arratsaldean hasi eta ilunabarrean amaitzen zen angelusarekin. Anekdota bat aipatzen du. Ezkonduak ez ziren erromeriara joaten.

18. Madrilera futbola ikustera soinu eta guzti (MEN-001/026)

Madrilera soinua jotzera joan zirenekoa kontatzen du. Futbola ikustera joan ziren 13 lagun kamioi batean eta soinua eramane zuten.

19. Otarreak egiteko langaiak; basoetan gaztaina eta gorostia (MEN-004/014)

Aita Goikola baserrikoa zen eta ama Sahatzukoa, baina osaba-izebak zituzten. Agarretxiki baserrian eta bertara ezkondu ziren. Aitak etxean eta basoan, otarreak egiteko langaia ekartzen egiten zuen lan. Langaia etxera ekarri eta gero, otarregileak etortzen ziren otarreak egitera. Lehen gaztaina eta gorosti ugari egoten zen basoetan. Behin, hilabeteko elurtea egin omen zuen; kanpoan geratu zitzairen ardia nola salbatu zen.

20. Karobiak; anaiak ikazgintzan (MEN-004/015)

Ikatza eta karea askotan egiten zituzten. Karobi-zuloa etxe aurrean nola egin zuten gogoan du. Karobiak 3 egun behar izaten ditu erretzen eta txondorrak 12. Bere anaiak Arno inguruan egin omen zituzten azkenengo txondorrak. Gau eta egun txondorra zaintzen egon behar izaten zen eta bera bazkaria eramatera joan zitzairen.

21. Egunero babak; igandetan jateko berezia (MEN-004/016)

Eguneroko otorduak: goizean eta gauean taloa edo artoa eta eguerdian babak. Txerri hiltzen zuten urtero etxerako. Udazken aldera hura gastatzen zenean, ardia edo aharia. Igandetan garbantzuak eta okela pixka bat izaten zuten jateko eta hura lujoa izan ohi zen. Gabonetan olio-aza eta bisigua.

Urtebetetzeetan ez zen egoten oparirik, gaur bezala. Zerbait berezi bezala behin melokotoi pote bat ireki zuten urtebetetzea ospatzeko.

22. Larruskaingo erromeria (MEN-004/018)

Behin Larruskaingo erromeritik bueltan Kortazabal baserrira joan zireneko kontuak. San Inazioak ospatzen ziren Larruskainen eta egun horretan inguruetako guztiak biltzen ziren bertan. Dantzan lotuan ere egiten zuten, baina Aste Santuan debekuak egoten ziren. Aste Santuan egiten zuten jolasa.

23. Ardi-txabolak jolas-leku (MEN-004/019)

Umetan egiten zituzten jolasak: intxaur oskolekin zulora botatzen, "karaba-karabaka". Ardi-txabolak izaten ziren euren "festa-leku". Agarre-haundiko txabolan pasatzen zuten denbora gehien; erdiko frontaletik "ziburu-zaburua" izaten zuten zintzilik. Auzoko neska-mutilak elkarrekin ibiltzen ziren jolasean.

24. Don Joseren erromeria eta frontoiko dantza (MEN-004/020)

Apaizek sermoi gogorak egiten zituzten. Don Jose apaizak erromeria jarri zuen behin. Berria zelako-edo jende guztia hara joan zen frontoiko betiko dantza utzita, baina erromeria goiz bukatu zen eta gero frontoira denak, hango dantzara. Bertako antolatzailea (Markos) haserretuta ibili omen zen. Andra Marietan Mutrikutik musika banda etortzen zen.

25. Erromerietatik goiz etxeratu behar (MEN-004/022)

Normalean ez ziren joaten inguruko herrietako jaietara, herritik gero joanaldia zutelako baserriraino. Behin berandu xamar omen zihoazen etxera eta aurretik joan zirenek abisatu zioten ama deika zuela. Inguruko auzoetara joaten ziren erromeriara: Larruskainera, Olatzera, San Migelera...

26. Mendaro izena eta izana (MEN-004/023)

Lehen Mendaro zatituta zegoen: zati bat Mutriku eta bestea Mendaro. Beraiek udaletxera Mutrikura joan behar izaten zuten. Hala ere, kontribuzioa kobratzera bertara etortzen zitzaien Migelito izeneko gizona. Mendaro izena betidanik ezagutu du eta beraiek beti esaten zuten mendaroarrak zirela. Herrian beti ezagutu du ordezkariaren bat, nahiz eta herria ez izan ofizialki.

27. Ijitoen inguruko pasadizoak (MEN-004/024)

Gerraostean, mikelete ugari ibiltzen zen. Ijito ugari ibiltzen omen zen inguruetan eta haiek bidaltzera etortzen ziren mikeleteak. Behin, ijitoen mutikotxo bat agertu zitzaien etxe ondoan. Jaten eman eta lotaratu ere egin zuten, harik eta bila etorri ziren arte. Umearen amak beti gogoan izaten zuen gero bere umea han egona zela. Beste behin, Sahatzu baserrian zegoela, ijito bat sartu zitzaien oilo-lapurretara. Mendaroarren gaitzizena ere "ijitoak" da.

28. Lehenengo kotxeak; Itziarko taxista (MEN-004/026)

Lehen errepideetan ez zen kotxerik ibiltzen eta artalde osoak eramaten zituzten lasai asko bideetan zehar. Gogoan du nola don Jose medikuak eurenean esan zuen kotxeak ugaltzen zeudela; lehen don Antoniok eta berak bakarrik omen zeukaten. Azoka egunetan, Itziarko "Burugorri" taxilaria etortzen zen jendea Elgoibarrera eramateko. Behin taxilaria haserretu zeneko kontuak.

29. Elgoibarko azoka: kanpotarrei saltzea debekatuta (MEN-004/027)

Elgoibarko azokara joaten ziren saltzera. Arrautzak, oilaskoak, baba... denetarik eramaten zuten. Behin pozik zegoen arrautza mordoa batera saldu zizkiolako emakume bati, baina azkenean ez zioten utzi hori egiten, emakumea kanpotarra zelako eta herritik kanpokoei saltzea galarazita zegoelako. Jende asko ibiltzen zen Elgoibarko azokan; ostegunetan egiten zen. Hileko azken larunbatean feria egiten zen.

30. Goikola baserria eta inguruak (MEN-006/004)

Goikola baserrian jaio zen, garai hartan denak etxean jaiotzen ziren. Auzoaren eta bertako baserrien aipamena egiten ditu.

31. Errotak zigilatu egin zituzten (MEN-006/007)

Errotak itxi zituztenean, Markinara (Bizkaia) joaten ziren errotara. Gauez egiten zuten ibilbidea, guardia-zibilen beldurrez. Ogi gogorra izaten zen garai hartakoa; ez zen jateko modukoa izaten. Larruskaingo "Beheko tabernan" egoten ziren guardia zibilak.

32. Erreketeak etxean (MEN-006/008)

Gerra garaian, 15 egunez ateak eta leihoak itxita izan zituzten etxean. Erreketeak etxean izan zituzten; lagun ugari fusilatu zuten.

33. Gerrateko pasarteak (MEN-006/010)

Kalamua menditik botatzen zituzten kanoikadak. Orduko gertaerak kontatzen ditu.

34. Aitona Irunen soldadu (MEN-006/011)

Aitona, gaztetan, Irunen soldadu eta teniente izana zen eta gerra garaian ondo moldatu zen; erreketeeekin ere tratua izatera iritsi zen.

35. Gerraosteko gosea eta errazionamendua (MEN-006/013)

Gerraostean, gosetea etorri zen eta garai gogorrak bizi izan zituzten. Patataren orde z boniatoa izaten zuten jateko. Olia eta azukrea ere urri izaten ziren eta kontrabandotik lortzen zituzten halako elikagaiak. Errotak itxita zeuden.

36. Bide-lapurrekin gertatua (MEN-006/015)

Lapurrak bidera atera zitzaizkioneko gertaera kontatzen du. Luisen emaztea Amorotokoa zen eta, ezkondu aurretik, bere etxean egon zen neskame. Sasoi hartan, Luisek mendian egiten zuen lan, basoan.

37. Mutrikuko Sansomendiko erromeria (MEN-006/016)

Erromeriara Mutrikura joaten zen igandero, Sansomendira. Inguruko herrietako lagun ugari joaten zen eta soinu-jole onak izaten ziren. Baserriko atarian egiten zen erromeria eta taberna zegoen bertan. Bi pezeta ordaintzen zuten dantza egiteagatik. Beste erromeria leku batzuk izendatzen ditu.

38. Kontrabandoan Bizkaira (MEN-006/019)

Gerra ostean, arreba eta biak sagarrak saltzera joaten ziren Eibarrera, goizeko 5etan jaikita. Kontrabandoan joaten ziren eta Bizkaian sartzeagatik isuna ordaindu behar izaten zuten. Ganaduaren kontrabandoa ere egiten zen. Arnobaten egoten zen muga; han egoten ziren zain guardia-zibilak eta hura saihesten saiatzen ziren beti.

39. Mendaroko ijitoak (MEN-006/021)

Mendaroko ijitoek eta haien lagunek oiloak eta ardi zaharrak harrapatzen zituzten. Emaztearen bizi-tokia eta hango ijito baten inguruko kontuak.

40. Ijitoen bizimodua (MEN-006/023)

Ijitoen bizileku eta bizimodua kontatzen du. Ijito ezagunak zirenen aipamena egiten du, Erramunena esaterako. Euskaldunak ziren.

41. Apaizarekin zuen harremana (MEN-006/026)

Jaunartzea egiteko apaizarekin gertatu zitzaiona kontatzen du eta apaizaren eta eskolaz kanpo izan zuen maisu baten aipamena egiten du.

42. Itsasoari begiratuta eguraldia asmatu (MEN-006/029)

Eguraldiaren inguruko kontuak aipatzen ditu. Bere aitak itsasoko haizeari begiratuta asmatzen zuen ze eguraldi egingo zuen. Aita ikazkin lanetan aritzen zen askotan eta Luisek laguntzen zion.

43. Satanderak ehizatzen (MEN-006/031)

Satanderak eskopetaz ehizatzen zituzten, oiloak harrapatzen zituztelako. Lehengusu batek eskopeta baserrian uzten zuen eta Luis eskopeta harekin aritzen zen harrapaketan.

44. Kalamuan gerrako frontea (MEN-009/001)

Francoren indarrak Mendarora heldu zirenean, Kalamuan geratu zen gerrako frontea. Mendaron zuten atzeguardia. "Fakun-fakun-fakun" tiro hotsa entzuten zen. Bonba-jaurtitzailak ere agertzen ziren. Baserritarrek idiekin garraio lanak egin behar izaten zituzten.

45. Sorora ezin irten balen beldurrez (MEN-009/003)

Ezin sorora lanera lasai irten. Behin, artajorran zebiltzala, ondoan sartu zitzaien tiroa eta etxera egin zuten alde arin-arin.

46. Gerra-hegazkina bonbak jaregiten (MEN-009/005)

Txapel gorriarekin ibiltzea arriskutsua omen zen. Behin gerra-hegazkin batek askatu egin behar izan zituen aldean zeramatzan bonbak; batek zaldia hil zuen, eta beste bat gaztaina biltzen zebiltzan lekuan jausi zen. Bonba non jausi zen.

47. Bi fusilatu Mendaron (MEN-009/008)

Francok bi pertsona fusilatu zituen Mendaron. Haren tropak sartu zirenean, jendea kamioian hartu, norabait eraman eta hil egiten zuten.

48. Bandoz aldatzen saiatzeagatik makilatua (MEN-009/010)

Juanaren osaba bat harrapatu egin zuten bandoz aldatu nahirik zebilela. Makila mordoa apurtu zioten bizkarrean, informazioa atera nahirik. Patxiren osaba bat nola hil zuten.

49. Entregatutako uzta usteltzen utzi (MEN-009/012)

Gerraostean gobernuak garia, artoa eta baba errekitzen zituen. Mendaroko irin-fabrika pila galanta usteldu omen zen. Hartzen zen uzta gehientsua entregatu behar. Patxi soldadu egon zenean erdi usteldutako patata jan behar izaten zuten.

50. Taloa jaten aspertuta (MEN-009/014)

Ez zegoen ogirik. Irina ezkutuan egin behar zen, Lasturren edo. Beti taloa zuten jateko eta guztiz aspertu zen Patxi.

51. Ezkutatutako jendea etxeetan (MEN-009/016)

Gizon bat ezkutatuta egon zen Juliaren etxean. Erreketea zen (karlista). Patxiren etxean ere egon zen azkoitiar bat. Gero, Francoren tropak sartu zirenean, beste aldeko asko garbitu zituzten. Nazionalistek Patxi estu hartu zuten, etxean norbait ezkutatuta zutelakoan.

52. Izarraitz puntan lehen ikurrina (MEN-009/018)

Izarraitzen ikusi zuten gerra ondoko lehen ikurrina. Euskaraz egiteko eta kantatzeko beldurrez egoten ziren.

53. Guardia zibil baten alaba erdaraz erakusten (MEN-009/020)

Guardia zibil baten alaba izan zuten etxean erdaraz erakusten.

54. Apaizen beldur bizi ziren (MEN-009/022)

Apaizen beldur bizi ziren, konfesatu egin behar izaten zen eta. Apaizak ere ideologia politiko ezberdinekoak ziren; hildakoak ere ugari izan ziren. Apaizen mende bizi ziren. Garizuman zazpi aste soinu barik. Azkoitia partean ezin zen dantza lotuan egin, Mendaron, oster, bai.

55. Komunio txikia eta handia (MEN-009/023)

Komunio txikia eta handia egiteko bi dotrina ikasi behar ziren. Apaiza asko arrimatzen zitzaion Juanari, baina orduan ez zuen ezer txarrik pentsatzen.

56. Bulda erosiz gero bijilia eta baraurik egin behar ez (MEN-009/024)

Prezio diferenteko buldak zeuden. Merkeena erosiz gero, urteko ostiral guztietan barau eta bijilia egin behar zen. Garestiena erosiz gero, berriz, dena libre. Hijas de Mar&iacut;a eta luistarren kontuak.

57. 'Enciclopédia', eskola-liburu bakarra (MEN-009/026)

Alkortan zegoen Patxiren eskola. Azkoitiko maisu bat etortzen zen. Juana kalean ibili zen. Neguan bakarrik joaten ziren. Liburu bakarra zuten: 'Enciclopédia'. Eskolara baino nahiago zuten lanean geratzea.

58. Fubolean eta afariketan (MEN-009/028)

Futbolean ibiltzen zen Juana. Artilezko hariaz kortxo zati bat batu eta baloia eginda. Afariketan (kozineketan) ere bai. Patxi pilotan eta futbolean ibiltzen zen gehienbat.

59. Juliari baloia galdu sasian (MEN-009/030)

Behin Juanak baloi handi bat egin zuen, eta gustura ibiltzen ziren harekin futbolean, baina etxerakoan sasian galdu zitzaion. Sokasaltoan eta "txakurzuloka" ere ibiltzen ziren.

60. Kaniketan, koronaketan... beste ume-jolas batzuk (MEN-009/031)

Aponian (tortoloska), abarka-zarka, kaniketan, koronaketan... beste jolas batzuk.

61. Babak erre antzerkiaren bitartean (MEN-009/034)

Umeak jaiotzen zirenean esaten zieten bilatutakoak zirela, ez zekiten amak ekartzen zituenik. Berak zaintzen zituen anai-arrebak, eta etxeko suaren eta bazkariaren ardura ere berea izaten zen. Behin antzerki moduko bat antolatu zuen umeak entretenitzeko eta babak erre zitzaizkion.

62. Ardiak ekartzea ez zitzaion gustatzen (MEN-009/035)

Gero, koskortu zenean, baserriko lanetan jarduten zuen: zokor-jotzen, sagar biltzen eta abar. Ardiak menditik ekartzea ez zitzaion gustatzen.

63. Kantapaperak erosi eta kantuan (MEN-009/037)

Etxera kantuan etortzen ziren. Kantapaperak erosten zituzten ferian. Erromeriako kantauak eta soinuak gogoan hartzen zituzten.

64. Nola egin zuen nobioa (MEN-009/039)

Lasturrera erromeriara joan zen baten hasi zen Patxirekin ibiltzen. Neska-laguntzetik bueltan hasi zen guztia, eta gaur arte. Erromeria askotara ez ziren joaten. Gramofono bat zuten eta auzotik gutxi mugitzen ziren. Ez zuten kaletarrik nahi izaten baserriko neskek.

65. Orduko dantza-saioak gogoan (MEN-009/041)

Ez du ezer falta izan, ondo bizi izan da. Ez daki oraingo gazteak jakingo duten dutenaz disfrutatzen. Orduko dantzaldiak ederrak ziren, orain ez dago horrelakorik.

66. Permanentea eta makilajea: argazkia testigu (MEN-012/003)

Permanentea egiten zuen ilean. Elgoibarrera joaten ziren horretarako. Mendaron Valentin barberuak ere egiten zuen. Gaztetako argazki bat erakusten du. Argazkia ateratzera Eibarrera joaten ziren. Argazkia nola ateratzen zuten kontatzen du. Pixka bat makilatzen ziren

67. Motxaileak herrian (MEN-012/004)

Motxaileak herrian egon zirenekoa kontatzen du. Ramon motxailea aipatzen du. Beraiekin ez zuten harremanik. Plazan bizi zen emakume bat ere aipatzen

du. Euskaldunak ziren, Mendaroko herriari gainera "Motxaile herria" deitzen diote. Baserrietara joaten ziren lotara.

68. Umetako jolasak: aponak, panpinak... (MEN-012/014)

Ume garaian nola aritzen ziren kontatzen du. lagunak bertakoak zituen: "Tres-nabiozka". Jostailuen artean partxisa, kartak eta aponak aipatzen ditu. Aponak nola egiten zituzten aipatzen du, udaberrian arkumeak hiltzerakoan bertako taberna batean ematen zizkieten aponak. Jokoa nola den azaltzen du. Arkumearen arabera aponak ezberdinak izaten ziren. Yo-yoarekin ere jolasten ziren. Kautxuzko panpinak izaten zituzten. Panpinak direla eta inbidia pasatzen zuten.

69. Donostiako Errotatxo tabernan zerbitzari I (MEN-012/016)

Donostiako Alde Zaharreko Errotatxo tabernan egon zen lanean asteburuetan. Uda bateko abuztuan eta irailean ibili zen.

70. Donostiako Errotatxo tabernan zerbitzari II (MEN-012/019)

Lanerako erabiltzen zuen arropa: soineko beltza, amantal zuria... aipatzen ditu. Ez zuen tabernako mostradorean lan egiten jantokian mahaia zerbitzatzen baizik. Elgoibartar asko joaten ziren bertara. Eskupeko asko jasotzen zituela dio. Itsasoan lanean aritzen ziren asko hurbiltzen ziren, eta Felisak zerbitzatzea nahi izaten zuten. Behin galtzerdiak oparitu zizkion.

71. Donostiako Errotatxo tabernan zerbitzari III (MEN-012/021)

Elgoibartarrak Donostiako tabernara joaten ziren odolostea jatera, "Estarta y Ezenarro"koak aipatzen ditu. Irabazten zuen erdia amari ematen zion eta beste erdia berarentzat, ezkontzako arrea ordaintzeko, etxean ez eskatzeko.

72. Dirua banketxean (MEN-012/023)

Bere gizonak arreo bezala 500 pezetako gutun-azala eman zion. Bere etxera ezkondu ziren eta ez zuten behar askorik. Dirua banketxean gordetzen zuten, betidanik ezagutu izan du banketxea Mendaron.

73. Erromeriak I (MEN-012/025)

Erromerietan soinu-jotzailea egoten zen. Erromeria non egoten zen azaltzen du. Santa Anetan elgoibartarrak joaten ziren bertara. Helduta egiten zuten dantza. Mutilek ordaindu egin behar izaten zuten, txartel bat jartzen zieten mutilei dantzan egin ahal izateko.

74. Erromeriak II (MEN-012/027)

Bilobari beraien dantzan nola egiten zuten kontatu ziola kontatzen du. Plazan neskak neskekin aritzen ziren dantzan hasiera baten eta mutilen izkinatik begira, eta apurka-apurka hurbiltzen ziren.

75. Kondenak, penitentziak eta errezoak (MEN-012/030)

Behin abade batek esan zion mutilekin dantzan eginez gero kondenatua izango zela, baina berak erantzun zion berdin-berdin jarraituko zuela dantzatzen. Penitentzia beti izaten zen errezatzea. Mutilek aurrean konfesatzen zuten eta nesken sarean.

76. Errezo kontuak (MEN-012/032)

77. Mezak eta lutoa (MEN-012/035)

Mezak latinez izaten ziren. beranduago gaztelaniaz hasi ziren. Apaiza jendeari bizkarra emanda ematen zuen meza. don Enrike, don Jose eta don Domingo aipatzen ditu. Etxeko norbait hiltzen zenean urtebetez lutoa eraman behar izaten zuten. Lutoarekin lotutako ohiturak kontatzen ditu: pilimena, erreponsua.... "Medio lutoa", beltzez eta zuriz, urtebete pasatu eta gero janzen zen. Urtebetez domekero errito berdinak egin behar izaten zituzten.

78. Hileta elizkizunak (MEN-012/036)

Hileta elizkizunak etxekoek ordaindu behar izaten zituzten, gaur egun denen artean, jendeak laguntzen baitu. Baserrietakoek hileta ondoren tabernan banketea egiten zuten, baserrietako produktu onenak hartuta. Mojak etxekoak balira bezala tratatzen zituzten. Arropa bordatzen zuten, baita irakatsi ere.

79. Apaizarentzako jeneroa edo dirua (MEN-012/038)

Baserriko jendeak apaizei jeneroa eman behar izaten zien. Lehen abadeek neskamea izaten zuten. Etxeak bedeinkatzen joaten ziren eta orduan dirua edo zerbait ematen zitzaien.

80. Don Tomas medikua (MEN-012/040)

Don Tomas mediku eibartarra aipatzen du. Mendaron zuen kontsulta eta bertara joan behar izaten zuten. Gaizki egonez gero etxera ere joaten zitzaien. Umeak ere etxean izaten zituzten, Felisak 4 seme-alaba izan zituen.

81. 'Txirristaka' bertsolaria (MEN-013/003)

Txirristaka bertsolaria txatar-saltzen aritzen zen, eta Isidororen aitak lurretarako gurdia rentzako kablea hari erosi omen zion. Txirristakak kantapaperak saltzen zituen han-hemen eta bertsolari ezaguna zen. Nahiz eta bertsolariak Mugerza abizena izan, ez daki senideak ziren. Txirristaka Ameriketara joan zeneko pasadizoa kontatzen du.

82. Goikoetxea edo "Ezkerrane" baserria (MEN-013/005)

Baserriak Goikoetxea du izena, baina "Ezkerrane" izenez ere ezaguna da. "Ezkerrane" zergatik esaten dioten azaltzen du: Isidororen aitona ezkertiarra zen; behin jokoan egin zuen harri zulatzen eta han animoak ematerakoan "hori dek, hori dek ezkerra!" esaten hasi zitzaizkion. Handik aurrera baserriari "Ezkerrane" esaten diote.

83. Frankistek Santa Krutzetik buelta sartu (MEN-013/007)

Santa Krutzeko gurdibidetik frankisten zalditeria Mendaron nola sartu zen gogoratzen du. Nafarroatik Azkoitia aldera, handik Madariagara eta Madariagatik Mendarora sartu ziren. Isidorok 9 urte zituen orduan. Herritik gazte askok ihes egin zuten Bizkaia aldera, gerrara ez joatearren.

84. "Abuelo" hegazkina (MEN-013/008)

Nazionalisten erasoa nondik nora izan zen azaltzen du: hasi San Migeldik, Kalamua, Urko pasa Kanpazar aldera... Han, zazpi hilabetez geldituta eduki zituzten. Tiro-hotsak gogoratzen ditu. Tiro galduak ere iristen omen ziren noiz edo noiz baserri ingurura. Kortako sabaia lastoz beteta egoten zen eta han babesten ziren. Egunez, berriz, Mala aldera joaten ziren trenbide azpian babestera. "Abuelo" esaten zioten hegazkinari buruzko kontuak aipatzen ditu; gorrien hegazkina ei zen.

85. Irin-fabrikan kuartela (MEN-013/009)

Gerra garaian, soldaduek Mendaroko irin-fabrikan kuartela eduki zuten. Hamabost egun fronteaz eta beste hamabost egun kuartelean egiten zituzten. Zestoa, Errezil, Tolosa... inguruetakoa soldaduak egon ziren Mendaron.

86. Miliziano italiarrak (MEN-013/010)

Irin-fabrikako soldaduekin harreman ona zuten, baina gero etorri ziren miliziano italiarrak "txarrak" zirela dio. Baserrietatik oiloak laburtzen zituzten. Isidororen amonak erdaraz ondo jakin ez arren, oilo gazteak bakean laga eta zaharrak hartzeko esaten omen zien.

87. Karlistak (MEN-013/012)

Isidororen aita ez zegoen inongo alderditan afiliatuta, baina nazionalisten aldekoa zen. Abertzale asko zegoen Mendaron, baina karlistek indar handia zeukaten herrian. Aitarekin mezara joaten zen, gerrikoan eta abarketan ikurrina zituela. Meza ondorenean, batzokira joaten ziren hamaiketakoak egitera. Karlistak, berriz, tabernan egoten ziren. Karlistek herriko gazte bat hil zutela kontatzen du. Isidororen osaba-izeba batzuk Frantziara ihes egin zuten.

88. Aita Sarasketanean kaxagin (MEN-013/014)

Isidororen aitak hamar urte egin zituen Eibarko Bittor Sarasketa lantegian eskopetentzako kaxak egiten. Aitak berarekin lan egiten zuen Mendaroko karlista batekin zuen harremana ona kontatzen du.

89. Garia eta eskopetak entregatu behar (MEN-013/015)

Baserrian ez zuten goserik pasa. Baba, artoa, sagarra, tomateak... izaten zituzten. Garia entregatu egin behar izaten zuten. Bi eskopeta ere entregatu zituzten.

90. "Tertzerako" errazionamendua (MEN-013/016)

Errazionamendua hiru mailatakoa izaten zen. Isidororen etxean baxuena eduki zuten. Arroza, garbantza, azukrea, olioak, kafea.... errazionamenduan egoten ziren. Herrian izandako alkate karlista bati buruz hitz egiten du.

91. Gurdikada gari entregatu behar (MEN-013/017)

Ez zuten goserik pasatu. Baserrian nahiko ondo moldatzen ziren sasoian sasoiko fruituekin. Baserri txikia izanagatik ere, bildutako ia gari gehiena entregatu egin behar izaten zuten.

92. Soldadu egondako kintak (MEN-013/019)

Frontea zazpi hilabetea Kalamuan egon zenean, idiak zituztenek gurdiarekin joan behar izaten zuten hilotzak San Migelera eramatera. Isidororen baserrian astoa zeukaten, eta hilean bitan jeneroa altxatzera eramaten zuten. Soldadu egondako kintak aipatzen ditu.

93. Janaria (MEN-013/023)

Egunero baba jaten zuten. Txerriak ere jaten zuten. Porruak, azak, lekak, patatak... batzen zituzten. Sagarrak, madariak eta okaranak ere biltzen zituzten.

94. Lantegia erreta, etxetik hasi lanean (MEN-013/025)

Aitak Bittor Sarasketa lantegian, Eibarren, egiten zuen lan eskopetentzako kaxak egiten. Trenez bueltatzen zen Mendarora eguna Eibarren pasata. Gerra hasi zenean aitak lan egiten zuen lantegia apurtu egin zuten, beste askoren artean. Eibar eta Ermua aldetik kea ikusten omen zuten. Sarasketaren lantegia erre egin zuten, Isidororen aitak etxean lantegi txiki bat prestatu eta bertan egiten zuen lan.

95. Aita bezala kaxagin (MEN-013/026)

14 urtera arte ikasi egin zuen, eta gero, aitarekin hasi zen lanean. Kaxak egitea baino gehiago gustatzen omen zitzaion arotz lanean aritzea, baina eskopetentzako kaxak egiten aritu da 45 urtean.

96. Ehiza kontuak (MEN-013/028)

Eskopeta bazuen arren ez ziren asko ibiltzen ehizan. Urtea bi edo hiru irteera egiten zituzten. Erbi asko izaten omen zen lehen. Ehiza kontuak aipatzen ditu.

97. Motxaileak (MEN-013/030)

Motxaileen kontuak kontatzen ditu. Normalean, txaboletan egin ohi zuten lo. Isidorok bere txabolatik bidali zitueneko pasadizoa kontatzen du. Mendarori "motxaile herria" esaten diote.

98. Eskolako kontuak gogoan (MEN-013/033)

Lehen, maisu eta maistrak asko aldatzen zituzten. Denbora gutxi egiten zuten irakasle berdinarekin. Irakasleen izenak aipatzen ditu. Bere anaiek Don Zesareorekin ikasi zuten, eta maisu ona zela dio; ordurako Isidorok baserrian egin behar izaten zuen lan. Eskola nazionala non zegoen azaltzen du.

99. "Txalkorra" (MEN-013/034)

Jose Maria Linazasoro "Txalkorra"-ren hileta gogoratzen du. Egun hartan herrian automobil pila batu ei zen. Garai hartan, Mendaron ez ziren bi automobil baino.

100. "Txalkorra" eta irin-fabrika (MEN-013/036)

Jose Maria Linazasoro "Txalkorra"-ri buruzko kontuak aipatzen ditu. Tantorta baserrian morroi egondakoa, Mendaroko herriari asko lagundu ziola dio: Altzolan eta Mendaron zentralak jarri zituen, irin-fabrika sortu... Irin-fabrikako kamioiarekin ibiltzen ziren gidarien izenak aipatzen ditu.

101. "Kotxero"-koak eta "Txoferrane"-koak (MEN-013/038)

Herrian ez ziren automobil asko. "Txalkorra"-k triboli izeneko ibilgailu bat zuen; zaldiari lotutako gurdi bat izaten zen. Gero, automobila ekarri zuen. Triboliaren gidariari "Kotxero" eta automobilarenari "Txoferra" esaten zioten. Gaur egun haien familiak izen horiekin ezagutzen dira.

102. Aitaren tribolia (MEN-013/040)

Txalkorraren triboliaz gain, baserrietan baziren gurdiak. Isidororen aitak bazuen bat; eskopetak partitzeko erabili ohi zuen.

103. Garai bateko tabernak (MEN-013/042)

Garai batean Mendaron zeuden tabernak aipatzen ditu. Olianean eta estankoan ere beti ezagutu ditu dendak. Herriko tabernari eta merkatarien izenak esaten ditu.

104. Ondarroako arrain-saltzaileak (MEN-013/045)

Arrain-saltzaileak Ondarroatik etortzen ziren. Buru gainean otarra hartuta joan omen ziren Mendarora. Arrain-saltzaileak trenez eta autobusez ibili ohi ziren.

105. Kaletxoko otargilea (MEN-013/047)

Kaletxoko otarregileari buruz hitz egiten du. Familia handia eta langile amorratuak zirela dio. Neguan egurra basotik ekartzen zuten, eta gero, egurra ez usteltzeko, putzuetan biltzen zuten. Otarrak, sehaskak, aulkiak... egiten zituzten.

106. Txapela (MEN-013/052)

Txapela askotan erabiltzen zuten. Isidorok mutil koskorretan txapela erabili ohi zuen.

107. Altzolako udatiarrak (MEN-013/055)

108. Arno aldeko basoetan artea (MEN-013/063)

Txondorra egiten behin ere ez du parte hartu. Arnoko tontorrak izendatzen ditu: Bostehun basoa, Santa Krutz basoa, Belaitz, Tranpa aldia, Miolar, Kanpazar... Ikatza egiteko artea erabiltzen.

109. "Gordo"ren bikotea pilotan (MEN-014/001)

Gaztetan meza bukatu ostean frontoira joaten ziren pilotan jokatzera: bera eta "Gordo" Enrike eta Antonioren aurka. Berari ez zioten uzten sakea 2tik ateratzen. Eskua belztuta izaten zuten orduan. Frontoia non zegoen. Hasieran frontoi librea zen, baina gero uralitaz estali zuten. Taberna ere bazuen.

110. Batzokia; Monzonen eta "Altzeta"ren mitinak Mendaron (MEN-014/004)

Garagartza auzoan, "Muxionekua"n batzokia egon zen. Gogoan du Monzonen eta Carlos Linazasoro "Altzeta"ren mitinak entzun zituela Mendaron.

111. Abertzale eta errepublikanoen lehia Trinitateetan (MEN-014/006)

Gerra aurrean, abertzale eta errepublikanoen arteko liskarrik handiena Trinitateetan izaten omen zen, jaietarako jartzen zen pinuaren puntan bakoitzak bere bandera jarri nahi zuelako. Behin bi zuhaitz jarri omen zituzten. Herrian ez zegoen karlistarik.

112. Garagartzako ikasle aurreratuenak Azpilgoetara irakasle (MEN-014/008)

Garai batean bi eskola zeuden Mendaron: neska gehienak Garagartza auzora joaten ziren eta Azpilgoetako eskolan neskak eta mutilak batera. Batzuetan 70 ume inguru elkartzen ziren maisu batekin. Eskolan aurreratuenak zirenak Azpilgoetara bidaltzen zituzten nesken irakasle gisa. Alejandro Ruiz irakasle plentziarra.

113. Euliak abarketen hariekin lotuta (MEN-014/009)

Eskolan, abarketako zinten hariak atera eta euliei jartzen zizkieten hanketan lotuta. Euliak irakaslearen mahaira joaten ziren gero hegan.

114. Irakaslearen zigorra (MEN-014/011)

Irakaslea eskolatik irteten zenean fabrika bateko bulegora joaten zen lanera. Behin bera zigortuta utzi zuen gelan, berandura arte hantxe egon beharko zuela mehatxatuz. Berak leihotik ihes egingo zuela esan zion. Hori esateagatik makilakadak jaso omen zituen.

115. Irin fabrikak ordaintzen zuen maisuaren soldata (MEN-014/012)

Maisua gogorra zen, baina denborarekin makaltzen joan omen zen. Lekzioa nola hartzen zien. Trenez etortzen zen maistrarekin batera. Maistrarekin neskak ibiltzen ziren gehienbat, baina baita mutilen batzuk ere, maisuaren eskolak ordaindu egin behar izaten ziren eta. Eskola irin fabrikako Linazasorok sortua zen gehiena, eta hark ordaintzen zion soldata maisuari.

116. "Txalkorra", morroi lanean hasitakoa (MEN-014/014)

Jose Maria Linazasoro "Txalkorra" Arteta baserrian egon zen morroi gaztetan, eta handik Sasiolara joan zen, fraideengana, morroi. Behin fraideek barre egin ziotelako dena utzi eta alde egin zuen. Juanen aitonarekin ibili zen gerra karlistan eta baita meategian lanean ere, Somorrostron.

117. "Txalkorra"-ren inguruko kontuak (MEN-014/015)

Berak tratu handia izan zuen "Txalkorra"-rekin. Ganadua zeukaten etxe azpian. Gorreria handia zuen eta behin albaitariak esaten zuena interpretatzeko deitu omen zion. Beste behin Somorrsotron meategian bere aitonarekin lanean zebilela gertatutako pasadizoa kontatu zion.

118. "Txalkorra" Madrilen aberastu (MEN-014/016)

Madrilen bitxi-denda zuen mutilzahar batek, "Txalkorra" mutil argia zela ikusita, bere dendara eraman zuen lanera. Han ondo irabazten zuen eta jabeak berari utzi zizkion ondasunak. "Txalkorra" herrira etortzen hasi zen. Jauregi bat egin zuen Mendaron eta baita beste etxe bat ere. Irin fabrika ere berak jarri zuen martxan.

119. Herriko errotak ere erosi zituen "Txalkorra"-k (MEN-014/018)

Herriko errotak ere "Txalkorra"-k erosi zituen, erreka ura desbideratu eta bere turbinari indarra eman ahal izateko. gizon argia zen.

120. Madrilen aberastu eta dirua Mendarora (MEN-014/021)

"Txalkorra" gerra karlista amaitutakoan joan zen Madrilera bitxi-dendara lanera. Jabea mutilzaharra zen eta ondorengorik ez zuenez, berari utzi zizkion ondasun guztiak. Aberastu zenean, herrira etorri eta hainbat eraikin erostean gain, eskolak ere bultzatu zituen. Asko egin zuen herriaren alde.

121. "Txalkorra" ez zen oso erlijiosoa (MEN-014/022)

"Txalkorra" ez zen fraide zalea. Behin limosna eske etorri zitzaion gizon bat santuarekin eta bota egin zuen etxetik.

122. 'Txirristaka' bertsopaper banatzailea (MEN-014/025)

Herriko beste pertsonaia ezagun bat: Txirristaka. Elgoibarko feriakoan ikusi zuen berak, kanean, kaxa baten gainera igota, bertsoak kantatu eta paperak saltzen. Txakur handi batean saltzen zituen. Haren bertso bat abesten du.

123. Urte askoan meza-laguntzaile (MEN-014/028)

5 urte ingururekin meza-mutil lanak egiten zituen. Txikia zen oraindik eta apaizari liburua emateko ere lanak izaten omen zituen. "Introito" guztiak omen zekizkien. Don Migel eta don Enrike abadeen laguntzaile ibili zen. Bi abadeon ibilbidea.

124. Meza-laguntzaileak "introito"-ak erantzun behar (MEN-014/030)

Meza-laguntzailearen lana "introito"-etan abadeari erantzutea zen. Latinez oraindik gogoan dituen "introito" eta erantzunak errezitatzen ditu. Meza osoa latinez izaten zen. Meza egunero 7etan izaten zen eta udan igandetan 6etan.

125. Ura edan zuelako ezin Jaunik hartu (MEN-014/032)

Mezara baraurik joan behar izaten ziren. Goizean kanpaia entzundakoan jaiki eta elizara abiatzen zen meza laguntzera. Behin bidean ura edan zuen eta ezin izan zuen Jauna hartu. Meza ostean, etxera joan, gosalduta eta eskolara.

126. Abadeen soldata (MEN-014/035)

Garagartzan bedeinkazioak aterik ate egiten ziren, Azpilgoetan ez. Baserrietan soroak ere bedeinkatzen ziren eta trukean oilaskoren bat jasotzen zuen abadeak. Errepublikara garaian abadeei soldata kendu zitzaien eta, medikuen antzera, etxeetan kuota bat pasatzen zuten.

127. Baserrietakoak gutxiago eskolara (MEN-014/039)

Errepublikara garaian ere eskola gaztelaniaz ematen zuten, Alejandro Ruiz irakasleak ez zekien euskaraz eta. Bera 14 urtera arte ibili zen eskolan, baina baserrietakoak askoz gutxiago joaten ziren.

128. Eskolako materiala (MEN-014/041)

Maisuak Juani eskatzen zizkion konpasak. Eskolan entziklopedia erabiltzen zuten, ikasgai guztiak biltzen zituen liburua. Berak izeba bat zuen Bilbon eta kartaz hari eskatzen zizkion behar zituenak.

129. "Botones" lanari uko egin behar (MEN-014/042)

14 urterekin irin-fabrikara hasi zen lanean. Ama operatuta izan zuen Donostiako klinika frantses batean eta bertan "botones" moduan lan egitea eskaini zioten., baina ordurako bera lanean hasita zegoen.

130. Irin-fabrikako kontuak (MEN-014/044)

Irin fabrikara lan mota guztiak egin omen zituen. Hasieran "pintxe" bezala hasi zen eta gero kamioiarekin ibili zen. Espainia osoko lehenengo Mercedes diesela irin-fabrikara ekarri omen zuten. Trena fabrikaraino etortzen zen eta bagoietako garia biltegira husten zuten. Garia normalean Nafarroatik ekartzen zen. Irina Bizkaia ingurura banatzen zen gehien, kamioietan.

131. Don Jose abadea nola ezagutu zuen (MEN-014/045)

Don Jose abadea Zarautzen ezagutu zuen, hango baserritarren gariak jasotzera joan zen batean. Don Jose orduan baserriaren bateko maiordomo gisa zegoen.

132. Arraten jokaturako apustua (MEN-014/046)

Eibarko Arratera gariak pisatzera joan zenetako batean, Kantabria tabernan, baserritarrek apustua jokatu zuten San Isidro egunerako: idiekin Arrateko harriari zeinek buelta gehiago eman. Apustu egunean uztarria erdibitu egin zitzairen.

133. Irin fabrikako makinak eta lan-prozesua (MEN-014/047)

Garia fabrikara ekartzen zutenetik aurrerako prozesua. Gari-klase desberdinak daude. Gariak eho ahal izateko lehenbizi busti egin behar omen dira. Irin fabrikako makinaren inguruko azalpenak. Zahia eta birrina. Semola izaten zen garbiena, ordurako soberakin guztiak kentzen zitzaizkion gariari. Errotak. Galbahe lana egiten zuten makinak.

134. Telefono zentraliten funtzionamendua (MEN-014/050)

Telefono zentralitekin nola funtzionatzen zuten. Zentralitetan jendearentzat lokutorioa egoten zen. Listinak ere bazeuden. Irin-fabrikako zenbakia "1"-a zen, baina 3-4 lekutarako deitzen zuten bertara. Deia norentzat zen jakiteko tinbre kopuruarekin jokatzeko zuten.

135. Herriko eraikin zaharrenak (MEN-014/051)

Juan jaio zenerako irin-fabrika martxan zegoen. Gaur egun bizi diren etxea eraikitzen ezagutu zuen. Herrian eratzen diren eraikin zaharrenak.

136. Lizantzu baserria (MEN-018/001)

Ama Itziarkoa zen eta aita, berriz, Mendaroko Lizantzu baserrikoa. Baserri zaharra erre egin zen, eta Eliasen aitak egin zuen gaur egun dagoena. Baserri handia dela dio; leiho asko dituen. Bederatzi anai-arreba ziren. Anai bat gerran galdu zuen.

137. Arotz-lana, eskuz egin beharrekoa (MEN-018/003)

Hemezortzi urte egiteko zituela hasi zen arotz-lanean Garagartzan, eta erretiroa hartu bitartean lanbide horretan aritu zen. Denbora horretan lan egiteko modua asko aldatu dela dio. Lehen ia lan guztia eskuz egin behar izaten zen.

138. Sigmako makinentzako hankak egiten (MEN-018/004)

Arotz ofizioa lantegian bertan ikasi zuen koinatuarekin. Elias lanean hasi berritan Sigmako makinentzako hankak egiten zituzten. Egurra eskuz lisatzen zuten, eta bernizatzerak kanpotik joaten zen pertsona bat lantegira.

139. Eibarrera motorrean lanerako erreminta bila (MEN-018/006)

Zarauztik ekartzen zuten "txapa". Burdindegiko tresnak Eibarko Albistegi burdindegitik erosten zituzten. Elias motorrean joan ohi zen hara.

140. Mendaroko zerrategiak (MEN-018/007)

Lanerako egur erabiliarena pinua izan ohi zen. Haritza eta pagoa ere erabiltzen zituzten. Gurdiarekin joan behar izaten zuten egur bila. Mendaroko plazan eta Ospas baserriaren aurrealdean zerrategiak zeuden, eta handik askotan hartu ohi zuten egurra.

141. Pinuaren egurra, biguna eta merkea (MEN-018/008)

Egur klase batetik bestera alde handia dago. Pinuaren egurra da bigunena, bai eta merkeena ere. Aldiz, haritza gogorragoa da. Gaztaina oso ona da, baina garestia.

142. Mendaron bi aroztegi (MEN-018/009)

Eliasek lan egiten zuen aroztegia eta "Morroe zaharra"-rena, bi aroztegi, zeuden Mendaron sasoi batean. Lehen arotz eta igeltsero asko zegoen, tailer gutxi baitzen.

143. Pinuzko hilkutxak (MEN-018/010)

Markoak, leihoak, armairuak, hilkutxak... egiten zituzten. Presazko kasuetan, hilkutxak gauaz ere egin behar izaten zituzten. Hilkutxak pinuarekin egiten zituzten. Gerora, hilkutxak barrutik forratzen hasi ziren. Lan hori emakumeek egiten zuten.

144. Teilatuan arotz-lanean (MEN-018/011)

Lehen arotzak era guztietako lanak egiten zituen. Teilatua ere egiten zuten. Teilatua egiteko gaztaina edo haritza erabiltzen zuten gehienetan. Elias gustura aritzen zen teilatuan lanean: zenbat eta altuago ibili orduan eta nahiago izaten zuen. Behin lankide batek teilatuan lanean ari zirenean egin zion azpikokoa kontatzen du. Ez zuten segurtasun-sokarik erabiltzen

145. Teilatuko egurren izenak (MEN-018/012)

Teilatuko egurren izenak aipatzen ditu: "frontala", "kapixua", "gailurra", "latia"...

146. Arotzak eta igeltseroak elkarrekin lanean (MEN-018/013)

Egurrezko etxeetako teilatueta aritzen zen lanean. Arotzek eta igeltseroek elkarrekin asko egiten zuten lan. Aurrekontuak bien artean egiten zituzten.

147. Gurtardatza konpontzera erreminta-kaxa bizkarrean hartuta (MEN-018/014)

Baserrietarako tresnak egin ohi zituzten. Gurdietako gurtardatza, bi erroberen arteko ardatza, puskatzen zenean erreminta-kaxa bizkarrean hartuta joaten ziren konpontzera baserrietara. Normalean ardatzak puskatu edo gastatu egiten ziren. Sasoi hartan, arotzek lan asko izaten zuten.

148. Herrian nahikoa lan (MEN-018/015)

Lan gehiena Mendaron egiten zuten. Nahikoa lan izaten zuten herrian bertan. Ez zuen gustuko kanpora irtetea; konpromisoko kasuetan bakarrik.

149. Barrika konponketa, kurioso egin beharrekoa (MEN-018/016)

Gurdiak egiten zituzten, baina herrian ba omen zen beste bat lan horretan artista zena. Barrikak ere konpontzen zituzten. Barrikak nola konpontzen diren azaltzen du. Kurioso-kurioso egin beharreko lana da; gaizki eginez gero likidoa kanpora irten daiteke eta.

150. Urak jaistean argindarrik ez (MEN-018/017)

Lehen fabrika zaharretik irteten zen argindarra. Udan, Kilimoi ibaiko urak jaisten zirenean irin-fabrikarako lagatzen zuten argindarra soilik, eta Eliasen lantegian ez zuten argindarrik izaten egunez. Horregatik, gauetan lan egin behar izaten zuten. Mendaron bi zentral egon zirela aipatzen du.

151. Egurrezko etxeak (MEN-018/018)

Mendaroko hainbat etxetan egindako lanak aipatzen ditu. Etxeak, behetik hasi eta teilaturaino, egurrez egindakoak ziren. Arotzen eginkizunak zein ziren azaltzen du: zorua jostea, ateak jartzea, teilatua egitea...

152. Don Zesareo eta gau-eskola (MEN-018/019)

Arotz ofizioan koinatuaren bidez hasi zen. Mendaroko gau-eskolan Don Zesareo izan zuen maisu. Gizon txikia zen, baina errespetua sartzen zuen. Oso maisu gogorra omen zen, baina asko ikasten zuten harekin. Ordaindu egin behar izaten zuten gaueko eskoletara joateko. Debako maristetan ere ibili zen ikasten.

153. Debako maristak eta aitzur kirtenak (MEN-018/020)

Debako maristetan jende asko ibiltzen zen. Errespetu handia sartzen zuten. Zigortu egiten zituzten. Maristetako zuzendariak aitzurrak ematen zizkion Eliasi aitak etxean kirtenak egiteko. Goizeko trenean joaten zen Debara eta izebaren etxean bazkaltzen zuen. Eskolara joan baino nahiago zuen etxean lanean gelditzea. Ez zuen denbora asko egin eskola horretan.

154. Gerra garaiko gordelekuak; haizpea, bodega eta tunela (MEN-018/022)

Gerra garaian, Kalamuan frontea egon zen. Eliasen baserritik gora tiroak ikusten ziren iluntzetan. Aitak baserri inguruan zegoen haizpe batera bidaltzen zituen denak; eta aita, berriz, bakarrik gelditzen zen baserrian. Lizantzun bodega zeukaten azpialdean, eta han ere babestu ohi ziren. Mendaroko tunelean ere hartzen zuten babes.

155. Soldaduak katakumea leihotik behera bota (MEN-018/023)

Soldaduak baserriko itxiturako hesolak kendu eta kamioian eraman zituztela kontatzen du. Eliasen amak soldadu bati baino gehiagori jaten eman omen zion. Mutil koskorra zela soldadu batek katakumea leihotik behera nola bota zion azaltzen du. Aitak Kalamua aldea zeuden soldaduei materiala eramaten zien idiekin. Anaia gerran hil zen.

156. Anaia soldadu zela hil (MEN-018/024)

Anaia soldadu zela hil zen bonba batek jota, gerrako azken urteetan. Behinola, anaiarekin soldadu ibilitako batek hura nola hil zen kontatu zion.

157. Soldaduei laguntzera derrigortuta (MEN-018/026)

Soldaduek Eliasen aita eta inguruko baserrietakoak materiala eramatera derrigortzen zituzten. Ez omen zen ezetz esaterik. Mendaron herritar batzuk arrazoi jakinik gabe hil zituztela kontatzen du. Beldur handia zuten. Arno aldean jendea ezkutatu omen zen.

158. Aita gurdizain ibiltzen zen (MEN-018/028)

Eliasen aitak baserrian egiten zuen lan. Horretaz gain, ordea, gurdizain ere ibili ohi zen dirua ateratzeko; harrobitik harriak jaisten, basoetatik egurra zerrategira eramaten... Narrarekin ibili ohi zen lan horretan. Narra zer den azaltzen du. Aitak baserria erosi zuen, aitona bizi zela. Etxea pagatu zuenerako erre egin zitzairen. Eta gero, gaur egungo Lizantzu baserria egin zuten. Harrizko baserria da.

159. Gurdiei buruzko kontuak (MEN-018/029)

Hainbat gurdi mota zeuden: gurtzaldia, gurdi bolantea... Gurdiak nolakoak izaten ziren azaltzen du. Gurdiaren zatiak aipatzen ditu. Baserriko ezkontzetarako egiten ziren gurdiei kobrezko txanpon bat sartzen zitzairen, soinu berezia ateratzeko.

160. Garai bateko ezkontzak (MEN-018/030)

Sasoi bateko ezkontzak nolakoa izaten ziren aipatzen du. Zenbaitek bi egunetako ospakizunak egiten omen zituzten. Bere koinatuaren ama baserrietara joan ohi zen ezkontzetako bazkariak prestatzera.

161. Maiatzeko ilberrian haltza moztera (MEN-018/031)

Maiatzeko ilberrian haltza, erreka bazterrean hazten den zuhaitza, moztu behar izaten da. Altzaren egurra aproposa da eskailerak eta aulkiak egiteko.

162. Egurraren gaitza: "pipitxia" (MEN-018/032)

Egurraren gaitzari "pipitxia" esaten dio. Hezetasuna dagoen tokian sortzen omen da. Lehen egurrari gaitza sartzen bazitzaion berria jarri behar izaten zen.

163. Haritz eta pago ugari zituzten basoak (MEN-018/033)

Lehen akazia eta gaztaina ugari zen basoetan. Elias umea zenean basoetan haritz eta pago asko zegoen. Etxabe aldean pagadiak zirela aipatzen du. Artea berez etortzen omen da; ez da sartu beharrik izaten.

164. Tratatu gabeko egurra (MEN-018/034)

Egurra lehertzeko zerrategian oholak nola jartzen ziren azaltzen du. Lehen ez zen egurra tratatzen.

165. Arotzerian ere modak (MEN-018/036)

Egurra eurek bernizatzen zuten. Arotzerian ere modak izaten dira. Lehen ate lisoak eta moldura estuak jartzen ziren. Kasu berezietan kanpotik eginda ekartzen zituzten ateak. Haritza ona eta garestia dela dio, baina arriskutsuagoa ere ba omen da; izan ere, beroarekin-eta hazi egiten den egur klasea baita. Haritza ondo lehortu gabe jartzen bada "danborra" moduan altxatzen omen da.

166. Garagartzako etxeen izenak (I) (MEN-019/002)

Mendaroko Garagartzak auzoan jaio zen. Ze etxetan jaio zen. Inguruko etxeen izenak aipatzen ditu: "Kotxerokua", "Matonekua"... Euren etxe ondoan zegoen Mendaroko errementari familia ezagunaren etxea. Inguruan bizi ziren familiak. Gargartzan taberna ezagunenak "Matonekua" eta "Garzianekua" ziren.

167. Garagartzako etxeen izenak (II) (MEN-019/003)

Garagartzako "Garzianekua" taberna non zegoen. Haren inguruko etxeen izenak aipatzen ditu eta bakoitzean ze familia bizi ziren komentatzen du. Ferratokia ere bazegoen Garagartzan eta astelehenetan ilaran egoten ziren idiak, ferratzeko zain, lehen idiekin lan egiten zen baserrian eta.

168. Trinidad kalean "Motxailen etxia" (MEN-019/005)

Trinidad kalean 4 etxe bakarrik omen ziren. "Motxailen etxia" ere bazen, bi pisukoa, baina berak ez zituen ezagutu motzaileak han bizitzen. Plazan ere bizi omen zen motzaile familia bat. Bizimodu normala egiten zuten. Mendaro herriak motzaile fama du.

169. Uholdeak zirenean, abereak ganbarara (MEN-019/007)

Garai hartan, etxeetan beheko solairuan animaliak izaten zituzten: oiloak, untxiak, ahateak... Uholdeak zeudenean, ganbarara jasotzen zituzten abereak. Trekuren argi-zentrala bakarrik zegoen orduan, eta uholdeak zirenean argia moztzen zuen. Etxeak kale-etxeak ziren, baina abereak eta ortua izaten zuten. Santa Kurutz azpian zituzten lur-sailak.

170. Beti mendaroar sentitu (MEN-019/008)

Beraiek beti esan izan dute mendaroarrak direla, nahiz eta Mendarok herri izaerarik ez izan garai hartan. Mendarok Garagartza eta Azpilgoeta auzoetatik aparte ez omen du beste auzo nabarmenik, Plaza ez bada.

171. Komentuko mojekin harremana (MEN-019/009)

Etxe ondoan mojen komentua zuten eta harreman handia zuten haiekin. "Lokutorioa" zegoen komentuan, bisitak jasotzeko gela bat, eta auzoko emakumeak hara joaten ziren mojekin berriketara. Bera akolito lanetan ibili zen, baina bestelako lanak egitera ere askotan joan izan zen komentura.

172. ZUDAM lantegia sortu zuen beste kide batzuekin batera (MEN-019/012)

"Larrañaga y cía" lantegian hasi zen lanean artean 12 urte bete gabe. Larunbatetan ere 7ak ingurura arte lan egiten zuten. Handik urtebetera Arananera joan zen lanera. Soldadutzara joan baino pixka bat lehentxeago Ramon Azpiazuk bere lantegira eraman zuen eta bertan lan egin zuen, euren lantegi propioa sortu zuten arte. ZUDAM zuen izena lantegiak eta zulagailuak egiten zituzten. 30 urte ingururekin hasi eta jubilatuta arte lan egin zuen bertan. Gero lantegia itxi egin zen.

173. ZUDAM lantegiaren lana: zulagailuak (MEN-019/015)

Zulagailuak egiteko erabiltzen zituzten makinak aipatzen ditu. 5 lagunene artean sortu zuten lantegia eta hasieran beraiek egiten zuten lan guztia. Gerora mutil gazte batzuk ere sartu ziren. Gehien egon zirenean 12 lagun inguru izatera iritsi ziren. Zulagailuak Espainia osora saltzen zituzten.

174. Eskolatik jai egiteko gogoz (MEN-019/017)

Orain haurtzaindegia dagoen lekuan zegoen euren eskola. 2-3 irakasle izan zituen. Agapito izeneko maisua sarri gaixorik egoten zen eta eurak zain egoten ziren, haren semea noiz etorriko eskolarik ez zegoela esatera.

175. Mutikotan ibaira igerira; Trekuneko presa (MEN-019/018)

Mutikotan ibaira joaten ziren igerian egitera. Ura garbi-garbia egoten zen orduan. Trinitate bezperan eskolatik piper egiten zuten denek eta igerira joaten ziren. Ohiturari hori aurrekoengandik jaso zuten. Orduan mutiko guztiek zekiten igerian. Trekuren zentral ondoko presa.

176. Tunel ondoko etxetxoaren istorioa (MEN-019/019)

Deba alderantz, trenaren tunelaren ondoan etxetxo bat zegoen eta familia handi bat bizi zen bertan. Emakumeak, umeak... trenbidetik ibiltzen ziren beti, baita tunela zeharkatuz ere, baina inoiz ez zen ezer gertatu. Familiako aitona kaltzadorea zen eta horregatik bizi ziren han. Aitona jubilatuta zenean Mendarora etorri ziren bizitzera eta justu handik hilabete ingurura, haizete handi batek etxetxoa desagerrarazi zuen. 1942 ingurua zen eta haizeteak izugarritzko sarraskia egin zuen.

177. Uholde handiak Mendaron (MEN-019/021)

Uholdeak. Bere garaian, 1952an egon ziren uholde handiak eta historikotzat hartu zen ordukoa, baina 90eko hamarkadako uholdeekin alderatuz, ez zen

ezer izan ordukoa. Beldurgarria izan zen ordukoa. goiko solairuetaraino iritsi baitzen ura. Orduko bizipenak.

178. Uholdeetako bizipenak (MEN-019/023)

Bere jaiotetxearen azpikaldean harategia zegoen eta egunero Iglesias izeneko batek haragia ekartzen zuen Elgoibartik. Beraiek oiloak ere edukitzen zituzten behean. Eta Matoneko biltegia ere inguruan zegoen. Lehenengotako uholde handia izan zenean beraiek hantxe bizi ziren. Ura goraka nola zetorren ikusten zuten eta etxea ere urez bete zitzairen. Orduko bizipenak. Uholdeen ondorenak uzten duena.

179. Uholdeen inguruko kontuak (MEN-019/025)

Arrantzarako zaletasun handia izan du beti. Bi txanal izatea lortu zuen. Herrian egindako obrek uholde txikiak saihesteko balio izan dutela komentatzen du. Dena dela, Mendaron izan ziren uholde handi horiek ez dute irtenbiderik. Aurrerago ere izan omen zen halako uholde izugarri bat. Orduko kontuak.

180. Txanalarekin arrantzan ibaian (MEN-019/027)

Bi txanal izan zituzten, bata beraiek egindakoa eta beste erositakoa. Ibaian ibiltzen ziren arrantzan txanalarekin.

181. Elgoibarko Usetxe sagardotegia (MEN-019/029)

Aita Elgoibarko Usetxekoa zen. Sagardotegia zuten Usetxen eta etxe ondoan loinak edukitzen zituzten haztegien. Ohikoa izaten zen jendeak loinak jatea sagardotegian, haztegitik hartu, garbitu eta zartaginean frijituta.

182. Mendarotik Debako komentura bitartean arrantzan (MEN-019/030)

Aitarengandik jaso zuten arrantzarako zaletasuna. Aingirak hartzen zituzten ibaian, gero saltzeko. Lantegian baino diru gehiago irabazten omen zuen aingiratan. Eibarrera saltzen zituzten. Loinak ere saldu egiten zituzten urtean 2-3 aldiz, tabernara. Barboak, ostera, jateko hartzen zituzten. Mendarotik Debako komentura bitartean ibiltzen ziren arrantzan.

183. Batetik bestera joateko beti trenbidetik (MEN-019/031)

Batetik bestera joateko trenbidetik ibiltzen ziren beti. Trenbide ondoan ibiltzeko lekua egoten zen, kaltzadoreak eta trenbideko langileak ibiltzen ziren egunero eta. Egurra garraiatzeko edo beste gauza batzuetarako trenbidetik ibiltzen ziren beti.

184. Arrantza moduak eta tresnak (MEN-019/032)

Loinak sarearekin harrapatzen zituzten. Honen inguruko azalpenak; lexikoa. Aingirak kanaberarekin hartzen zituzten. Aparejuak; arraina batzeko zestoak. Esparbela ere erabiltzen zuten arrantzarako. Honen inguruko azalpenak.

185. Mutikoak ibaian biluzik bainatzen; neskak urruti (MEN-019/033)

Mutikotan denbora gehiena ibaian pasatzen zuten, igerian. Neskak ez ziren hurbildu ere egiten, mutiko gehienak, baita nagusiagotan ere, biluzik bainatzen ziren sarri eta. Behin lantegian lanean hasten zirenean Debara joaten ziren hondartzara.

186. Arraina itsasotik platerera (MEN-019/034)

Debatik Zumaiara bitartean ordu asko pasatu izan dituzte arrantzan eta ingurua oso ondo ezagutzen zuten. Durdoak eta zarboak harrapatzen zituzten itsasoan. Mendarora etorritakoan, arrain freskoa Matoneko tabernara eramaten zuten eta bertan jaten zuten. Ez omen dago halako jakirik. Tabernan afaltzen zeudela gertatutako anekdota. Arraina freskotan jan beharrekoa da.

187. Korrokoa freskotan jateko goxoa (MEN-019/035)

Korrokoa gaur egun ez da jaten, zikin artean ibiltzen delako, baina haragi zuri-zuria omen du. Beraiek mutikotan asko jaten zuten. Debako hotel batzuetan lupiaren orde ematen omen zuten korrokoa eta inork antzeman ez.

188. Lupia zelakoan korrokoa jan zuten herritarrak (MEN-019/036)

Herritar batzuekin gertatutako anekdota kontatzen du. Korrokoa jaten aspertuta zeudela eta, lupia eskatzen zuten. Berak korrokoi freskoa jarri zien lupia zela esanda, eta sinistu egin zuten.

189. Angulatan nola egiten zuten (MEN-019/037)

Arrantzarako zaletasun handia izan dute bai berak eta bai anaiak. Angulatan ere ibiltzen ziren eta nahikoa angula hartzen zuten. Angula normalaren eta angula zuriaren arteko aldea zein den bere ustez azaltzen du. Angulatan nola egiten zuten.

190. Ilberria onena angulatarako (MEN-019/038)

Angulak azaro inguruan hasten dira eta martxo aldera arte egoten dira. Ilberria izaten omen da ona angulatarako. Beraiek kiloak hartzen zituzten. Angulak hartzeko marea iristen den lekuraino joan behar da, Debako futbol zelai ingururaino. Orain angulatarako ohitura galdu egin da, baina ilberri batzuetan gauez itsas bazterra argitxoz beteta ikusten da oraindik.

191. Arrantzan bazterretik edo ontziarekin (MEN-019/039)

Beraiek beti bazterretik egiten zuten angulatan. Deban, Lasao inguruan baziren 2 txalupa handi eta haiek polea bat izaten zuten botatako sare handia jasotzeko. Gero ontzi txikiak ere hasi ziren garai batean, baina debekatu egin zituzten. Debako moilan ontziek alanbrezko poltsa antzekoak dituzte eta moilan batetik bestera ibiltzen dira eta bazterrera joandakoan, hartu dutena hustu. Baina sarri ontzi asko egoten dira zati berdinerako eta zain egon behar. Angula desagertu egin dela dio.

192. Aingirak udazken aldean itsasorantz bueltan (MEN-019/040)

Angulak galdu egin direla dio. Garai batean udazken aldean 2 kilo inguruko aingira handiak ikusten omen ziren inguruko ibaietan. Ibaietan goi aldean bizi

izan eta umeak izatera bueltan itsasora zihoazen aingirak omen ziren haiek. Honen inguruko azalpenak.

193. Kolaka (sábalo) handiak etortzen ziren itsasotik (MEN-019/042)

Maiatz inguruan 2-3 kilo inguruko kolakak ("sábalo") sartzen ziren ibaira. Beraien entretenimendua haiei harrika egitea izaten zen. Ibaian 15 egun inguru egiten zituztenean hil egiten ziren. Garai batean arrain txikiak multzoka etortzen ziren itsaso aldetik behetik gora, baina gaur egun ez da halakorik ikusten.

194. Txorikumeak hazi izan ditu etxean (MEN-019/044)

Txorikumeak hartu eta etxean hazi izan ditu. Eskinosoak izan zituen etxean eta soltean ibiltzen ziren etxe barruan.

195. Eskolako instrukzio-saioak (MEN-020/003)

Eskolan egurrezko fusilak ematen zizkieten instrukzio-saioak egiteko. Saio haiek nolakoak izaten ziren azaltzen du.

196. Soldaduak Mendaron (MEN-020/004)

Gerran, Mendarotik pasa ziren soldaduak ikusi zituen Domingok; fabriketan egiten zuten lo eta ondo jaten zuten.

197. Soldaduak etxez etxe janari bila (MEN-020/006)

Soldaduek Mendaron ez zuten ezer egin. Etxeetan janaria bildu zuten. Beraien etxera falangistak etorri ziren arrautza bila, baina ez zuten ezer ordaindu; aitak horren berri izan zuenean, kuartelera joan zen dirua erreklamatzera eta ordutik ez zieten gehiago molestatu.

198. Txorrotxaren anekdota (MEN-020/015)

Txorrotxari buruzko anekdota kontatzen du.

199. Elizan eta eskolan ikasitakoak (MEN-020/018)

Eskola eta elizaren arteko aldeari buruzko anekdota kontatzen du Domingok.

200. Pistolarekin zer egin? (MEN-020/027)

Gerra garaian, Domingoren osabari pistola eman zioten, guardia egin zezan; baina aitak orduan ibaira bota zuen pistola.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-29

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com